

Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekitaldiak antolatzekeo eskuliburua

**Erronka Garbia
metodologia**



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

© Ihobe

Edizioa: 2017ko maiatza

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua, 48011 Bilbo
www.ihobe.eus - www.ingurumena.eus

Edukia:

Dokumentu hau Ihobe sozietate publikoak egin du inèdit enpresaren laguntzarekin.

Liburu honen edukiak, edizio honetan, ondoko lizentziaren babespean argitaratu dira:
Creative Commons-en Aitortu - Ez komertziala - Lan Eratorririk gabe 3.0 Unported.
(informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES).



Edukien aurkibidea

Sarrera	5
Zer da ingurumenaren aldetik jasagarria den ekitaldi bat?	6
Zergatik txertatu ingurumen-irizpideak ekitaldi batean?	6
Erronka Garbia ekimena	8
Ekitaldien ingurumen-jasangarritasunaren ziurtagiria	9
Interes-taldeak	11
Ingurumenaren aldetik jasagarria den ekitaldi baten faseak	14
1. fasea: Diseinua eta plangintza	14
2. fasea: Ekitaldiaren antolaketa	16
3. fasea: Egitea eta jarraipena	17
4. fasea: Desmuntaketa eta amaiera	19
Ingurumenaren aldetik jasagarria den ekitaldi bat antolatzea	21
Non esku hartu?	22
Ekitaldi baten ingurumen-monitorizazioa	25
Zer da ekitaldi baten Bizi Zikloa?	26
Ekitaldi batek zer inpaktu eragiten ditu?	27
Zein da nire ekitaldiaren inpaktua kalkulatzeko prozesua?	29
Zer egin lortutako ingurumen-erantzekin?	30
Komunikazioa eta sentsibilizazioa	31
Ingurumen-hobekuntzako jarduerak	35
Mugikortasuna	38
Energia	58
Ura	76
Erosketak	90
Azpiegiturak	122
Hondakinak	146
I. eranskina: Jarduketan menua (checklist)	164
II. eranskina: Jarduketan jarraipen-adierazleak	166
III. eranskina: Datuak biltzeko formularioa	172



ERRONKA GARBIA

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN EKITALDIA



Sarrera

Zer da ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldi bat?

Kultura garaikidean pertsonen izaera sozial eta taldekoia erakusgarriak agertzen dira etengabe. Taldeak osatzeko, partekatze eta erritualak sortzeko joera natural hori dela-eta, askotariko ekitaldi eta topaketak ospatzea ohikoa izaten da.

Ekitaldia, denboran eta espazioan planifikatuta dagoen ekintza bat da, esperientzia bat sortzeko edo mezua bat komunikatzeko eta pertsona multzo bat eraginpean hartzen duena.

Ekitaldi bat egitean inpaktu positiboak eta negatiboak eragiten zaizkio komunitateari, ekitaldiaren inguruneari eta ekitaldira bertaratzen den jendeari. Ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldi bat izango

da diseinatzen den unetik hasita ekitaldiak eragingo duen ingurumen-inpaktua aintzat hartzen duena, betiere efektu positiboak areagotu eta negatiboak leuntzeko asmoz.

Ekitaldi baten inpaktua aldatu egiten da hainbat ezaugarriaren arabera: tipologia, ekitaldiaren kokapena, bertaratuak, zer jarduera mota egiten diren eta abar.

Gida honen bitartez, eraginpeko eragileei orientabideak emango dizkiegu ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldi bat planifikatzeko egin beharreko urratsei buruz, baita ekitaldia gauzatzeko, ekitaldiaren inpaktua neurtzeko, emaitzak komunikatzeko eta etengabeko hobekuntza sistematizatzeko zer egin behar den jakiteko ere.

“Ekitaldi jasangarri bat da ingurumenean izan ditzakeen inpaktu negatiboak minimizatzeko diseinatu, antolatu eta egin den ekitaldi bat.”

Erronka Garbia, EAEko ekitaldietarako ingurumen-jasangarritasunaren ziurtagiria (Ihobe, 2016)

Zergatik txertatu ingurumen-irizpideak ekitaldi batean?

Ekitaldi bat planifikatu, sustatu eta gauzatzeko garaian, prozesuaren emaitza baldintzatzen duten ehunka erabaki hartu behar izaten dira, segurtasunarekin, irudiarekin eta aurrekontuarekin lotutako irizpide zorrotzen, bezeroaren eskakizunen eta bertaratuko direnen espektatiben arabera. Aipatu berri ditugun irizpideez gain, erabakiak hartzeko prozesu horretan ingurumen-irizpideak txertatzeak ere alde onak ditu, maila askotan.

Kostuak aurreztea



- Energia-kostuak murriztea, energia-aurreztearen eta -eraginkortasunaren ondorioz.
- Bertako produktuak eskuratzeak zonako ekonomiari laguntzen dio, eta askotan garraioari lotutako kostuak murrizten dira.
- Ur-kontsumoan aurreztea.
- Lehengaiari lotutako kostuak murriztea, berrerabileraren ondorioz.
- Sortzen diren hondakinen bolumena txikitzean, kudeaketa-kostuetan aurrezten da.

Finantzazioa eta babesleak lortzea



- Ekitaldi ingurumenarekiko jasagarriek baldintza hobeetan lor ditzakete babesleak eta finantzazioa, erakundeek lehentasuna ematen baitiote beren marka indartzeko eta posizionatzeko aukera emango dieten balio positiboekin agertzeari.

Interes-taldean gogobetetzea



- Pixkana handituz doaz erakunde publikoen eta beste interes-talde batzuen eskakizunak ekitaldiak babesteko orduan. Etorkizunari begira, eskakizun horiek indartzeko joango dira, eta egoera hobean geratuko dira aurrea hartzen duten ekitaldiak eta ingurumen-hobekuntzako neurriak hartzen dituztenak.

Ingurumen- eta gizarte-onurak



- Lehengaien, energiaren eta uraren kontsumoa murriztea.
- Baliabide fosilen mendekotasun txikiagoa.
- Ekoberrikuntza produktu eta zerbitzuetan.
- Hondakin gutxiago sortzea eta biritza-amaierako tratamendua hobetzea.
- Airerako emisioak eta uretara eta lurzorura doazen isuriak murriztea.
- Biodibertsitatea sustatzea eta tokiko arazoetan arreta jartzea.
- Zarata gutxiago sortzea eta, hala, bertakoentzako eta inguruko bizilagunentzako eragozpenak saihestea.
- Inpaktu ekonomiko lokal positiboa eta kultura-ondarea.
- Gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden kolektiboen gizarteratzea, eta herritarren parte-hartzea hobetzea.

Irudia eta sentsibilizatze gaitasuna hobetzea



- Erakundearen, parte hartzen duten enpresen eta babesleen irudia indartzea.
- Ingurumenaren aldetik jasagarriak diren ekitaldiek bertaratuei esperientzia hobe bat izateko aukera ematen diete: beren balioak ordezkatzuta ikusten dituzte, eta modu aktiboagoan hartzen dute parte.
- Ekitaldira bertaratzen direnak sentsibilizatzea eta haien bizi-ohiturak hobetzea. Ekitaldiek ahalmen handia dute aisialdiaren bidez sentsibilizatze eta bizi-ohiturak aldatzeko.

Erronka Garbia ekimena

Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak hobetzeko aukera handi bat identifikatu zuen ekitaldietan ingurumen-irizpideak txertatuta. Aukera horrek bultzatuta, 2014. urtean Erronka Garbia proiektua abiarazi zuen eta, horri esker, ekitaldietan ingurumen-irizpideak txertatzeko metodologia bat garatu zen; urte hartan eta 2015ean hainbat motatako ekitaldietan aplikatu zen metodologia, proba-pilotu moduan.

Proiektu horren helburua ekialdietako antolatzaileak eta bertarutzen direnak kontzientziatzea da, ekitaldi jendetsuek eragin ohi dituzten inpaktu negatiboak leuntzeko, betiere ingurunean ahalik eta inpaktu txikiena eragingo duten ekitaldiak lortzea xede izanik.

Eta ekitaldietako antolatzaileen jarrera eredugarriak indartze aldera eta ingurumenaren aldeko apustua eta egindako lana berrestearren, Eusko Jaurlaritzak Erronka Garbia ziurtagiria sortu zuen. Ziurtagiri horren bitartez, ekitaldiak ziurtatzen dira, horiek diseinatzeko eta antolatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko inpaktu negatibo potentzialak minimizatzeko ingurumen-neurriak txertatzen badituzte.

«Erronka Garbia» lelopean, ingurumen-zigilu bat sortu da ekitaldietako antolatzaileek ingurumen-inpaktua murrizteko hartutako konpromiso soziokulturalaren bereizgarri; ekitaldi baten zikloan biltzen diren etapa guztietan bete beharreko alderdiak hartzen ditu eraginpean, betiere ekitaldia ingurumenaren aldetik jasangarria izan dadin.

Ekimen edo markak funtsezko 3 oinarri ditu: **kutsadura prebenitzea**, inpaktu negatibo potentzialak saihesteko eta/edo murrizteko; **garden jokatzeta**, erabiltzaileei ekitaldiaren ingurumen-jasangarritasunaren bilakaera jakinaraziz; eta, azkenik, **sentsibilizatzea**, interesdunak inplikazioez jabetu daitezen, eta, horrela, jokabide-aldaketa sustatzeko.

Aldi berean, jarduteko lehentasunezko 6 ardatz identifikatzen ditu ekitaldiak ingurumenaren aldetik hobetzeko: Mugikortasuna, Energia, Ura, Erosketak, Azpiegiturak eta Hondakinak.

Azken 2 urteotan ikasitako guztia aurkeztuko dugu argitalpen honetan; izan ere, ekitaldi baten ingurumen-jarduera hobetzeko, ekitaldiaren etapa bakoitza gauzatzean egin beharreko jarduketak bildu ditugu. Ekitaldi motei dagokionez, oso bestelako ezaugarriak dituzten askotariko ospakizunak sartzen dira.

Erronka Garbia ekitaldi mota ugarian aplikatzeko moduan egokitu da, barruan nahiz kanpoan izan: bilerak, biltzarrak, hitzaldiak, ekitaldi ludikoak, kirol-ekitaldiak, musika-jaialdiak, herriko jaiak...

Ingurumen-jasangarritasunaren ziurtagiria ekitaldietan


Erronka Garbia proiektuaren barruan eta, ekitaldietan ingurumen-irizpideak txertatzeko metodologia testatu ostean, ekitaldietako ingurumen-jasangarritasunaren ziurtagiria sortu da; ekitaldien antolatzaileek eta jabeek dute ziurtagiria lortzeko aukera, ingurumenaren aldeko jarrera dutela jakinarazteko.

Ziurtagiria lortzeko, hainbat eskakizun bete behar dira; eskakizun horiek honako dokumentu honetan jaso dira:



«Ziurtagiriaren eskakizunak, ziurtagiria emateko prozedura eta markaren erabilera».

Jarraian, antolatzaileek ekitaldiaren ziurtapena lortzeko eta Erronka Garbia marka baliatu ahal izateko egin behar dituzten urratsak laburbilduko ditugu.





Erronka Garbia erregistro-eskaera ekitaldia **diseinatzeko eta planifikatzeko fasean** bete behar da, eta ekitaldiaren oinarritzko ezaugarriak adierazi behar dira. **Erronka Garbia eskaera** egiteko formularioan, ekitaldiaren irismenaren lehen definizioa egin behar da, honako elementu hauek zehaztuta: tipologia, xede-hartzaileak, interesdunak, sistemaren mugak eta abar. Gainera, diseinatzeko eta planifikatzeko fasearen xehetasun garrantzitsuak ere eman behar dira, hala nola, eginkizun eta erantzukizunak, ingurumen-alderdiak eta ekitaldiaren helburuak eta xedeak ingurumen aldetik.


Ekitaldiaren ingurumen-jasangarritasunaren plana ekitaldia **antolatze fasean** diseinatu eta egin behar da, eta ekitaldia bukatzen denean bete egin beharko da. Plan horretan, ekitaldian ingurumen-irizpideak txertatzeko egingo diren jarduketak eta hartuko diren konpromisoak zehatz-mehatz definitzen dira. Horregatik, ingurumen-jasangarritasunaren planean, ingurumen-arloko helburu eta xedeak betetzeko zer jarduera egingo diren zehazten da (ingurumena hobetzeko programa), ekitaldia egiten denean gauzatuko diren ingurumen-alderdiak neurtu eta ebaluatzeko metodoa zein den ezarri eta horiek biltzeko zer baliabide behar diren identifikatzen du (monitorizazio-programa), eta identifikatutako interesdun bakoitzarekin ekitaldiaren ingurumen-sentsibilizazioko helburuak betetzeko gauzatuko diren komunikaziorako metodo eta bideak zehazten dira (komunikazioko eta sentsibilizazioko programa).



Ekitaldiaren ingurumen-adierazpena, dokumentu publikoa izango da eta egokitasunaren, osotasunaren, koherentziaren, zehaztasunaren eta gardentasunaren printzipioei atxikiko zaie. Ekitaldiaren ingurumen-adierazpenean, gutxienez, honako hauei buruzko informazioa agertuko da: ekitaldiaren ingurumen-arloko helburu eta xedeak, lortutako emaitzak, ekitaldian sortu diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak eta burutu diren komunikazioko eta sentsibilizazioko ekintzak. Ekitaldiaren ingurumen-adierazpena dokumentu publikoa izango da eta egokitasunaren, osotasunaren, koherentziaren, zehaztasunaren eta gardentasunaren printzipioei atxikiko zaie.

Interes-taldeak

Ekitaldi bat ahalik eta jasangarriena izan dadin, ezinbestekoa da ekitaldian esku hartzen duten interes-talde guztiek ahalik eta ondoen jakitea zer helburu ezarri diren eta zer jarrera izan behar duten, ekitaldiak eragin ditzakeen inpaktu positiboak maximizatzeko eta negatiboak minimizatzeko. Hori dela eta, ezarritako helburuak lortzeko, funtsezkoa da interes-talde guztiak inplikatzea.



Interes-taldeen mapa.

Ekitaldiaren jabea: Ekitaldia enkargatzen duen pertsona edo erakundea da, eta haren ardura dira kontratazioak, marketina eta komunikazioa, kontabilitatea, programazioa, plangintza, funtsak biltzea eta abar. Jabearen konpromisoa funtsezkoa da ekitaldi batean jasangarritasuna txertatzeko, ekitaldiaren eta ezarritako jasangarritasun-helburuen ikuspegi orokorra baitu eta eragile guztien komunikazio-lotura baita. Jabeak gainbegiratu behar ditu helburuak eta bermatu betetzen direla.

Antolatzailea: Askotan, ekitaldi baten jabeak hirugarren erakunde bat kontratatzen du ekitaldiaren antolakuntzako alderdi teknikoek arduratu dadin. Honela, ekitaldiaren ekoizpenarekin eta kudeaketarekin lotutako alderdi batzuk edo guztiak erakunde horren esku uzten dira. Erakunde horren esku-hartzea oso garrantzitsua da, berak ezarriko eta gauzatuko baititu diseinu-fasean planifikatutako hobekuntza-neurriak. Esperientziak dio neurri horiek behar bezala gauzatzea eta lekuan bertan laguntzea funtsezkoa dela jarduera batek emaitza positiboa izan dezan.

Bazkideak/Laguntzaileak: Ekitaldiaren faseren batean laguntzen duten erakunde publiko nahiz pribatuak. Sarean lan egiteak hainbat abantaila ditu ekitaldiaren antolaketaerako eta garapenerako.

Babesleak: Ekitaldia egin ahal izateko baliabide ekonomikoak ematen dituzte. Babesleak, berriz, publikoarentzat ikusgai egoten dira eta ekitaldiaren balioekin identifikatzen dituzte; hori estrategikoa izan daiteke haientzat. Horregatik, irizpide etikoekin hautatu behar dira, eta bermatu behar da ekitaldiak jasangarritasunarekiko duen jarrera eta ekitaldian bertan izaten den jarrera bat datozela.

Hornitzaileak: Ekitaldia, neurri handi batean, ekitaldian parte hartzen duten produktu- edo -zerbitzu-hornitzaile guztien parte-hartzearen eta konpromisoaren mende dago; hau da, hornidura-katearen mende. Beren antolakuntzan edo produktuan ingurumen-irizpideak txertatzen dituzten hornitzaileak hautatzeak eta haien esku hartzeak ekitaldi jasangarriago bat lortzen laguntzen dute. Erakundeak ziurtatu behar du hornitzaileek ezagutzen dutela ekitaldiaren ingurumen-politika eta helburuak lortzen laguntzen dutela hobekuntzak eginez, monitorizatzeko datuak eskainiz eta abar. Irizpide horiek betetzen direla ziurtatzeko tresna garrantzitsua da kontratuetan baldintza espezifikoak txertatzea.

Ekitaldiko bertaratuak eta parte-hartzaileak: Ekitaldi bateko parte-hartzaileak (parte aktiboa dute ekitaldiaren edukietan) eta bertaratuak (zerbitzuak eta/edo edukiak jasotzen dituzte) bi alderditatik hartu behar dira kontuan. Alde batetik, ekitaldia dela-eta gogobeteta egotea bermatzen saiatu behar da, eta, bestetik, jasangarritasun-ekintza guztietan esku hartu behar dute, haien laguntzarik gabe ezingo baitira bete jarritako helburuak. Ziurtatu behar da parte-hartzaileek ulertzen dutela eta beren gain hartzen dutela ekitaldiaren konpromisoa. Hori funtsezkoa da ezarritako jasangarritasun-helburuak lortzeko. Horretaz gain, ekitaldiko jarduerak lagundu behar dute publikoak portaera horiek, beren eguneroko bizitzan gauzatzen, haien bizi-estilo eta -ohituretan esku hartuz inpaktu handiagoa lortuko luketelako.

Hedabideak: Hedabideak funtsezko aliatuak dira ekimenaren mezua eta arrakasta-maila zabaltzeko. Beraz, funtsezkoa izango da baita ere, ekitaldiaren planari eta jarduera-lerroei buruzko informazioa zabaltzea. Gainera, jarduera-lerro horiek beste ekitaldi batzuekiko elementu bereizgarriak izan daitezke eta koherentzia eman diezaiokete ekitaldiaren edukiari zein formari.

Garraio publikoko operadoreak:

Jendea ekitaldia egingo den lekura edo aldi berean beste jarduera batzuk dauden lekuetara eramaten dute. Funtsezko zeregina dute ekitaldira joango direnei garraio kolektiboa erabiltzea errazteko. Garrantzitsua da ekitaldiaren antolatzaileak eta garraio-operadoreak elkarlanean aritzea ekitaldira garraio publikoan eta kolektiboan joan nahi dutenei horretarako aukera emango dieten zerbitzu egokiak planifikatzeko, eta honela ibilgailu pribatuetan eta jasangarritasun txikiagoko beste modalitate batzuetan joango direnen kopurua murrizteko.

Administrazioa: Tokiko/Udalerriko agintariak, baimenak ematen dituzten agintariak, polizia, gobernu zentrala, eta abar. Agintariekiko harremanak behar bezala kudeatzeak eta ekitaldiaren ingurumen-helburuen berri emateak erakundeari posizionamendu hobea ematen dio, eta eragile horiekiko lankidetzak errazten dute.

Hondakinak kudeatzeko enpresak:

Aire zabaleko ekitaldien kasuan, barrutia garbitzeaz eta hondakinak jasotzeaz arduratzen dira. Hondakinak kudeatzeko eta jasotzeko plan bat diseinatu behar da ekitaldiaren ezaugarrien arabera.

Boluntarioak: Modu altruistan ekitaldia antolatzen eta gauzatzen laguntzen duten pertsonak dira. Haien lana oso garrantzitsua da, ekitaldirako ekintzak eta, beraz, aurreikusitako jasangarritasun-neurriak gauzatzeaz gain, ingurumenaren alorrean sentsibilizatzeko eragile gisa ere parte har baitezakete ekitaldiko bertaratuekin. Funtsezkoa da interes-talde honi aplikatu beharreko jasangarritasun-politiken berri ematea, eta jendea alor horretan trebatzea.


Tokiko komunitatea: Ezinbestekoa da komunitateak ekitaldia antolatzen eta gauzatzen laguntzea, ekitaldi batek zuzenean edo zeharka eragiten baitio. Garrantzitsua da haien eskariak aintzat hartzea eta ekitaldiaren plangintza-fasean adostutako jasangarritasun-neurriak martxan jartzen parte hartzea.

Ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldi baten faseak

Ekitaldien kudeaketa, ekitaldiaren programazio, finantziario, ekoizpen eta komunikazioari buruzko jardueren ziklo batek osatzen du; jarduera horiek ekitaldi baten diseinu eta plangintza-, antolaketa-, gauzatze eta jarraipen-, eta desmuntaketa- eta itxiera prozesu osoan zehar egiten dira.

Ekitaldi batean, ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuak aipatutako jarduera horietako bakoitza hartu behar du kontuan, parte hartzen duten lau faseetan zehar.

Ekitaldi baten ingurumen-inpaktua ebaluatzeko garaian, ikuspegi holistiko batetik begiratzea komeni da, ekitaldi bat egin ahal izateko beharrezkoak diren etapa guzti-guztiak aintzat hartuta. Ikuspegi horretan, ekitaldia egiten denean bertan gertatzen diren inpaktuak ez ezik, lehengaiak lortzean, ekoizpenean, garraioan eta erabiltzen den elementu bakoitzaren bizi-amaieran eragindako inpaktuak ere hartzen dira kontuan.



Ekitaldi baten faseak.

1. fasea. Diseinua eta plangintza

Lehen fase honetan, erakunde antolatzaileak eta jabeak ekitaldiaren helburuak, espero dituzten emaitzak, kronograma eta eskura duten aurrekontua adosten dituzte. Lehenengo fase honetan ingurumen-irizpideak txertatzeko, ekitaldiaren oinarriak zehaztuko dira, aurreko esperientzietako ikaskuntzak berreskuratuko dira, ingurumen-alderdi garrantzitsuenen zirriborroa egingo da, eta lortu beharreko ingurumen-helburu eta -xedeak definituko dira.

Fase honetan zehazten da ekitaldia non egingo den eta zer motatakoa izango den, eta neurri handi batean horrek baldintzatuko ditu ekitaldia egiteko behar diren baliabideak, eta horrek eragin handia izango du ekitaldiaren ingurumen-inpaktuan.

Etapan espero diren emaitzak

Etapa hau bukatzeko, Erronka Garbia eskaera egiteko formularioa bete behar da; formulario horretan, ekitaldiaren irismena zehazten da, alderdi interesdunak (barnekoak eta kanpokoak) identifikatzen dira, eta eginkizun eta erantzukizunak finkatzen dira. Horretaz gain, ekitaldian gertatuko diren ingurumen-alderdi potentzialak identifikatu beharko dira, betiere alde zuzen zehaztutako irismenaren eta mugen barruan, eta horien ebaluazioa ere egin beharko da. Fasea bukatzeko, ingurumen-helburu eta -xede neurgarriak eta koherenteak ezarri behar dira.

Egin beharreko ekintzak

Ekitaldiaren ziurtagiria egiteko

Honako hauek entregatu:



Honako hau lortzeko:



- **Ekitaldiaren definizioa eta irismena**; honako alderdi hauek zehaztuko dira: ekitaldi mota, xede-hartzaileak, hornitzaile motak eta ekitaldiaren mugak denborari dagokionez, hau da, ekitaldiaren faseak edo egunak, eta lokalizazioaren ikuspegitik begiratuta, egoitzen kopurua.
- Burutuko den ekitaldiaren **tipologia eta kokapena zehaztea**, espero den jende kopurua, jendearen jatorria, ekitaldiaren helburuak, beharrezkoak diren espazio eta baliabideak eta abar kontuan izanik hainbat agertokiren aukera aurkeztuta.
- **Zuzendaritzaren konpromisoa** ziurtatu behar da ingurumen aldetik jasagarria den ekitaldia egiteko; izan ere, zuzendaritzaren inplikaziorik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako.
- **Ingurumen-alderdi garrantzitsuenak** identifikatzea, antzeko ekitaldietan, aurreko edizioetan edo bestelakoetan izandako emaitzetan oinarrituta.
- Indarrean dauden eta ekitaldiari aplikatu beharreko **lege-betekizunak** kontuan izango dira, baita antolatzaileek borondatez onartutako beste edozein betekizun ere.
- **Interes-taldeak mapaketa** egitea, eta ekitaldiarekin lotuta dituzten premiak eta espektatibak ezartzea.
- Ekitaldiaren **ingurumen-arloko helburu eta xedeak** zehaztea, betiere neurgarriak eta koherenteak izanik. Besteak beste, interesdunen ingurumen-sentsibilizazioko helburuak bildu beharko dituzte.

Gogoratu



Ekitaldiaren lokalizazioa eta mota zein izango diren erabakitzeak zehaztuko du gehien azken ingurumen-inpaktua. Hainbat tokitatik jende asko iristeak eragiten du, kasu gehienetan, ekitaldiaren inpaktu handiena. Zehaztu aurretik, kontsulta itzazu mugikortasunari buruzko hobekuntza-ekintzak (38. or.) eta balioetsi aukerarik egokiena. Kokapen bat zein bestea hautatzeak (eraikina, eremua edo azpiegitura) produktuen, lehengaien, energiaren eta uraren kontsumoa baldintzatuko du. Zure ekitaldiarentzat kokapen ekoeraginkorrena hautatuz gero, posizionamendu hobea izango duzu ekitaldiaren inpaktu orokorra murrizteko.

2. fasea. Ekitaldiaren antolaketa

Behin ekitaldia diseinatuta, edukiak programatuta eta behar materialak eta finantzarioak identifikatuta, erakundea prest dago finantziazioa negoziatu (babesleak eta finantziazioa bilatzeko), kontratazioak zehaztu eta erosketak planifikatzeko.

Gainera, etapa honetan diseinatzen dira eta martxan jartzen marketin- eta komunikazio-mekanismoak, eragileen arreta eta eskaera erakartzeko.

Etapan espero diren emaitzak

Etapa honen amaieran **hornitzaileak zehaztuta** egon beharko dira erosketa eta kontratazio garrantzitsuenetarako, **kontratu eta akordioak sinatuta**, **marketin- eta komunikazio-estrategia** garatuta eta **mugikortasun- eta hondakin-planak** ere garatuta (dagozkien interes-taldeekin batera sortu beharrekoak dira).

Egin beharreko ekintzak

Ekitaldiaren ziurtapena egiteko

Honako hauek entregatu:



Honako hau lortzeko:



- Aztertutako hornitzaileak hautatzeko betekizunak eta **kontratatzeko klausulak** zehaztuko dira, ekitaldiaren ingurumen-jasangarritasunarekin lotuta.
- Bertaratuen artean banatuko den **materiala eta merchandising-a hautatzea**; plangintzaren fasean finkatutako ingurumen-jasangarritasuneko helburuekin bat etorri beharko dute, eta formatu eta material jasangarrienen alde egin beharko da.
- Parte-hartzaileentzako **ostatuak** ez ezik, eskainiko zaien **catering-a** ere (eskainiko balitz) hautatzea, ingurumen-irizpide jasangarriari jarraikiz.
- Ekitaldiaren hedapen- eta marketin-kanpainan izango den **ingurumen-ikuspegia** diseinatu eta ezarriko da. Mezuak erabakitzeke garaian, ahal den neurrian, erakargarriak eta koherenteak izango dira burutzen ari diren ekintzekiko.
- **Ekitaldiaren jasangarritasun-plana** diseinatu eta egitea; plan horretan sartuko dira ingurumena hobetzeko programak – ekitaldia gauzatzean ezarri beharreko neurri eta guzti–, ekitaldia monitorizatzeko programak –datuak biltzeko beharrezkoak diren baliabide eta metodoak identifikatuta–, dela komunikazioko eta sentsibilizazioko programak –landu beharreko bideak eta mezuak adierazita–.

- **Mugikortasun-plan** egokia ezartzea ekitaldirako, garraio-agintariekin batera.
- **Hondakinak kudeatzeko plana** eta hondakinak jatorrian minimizatzeko plana ezartzea hondakinez arduratzen den agintariarekin, garbiketarako kontratatutako enpresarekin eta abarrekin batera.
- Ekitaldirako **ingurumen-estrategia** zehaztea, eta baita ezarri beharreko hobekuntza-jarduerak ere. Hobekuntza-jarduera guztiak aztertuko dira eta ezarri beharreko jardueren menua finkatuko da (II. eranskina).

Gogoratu



Fase honetan oso garrantzitsua da hornitzaile bakoitzari eta laguntzaile bakoitzari ekitaldiaren ingurumen-ikuspegiaren berri ematea. Ahalik eta atxikimendu gehien lortzea da helburua, betiere antolatzaileek garatutako ekintzak desitxuratu ez daitezen, inplikaturako beste eragile batzuen praxi desegokiaren ondorioz.

3. fasea. Egitea eta jarraipena

Fase honetan, ekitaldiaren ekoizpenarekin eta azken komunikazioarekin lotutako zeregin guztiak sartzen dira; ekitaldiaren plangintza egitetik ekitaldia bera egiterainoko zereginak. Ekitaldi baten hobekuntza-estrategiak aplikatzeko, bi fase daude: plangintza (ekitaldiaren diseinu- eta plangintza-fasean garatzen dena) eta ezarpena (ekitaldia ekoiztean gauzatzen dena). Jasangarritasun hobe bat ziurtatzeko, ezinbestekoa da behar bezala planifikatzea, baina, horrez gain, ziurtatu behar da jarduera horiek behar bezala egiten direla eta hobekuntza-potentzial osoa kapitalizatzen dela. Diseinu- eta plangintza-fasean hondakinen gaikako bilketa ezartzea erabaki bada, ekitaldian ziurtatu beharko da jendeak badakiela non utzi behar dituen hondakinak, ekitaldiaren planteamenduetarekin bat datorrela, edukiontzia eskura dituela, edukiontzia ez daudela beteak eta haietara hondakinak bota daitezkeela...

Gainera, ekitaldian mekanismoak jarri beharko dira ekitaldiaren inpaktua monitorizatu eta kalkulatu ahal izateko datuak biltzeko. Horretarako, beharko den informazioa identifikatu behar da, informazio horren araberrako adierazleak ezarri, informazio hori eskuratu dezaketen pertsonak topatu eta eskaera egin. Metodologia honetan, datu-bilketa egiteko formularioaren adibide bat eskaintzen zaie antolatzaileei, eta formulario hori eragile bakoitzari helarazi beharko zaio, datuak lortze aldera.

Oro har, ekitaldi orok (eta edozein sistemak) sarrera batzuk behar ditu (baliabideak, materialak, erosketak, energia, ura...) eta irteera batzuk eragiten ditu (emisioak, isuriak, hondakinak...). Sarrera eta irteera horiek kuantifikatu egin behar dira adierazle zehatz, neurgarri, errealista eta ekitaldian zehar neur daitezkeenak definituz.

Etapan espero diren emaitzak

Etapa honen helburu nagusia zera da, bermatzea diseinuaren eta plangintzaren fasean eratutako jardueren menua **behar bezala ezartzen dela** eta ekitaldiaren ingurumen-inpaktua kuantifikatzeko **beharrezko datuak biltzen direla**. Horretarako, **komunikazio-estrategia** bat ezarri beharko da, hainbat bide eta baliabideren bitartez eragile guztiengana iristeko (bertaratutakoak, langileak, erakunde laguntzaileak...).

Egin beharreko ekintzak

- Ekitaldiko zerbitzuen hornitzaileek, antolatzaileei, parte-hartzaileek eta bertaratutakoek planifikatu diren hobekuntzako **jarduerak ezartzen** laguntzen dutela bermatzea.
- Ekitaldiaren ingurumen-ebaluazioa egin ahal izateko eta ezarritako hobekuntzen eraginkortasuna ebaluatzeko, **ekitaldiaren monitorizazio-datuak bildu behar dira**. Horretarako, inplikaturako eragile bakoitzarentzat datuak biltzeko berriazko formulario bat prestatu beharko da; eragile horiekin inplikazioko eta prestakuntzako plan bat landuko da ekitaldian ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuari buruz eta haien prozesu horretan duten erantzukizunari buruz.
- Ekitaldiaren ingurumen-politikaren eta ezarritako jarduera bakoitzaren ondorio den **komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina gauzatzea**.
- **Eragiketak kontrolatzea**, ezarritako ekintzen jarraipena eginez eta emaitzak neurtuz.

Gogoratu



Ekintzak ezartzeko fasea funtsezkoa da hobekuntzek ekitaldiaren inpaktuan eragin positiboa dutela bermatzeko. Behar bezala ezartzen direla bermatze aldera, eragile bakoitzak dagozkion erantzukizun eta zereginen berri izan behar du eta bertaratutakoek zuzen jokatzeko tresnak eta baliabideak izan beharko dituzte. Bestalde, datuak biltzeko prozesuan datu horien kalitate gorena bermatu beharko da, ebaluazioan lortutako emaitzak adierazgarriak izan daitezen eta puntu kritikoak identifikatzeko lagungarri izan daitezen, hurrengo edizioetan hobetu ahal izateko.

4. fasea. Desmuntaketa eta amaiera

Behin ekitaldia egindakoan eta datuak bildutakoan, ekitaldiaren ingurumen-ebaluazioa egin dezakegu eta emaitzak jakinarazi esku hartu duten eragileei. Antolatzaileei eta jabeei prozesu honetan laguntzeko, Erronka Garbiak **ingurumen-inpaktuaren kalkulagailua** jarri du haien eskura. Datu batzuk kalkulagailu horretara irauliz gero, ekitaldi baten ingurumen-inpaktu orokorra kalkulatu du. Hiru metodologia hauen arabera ematen ditu inpaktuaren emaitzak: karbono-aztarna, ur-aztarna eskasiagaitik eta ingurumen-aztarna. Gida honetan, prozesu hori guztia nola egin behar den azalduko dugu zehatz-mehatz, baita metodologia batetik bestera zer alde dauden ere.

Behin datuak prozesatutakoan eta inpaktua kalkulatu ondoren, erakundea prest dago ezarri diren hobekuntza-jardueren eraginkortasuna ebaluatzeko, puntu kritikoak ebaluatzeko (inpakturik handiena eragin dutenak) eta hurrengo jardueretarako ikaskuntzak ebaluatzeko. Erronka Garbiaren oinarrian, filosofia hau dago: ikaskuntzen integrazioa sistematizatzen duen etengabeko hobekuntza, ekitaldien inpaktua etengabe murrizteko. Hori horrela, fase honetan, interes-talde guztiei jakinarazi behar zaizkie emaitzak eta ikaskuntzak jasota utzi behar dira, hurrengo esperientzietarako.

Etapan espero diren emaitzak

Etapa honen ondorioz, aurreko fasean lortutako datuak prozesatu ostean, **ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa** izango dugu, eta karbono-aztarna, ur-aztarna eta ingurumen-aztarna zenbatekoak diren jakingo dugu. Emaitza horiek aztertuz gero, ezarritako hobekuntzak eraginkorrak izan ote diren jakin ahal izango dugu, etorkizunean zein puntu kritiko azertu beharko ditugun, eta ikaskuntza multzo bat ere eskuratuko dugu. Informazio hori guztia ondorioak biltzeko dokumentu batean laburbilduko da: **Ekitaldiaren Ingurumen Adierazpenean (EIA)**.

Ekitaldiaren Ingurumen Adierazpena tresna bat da, eta ekitaldian inplikaturik egon diren eragile guztiei emaitzak jakinarazteko balio du. Esparru hori inplikazioa eskertzeko baliatu behar da eta, hartara, alderdi bakoitzak bere ahaleginak eragina izan duela sentituko du eta, esperientzia berriei begira, inplikazioa sendotu egingo du.

Egin beharreko ekintzak

Ekitaldiaren ziurtapena egiteko

Entregatu beharreko dokumentuak:



Honako hau lortzeko:



- **Datuak prozesatzea eta kalkulagailura transferitzea;** horren bitartez, ingurumen-inpaktuen emaitza lortuko dugu jarduera-ardatzaren arabera (Mugikortasuna, Energia, Ura, Erosketak, Azpiegiturak eta Hondakinak).

- Emaitzak aztertzea ezarritako hobekuntza-jarduerak eraginkorrak izan ote diren identifikatzeko eta etorkizuneko esperientzietan landu beharreko **puntu kritikoak identifikatzeko**.

- **Ekitaldiaren Ingurumen Adierazpena (EIA) idaztea;** honako hauek bildu behar ditu: ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuaren laburpena, ezarritako hobekuntza-jardueren aipamena, ikaskuntzen laburpena, lortutako emaitzak (ingurumen-inpaktuaren kuantifikazioa) eta burututako komunikazioko eta sentsibilizazioko ekintzen azterketa.

Gogoratu



Fase honetan, oso garrantzitsua da datuen kalitatea eta koherentzia bermatzea, horietan oinarrituta kalkulatu baina ekitaldiaren ingurumen-inpaktua. Kalkulatu ostean, interes-taldee jakinarazi beharko zaie sinplifikatua, betiere sartutako hobekuntzak eta hobekuntza horiek izan duten eragina nabarmenduz.



Ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldi bat antolatzea

Ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldi bat antolatzea

Erronka Garbia ekimenak ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekitaldiak nola egin aztertzen du **hiru jarduera-esparrutan**; aurrerago aurkeztuko ditugu esparru horiek.


- Ingurumen-hobekuntzako jarduerak.

Kutsadurari aurrea hartzeko, bizi-zikloaren ikuspegitik begiratuta.

- Ekitaldia monitorizatzea ingurumenaren aldetik.

Ekitaldi baten ingurumen-alderdian gardentasuna eta hobekuntza sustatzeko.

- Komunikazioa eta sentsibilizazioa.



Erronka Garbia jarduera-esparruak

Ekitaldia diseinatzeko fasean, ekitaldiaren antolatzaileei eta jabeari dagokie erabakiak hartzea eta, hein handi batean, ekitaldiaren azken inpaktua erabaki horien arabera izango da. Hortaz, jardunbide egokiak fase honetan zehaztu eta ezarri beharko dira, interes-taldeekin batera.

Hobekuntza-jarduerak ezarritakoan, ekitaldia gauzatzen den bitartean monitorizazioa eta datu-bilketa egingo dira eta, horiei esker, a posteriori, ekitaldiaren ingurumen-inpaktua kalkulatu ahal izango da eta horren berri eman ahal izango zaie interes-taldeei, hala nola, babesleei, bertaratutakoei, erakundeei eta abarri.

Ondoko azterketa hori **ikaskuntzak** sendotzeko baliatu behar da, ekitaldiaren hurrengo edizioetarako, eta, hartara **etengabeko hobekuntza** bermatuko da.

Non esku hartu?

Erabaki garrantzitsuenak

Ekitaldiak antolatzea oso konplikatua da, prozesu eta jarduera eragile asko bait dira. Ekitaldia diseinatzeko eta planifikatzeko fasean garatzen diren erabakiak hartzeko prozesuan hainbat elementu nabarmendu daitezke, ekitaldiaren ondoriozko ingurumen- inpaktua bereziki baldintzatuko dutenak. «*Palanka-puntu*» horietan esku hartzeak du hobetzeko potentzialik handiena, ingurumen-alderdi garrantzitsu asko baldintzatzen dituztelako. Hona hemen ekitaldi batean esku hartzeko puntu nagusiak:

Ekitaldi mota

Ekitaldiaren ezaugarriek –nazioarteko ala nazioko ekitaldia den, kanpoan ala barnean egiten den, online ala presentziala den...– nabarmen baldintzatzen dute ekitaldiaren inpaktu orokorra. Erabaki honek bertaratutako eta parte-hartzaileen mugikortasuna baldintzatzen du, erabiliko diren materialen eta azpiegituren mota, eta baita natura-ingurunearen gaineko inpaktuak ere.


Kokapen geografikoak (ekitaldia egingo den herrialdea eta udalerria) baldintzatu egiten du bertaratutakoek eta parte-hartzaileek ekitaldira joateko erabiliko duten garraiobide mota, eta baita egin beharreko batez besteko distantzia ere. Bestalde, ekitaldiaren inpaktua baldintzatzen duten elementuetako asko –energiaren eta uraren kontsumo- araubidea, kasu– ekitaldirako hautatu diren kokalekuaren eta azpiegituraren ezaugarriekin zuzenean loturik daude.

Ekitaldiaren lokalizazioa eta kokapena

Txertatutako jardunbide egokiak

Ekitaldi mota eta kokapena erabaki ostean, ekitaldiaren azken inpaktua txertatzen diren jardunbide egokien araberakoa ez ezik, ekitaldian inplikaturako eragileekin lortzen den inplikazio-mailaren araberakoa ere izango da. Jardunbide egoki horiek ardatz guztietan gauza daitezke: Mugikortasuna, Energia, Ura, Erosketak, Azpiegiturak eta Hondakinak. Gida honen azken zatian bildu ditugun jarduerak ekitaldi batean ezar daitezke, betiere ekitaldiaren inpaktua murrizteko.

Ingurumen-hobekuntza



Jardunbide egokiak

Tipologia

Lokalizazioa

Ekitaldi baten ingurumen-inpaktuan esku hartzeko puntuak.




GARDENTASUNA

Ekitaldi baten ingurumen- monitorizazioa

Ekitaldi baten ingurumen-monitorizazioa

Giza jarduera ororen kasuan bezalaxe, ekitaldi bat egiteko ere baliabideak behar dira: materialak, azpiegitura, energia edo ura. Gainera, ekitaldiaren ondoriozko jarduerak hainbat irteera eragiten dituzte, hala nola hondakinak, airera egindako emisioak, zarata, eta uretara eta lurzorura egindako isuriak. Ekitaldi batean gertatzen diren ingurumen-alderdi horiek inpaktuak eragiten dituzte ingurumenean, eta inpaktu horiek kuantifikatu egin daitezke hainbat metodologiatan oinarrituta eta hainbat tresna erabilita.

Erronka Garbiak proposatutako metodologiaren kasuan, zehazki, tresna nagusia **Ekitaldien Ingurumen Inpaktuaren Kalkulagailua** da. Kalkulagailu horri esker, ekitaldi batean eragindako ingurumen-inpaktua ebaluatu daiteke sarrerei eta irteerei buruzko datuak sisteman sartuz gero.




Ekitaldia antolatzeke faseak eta ingurumen-alderdiak.

Zer da ekitaldi baten Bizi Zikloa?

Ekitaldi baten ingurumen-inpaktua ebaluatzeke garaian, ikuspegi holistiko batetik begiratzea komeni da, ekitaldi bat egin ahal izateke beharrezkoak diren etapa guzti-guztiak aintzat hartuta.

Ikuspegi horretan, ekitaldia egiten denean bertan gertatzen diren inpaktuak ez ezik, lehengaiak lortzean, ekoizpenean, garraioan eta erabiltzen den elementu bakoitzaren bizi-amaieran eragindako inpaktuak ere hartzen dira kontuan.



Ekitaldi batekin lotutako produktuen bizi-zikloak.

Ekitaldi batek zer inpaktu eragiten ditu ingurumenean?

Ekitaldi baten ondoriozko ingurumen-alderdiek (baliabideen kontsumoa, uretara egindako isuriak eta abar) ingurunearekiko interakzioak eragiten dituzte atmosferaren ezaugarrietan, kliman, lurzoruan, uraren kalitatean eta beste hainbat faktoretan eragiten duten askotariko ingurumen-inpaktuen bitartez. Errazago ulertu eta jakinarazi ahal izateko eta erabakiak emaitzetan oinarrituta hartu ahal izateko, ekitaldiaren azken ingurumen-inpaktuak hiru emaitzaren arabera aurkez daitezke:

Karbono-aztarna



CO₂

Pertsona batek, antolakuntzak, ekitaldiak edo produktuak bere bizi-zikloan zuzenean edo zeharka sortutako CO₂ eta berotegi-efektuko beste gas batzuen (BEG) emisioaren zenbateko osoa deskribatzen du. Karbono-aztarna CO₂ baliokidearen unitatetan neurtzen da.

Ur-aztarna eskasiagatik



H₂O




Pertsona batek, antolakuntzak, ekitaldiak edo produktuak bere bizi-zikloan zuzenean edo zeharka ura erabiltzeagatik sortutako estres hidrikoaren adierazle orokor bat ematen du. Ur-aztarna ur baliokidearen unitatetan neurtzen da.

Ingurumen-aztarna



Produktu baten bizian sortutako edo erakunde baten funtzionamenduari egotz dakizkiokeen ingurumen-inpaktu nagusiak aztertzen eta haztatzen ditu. Ingurumen-aztarna inpaktu-puntuetan neurtzen da; eta hori lortzeko, ingurumen-inpaktu guztiak normalizatu eta haztatu behar dira. Ingurumen-aztarnaren datu orokorrak ingurumen-inpaktuaren 17 kategoria hauetan bereiz daitezke:


- Klima-aldaketa
- Ozono-geruza murriztea
- Ingurunea azidotzea
- Ur gezaren eutrofizazioa
- Gizakien toxikotasuna
- Oxidatzaile fotokimikoak sortzea
- Partikulak sortzea
- Lurraren ekotoxikotasuna
- Ur gezaren ekotoxikotasuna
- Itsas ingurunearen eutrofizazioa
- Erradiazio ionizatzailea
- Nekazaritza-lurren okupazioa
- Hiri-lurzoruaren okupazioa
- Lursailaren eraldaketa
- Erregaia agortzea
- Baliabide minerala agortzea



Ekitaldi baten ingurumen-inpaktuaren emaitzen lagina.

Zein da nire ekitaldiaren inpaktua kalkulatzeko prozesua?

Ekitaldi bat antolatzeko fasea amaitutakoan, programazioa, prozesu-mapa eta egingo diren erosketa eta kontratazio guztiak zehaztuta geratu beharko dira. Plangintza horretan oinarrituta, Ekitaldiaren ingurumen-monitorizazioko programa idatziko da; dokumentu horretan, ekitaldiaren ingurumen-inpaktua gerora kalkulatzeko beharrezkoa den **informazioaren errekerimenduak** bilduko dira.



Informazio hori ekitaldi bakoitzerako berariazkoa izango da (ekitaldiaren tipologiaren eta ezaugarrien arabera), Erronka Garbia metodologian sartzen diren sei jardura-ardatzak bildu beharko ditu eta *Datuak biltzeko formularioa (III. eranskina)* izeneko dokumentu batean laburtu beharko da. Dokumentu horretan bildu beharreko alderdiak: lortu behar den informazioa, informazio hori lortzeko prozesuaren deskribapena, datu horiek lortzeko moduari buruzko gomendioak, inplikaturako pertsonen eta erantzukizunen esleipena, eta informazioa itzultzeko bideak. Formulario horretan, funtsean, Ekitaldiaren ingurumen-monitorizazioko programaren edukiak –Erronka Garbia ziurtagiria lortzeko prozesuan eskatzen direnak– biltzen dira.

Antolatzaileek erreferentziatzat har dezakete eta euren premien arabera egokitu. Dokumentu hori prestatu eta informazioa lortu behar duten eragileak zeintzuk diren identifikatu ostean, informazio-bilketa eragile bakoitzaren esku utzi beharko du. Prozesu horretan agian prestakuntza eman beharko zaie pertsona horiei, informazio-bilketa egokia izan dadin.

Ekitaldia burutu ondoren (3. fasea), informazioa biltzeaz arduratu direnek antolatzaileei helarazi beharko dizkiete datuak, aldeztu aurretik zehaztutako bideak baliatuta. Datu horiekin, antolatzaileek landu eta balioztatu ditzakete, jasotako datuak zuzenak direla ziurtatuta; hartara, *Ekitaldien Ingurumen Inpaktuaren Kalkulagailua* bete

ahal izango da. Kalkulagailu horretan aurrez zehaztutako hainbat eremu daude, eta antolatzaileei dagokie erabakitzea zein eremu den garrantzitsua eta zein ez. Prozesu bakoitzaren berariazko gomendioetan oinarrituta eremuak bete ostean, kalkulagailuak automatikoki egiten ditu kalkuluak ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren emaitzak ateratzeko.

Zer egin lortutako ingurumen-emaitzekin?

Ekitaldiaren inbentarioko datuen prozesamenduaren ondorioz, ekitaldi horren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa aterako da. Emaitza hori kalkulatzeko, bertaratutako lagun eta egun bakoitzeko inpaktu orokorra hartzen da aintzat, karbonoaren, uraren eskasia eta ingurumenaren aztarnetan oinarrituta. Emaitza hori lortutakoan:

Puntu kritikoak zeintzuk diren eta egindako hobekuntzen inpaktua zein izan den jakitea

Antolatzaileek inpaktu handiena duten ekitaldiko alderdien azterketa lortuko dute eta egindako hobekuntzen inpaktua ebaluatu ahal izango dute, kalkulagailuaren bitartez **hainbat agertoki simulatuz** eta estrategia garrantzitsuenak zehaztuz.

Antolatzaileek, hortaz, hainbat estrategia ezarriz gero lortuko zatekeen ingurumen-inpaktuaren murrizketa simulatu ahal izango dute eta ikaskuntza horiek hurrengo edizioetarako kontuan hartu ahal izango dituzte, **etengabeko hobekuntzaren prozesu** baten barruan.

Hurrengo ekitaldietarako ikaskuntzak ezartzea

Emaitzak aztertzean lortutako ondorioak formalizatu egin behar dira, hurrengo ekitaldietan ezarriko direla bermatzeko. Azterketa horretan sartuko dira inpaktu handiena izan duten jarduketak, ebatzi gabeko puntu kritikoak aztertuko dira, jardun-arlo berriak, hobetzeko ideiak eta abar.


Ingurumen-emaitzak interes-taldeei jakinaraztea

Interes-taldeen ahaleginak jakinarazi eta saritzeko asmoz, antolatzaileek ekitaldian ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuaren ondorioak biltzen dituen dokumentu publiko bat presta dezakete. Dokumentu horri **Ekitaldiren Ingurumen Adierazpena (EIA)** esaten zaio eta, bertan, burututako jarduketaren historia, emaitzen azterketa eta hurrengo ekitaldietarako formalizatu beharreko ikaskuntzak bilduko dira.




SENTSIBILIZAZIOA

Komunikazioa eta sentsibilizazioa



Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldietan ingurumen-irizpideak txertatzeko gida honetan proposatutako metodologian oinarrituta, argi dago interes-talde guztiak oso garrantzitsuak direla ingurumen-erantzukizua hoberenak ziurtatzeko. Ezinbestekoa da hornitzaileak, ekitaldiaren jabeak, babesleak eta parte-hartzaileak antolatzaileekin bat etortzea ekitaldiaren ingurumen-inpaktua murrizteko helburuan. Bat-etortze hori bermatzearren, komunikazioa da tresna garrantzitsuenetako bat. Ingurumen aldetik jasagarria den ekitaldi baten garapenerako etapa bakoitzean aintzat hartu behar dira inplikaturako eragile guztiak eta haiekin elkarrengaitzeko moduak. Komunikazioko premia horiek guztiak **Komunikazio- eta sentsibilizazio-programa** batean formalizatzea komeni da, Diseinua eta plangintzaren etapan eta Antolaketaren etapan. Programa horren bitartez, antolatzaileek interes-talderi helarazten dizkien ingurumen-mezuaren arteko kohesioa bermatu behar da, baita mezua horiek denboran nola programatu ere (ekitaldia baino lehen, ekitaldian bertan edo ekitaldia amaitu ondoren).



Ekitaldi batean egindako komunikazioaren adibidea.

Komunikazioaren eta sentsibilizazioaren helburuak

Administrazioa

Erakunde publikoekin komunikatzea biziki garrantzitsua da ingurumen aldetik jasagarria den ekitaldia behar bezala garatuko dela bermatzeko. Ekitaldiaren posizionamendua eta estrategia helaraztea izango da helburua, betiere babesa lortzearren. Babes horiek askotarikoak izan daitezke: babesleak lortzea, espazioak lagatzea, garraio publikoaren kudeaketan laguntzea, hondakinak kudeatzea... Erakunde publikoak, beraz, funtsezko eragile laguntzaile bihurtzen dira, eta haien inplikazioa lortu behar da. Prozesu hori arintzearren, ekitaldiak sortu nahi duen ingurumen-balioa eragile horiei transmititzea interesgarria izaten da. Ihebek sustaturiko Erronka Garbia esparruak laguntza ematen du, bai tresnen aldetik, bai metodologiaren

aldetik, eta erakundeen konfiantza bermatzeko lagungarri izaten da, eredu garden eta sistematiko baten bitartez. Hasierako faseetan zehazten dira bai Mugikortasun Plana, bai Hondakinen Plana. Bi gertakari horietan erakundeen eginkizuna funtsezkoa izaten da. Hortaz, hasierako etapetan inplikatzeko lortu behar da, haien atzeraelikadurarekin eta laguntzarekin kontaktuta.

Ekitaldia amaitutakoan, **Ekitaldiaren Ingurumen Adierazpena (EIA)** idazteko garaian, garrantzitsua izango da erakundeek ekitaldiaren inpaktua murrizteko izan duten eragina eta egin duten ahalegina nabarmentzea eta esker onez horren berri ematea.

Babesleak

Edozein ekitalditan, funtsezko gertakarietako bat zera izaten da, diseinatu den programa gauzatu ahal izateko finantza-baliabideak bilatzea. Babesletza izan daiteke formula bat. Eredue horretan, babesleak diru-partida bat ematen die antolatzaileei eta, trukean, bere marka ikusgai egoten da. Baliabideak erakartzeko pizgarri garrantzitsuenetako bat izaten da ekitaldiaren balioak markarekin parekatzen direla; beraz, antolatzaileek babesleentzat erakargarria izango den balio-proposamena bermatu beharko dute. Ingurumenaren aldetik jasagarriak diren ekitaldiek balio bereizgarri nabarmena dute alde horretatik. Erakundeek positiboki baloratzen dute bat egitea herritarrak inplikaturik dauden kausekin, gizarte-arloko eta/edo ingurumen-arloko balioa sortzen duten kausekin.

Horrela bada, ingurumen balioak, argudio nagusietako bat izan beharko du balizko babesleei aurkeztu beharreko balio-proposamenean eta komunikazio-estrategian. Erronka Garbiak tresnak eskaintzen ditu, hala nola [Ingurumen Inpaktuaren Kalkulagailua](#) edo [Adierazleen checklist-a](#); tresna horiek argudioen oinarri izan daitezke, balizko babesleei konfiantza emate aldera. Ekitaldian bertan, eta babesletza-kontratuan erabakitakoari jarraikiz, erakunde babeslearen marka behin eta berriz agertuko da eta, konturatu ere egin gabe, bertaratutakoek han bizi izandako esperientzia markaren pertzepzioari atxikiko diote. Horrexegatik da hain garrantzitsua ekitaldian bertan oso zorrotza izatea, esperientzia ahuldu dezakeen kontraesanik izan ez dadin.

Hornitzaileak

Ekitaldi batean potentzialki aplika daitezkeen hobekuntza-jarduera askotan hirugarrenen parte-hartzea ezinbestekoa izaten da, hala nola hornitzaileena. Ingurumen-estrategia ezartzeko garaian, antolatzaileek hornitzaileekin negoziatzeko ezarriko dituen baldintzak zehaztu beharko dituzte. Hornitzaileek bete beharreko ingurumen-irizpideak elkarrekin zehaztu beharko dituzte, jasagarritasunaren eta egingarritasunaren arteko konpromisoa lortzearren. Enpresa hornitzaileek ekitaldiaren estrategia beren gain hartu beharko dute eta zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte.

Bestalde, ekitaldiaren monitorizazioa egiteko eta ekitaldiaren ingurumen-ezaugarriak zeintzuk diren jakinarazteko, datuak beharko dira; datu horiek hornitzaileek eman behar dituzte. Informazio hori eman ahal izateko, Erronka Garbiak formulario bat eskaintzen die antolatzaileei: [Datuak biltzeko formularioa](#) (III. eranskina).

Bertaratutakoak eta parte-hartzaileak

Ekitaldi batera joaten direnek eta/edo ekitaldi bateko jardueretan parte hartzen dutenek ere eragin oso handia izaten dute ekitaldiaren azken ingurumen-jardueran. Ezarri diren ingurumen-hobekuntzako jarduerak alferrikakoak izan daitezke baldin eta bertaratutakoek eta parte-hartzaileek ez badute planifikatutako moduan jokutzen. Bertaratutakoen eta parte-hartzaileen portaeran eragina izateko, lehen-lehenik, zein aukera dituzten jakin behar dute eta aukera onena baliatzera eramango dituzten argudioak eskaini behar zaizkie. Hortaz, bertaratutakoek eta parte-hartzaileek erabakiak hartu behar dituzten toki eta une guztietan komunikazioa argia izatea oso

garrantzitsua da. Bigarrenik, informazioa jaso ostean, bertaratutakoek ekintza hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak izan behar dituzte eskura. Horretarako, bertaratutakoei eta parte-hartzaileei jokabide egokia izaten lagunduko dieten baliabideak eskaini behar dizkiete antolatzaileek. Maila horretako estrategia oso garrantzitsua da jokabide onenak lehenetsita ezartzea (adibidez, aukeren artean jasangarrienak baino ez ematea).

Hirugarrenik, antolatzaileek pizgarriak txertatzeko aukera azter dezakete, jokabide horiek behingoz finkatzeko. Pizgarri (eta «despizgarri») mota asko daude: bertaratutakoen eta parte-hartzaileen garapen pertsonala eta auto-pertzepzioa indartzera bideratzen direnak (esate baterako, kausa nagusi baten aldeko – klima-aldaketa, kasu– ekintzetan egindako ekarpenei errefortzu positiboa ematea)

edo jarrera egokiak saritzen dituzten pizgarri praktikoak edo ekonomikoak. Pertsonengan portaera jasangarriagoak txertatzera bideratutako jarduketak horiek guztiak komunikazioarekin lotuta daude. Bertaratutakoak uneoro konturatu behar du erabaki bakoitzaren atzean dauden arrazoi eta argudioak zeintzuk diren.

Ekitaldi asko eta asko aisialdiarekin loturik daude. Horregatik, esparru ezin hobea dira pertsonen eguneroko bizitzako jokabideetan eragiteko. Prisma positibo eta ludiko batetik aurkeztuz gero, euren bizi-ohiturak zalantzan jartzeko prestutasun handiagoa izaten dute. Antolatzaileek baliatu egin behar dute aldaketa-eragile izateko duten aukera hori, eta ekitaldiaren eremutik haratago doazen portaera jasangarriagoak sustatzeko ahalegina egin behar dute.

Komunikaziorako tresnak

Interes-taldeekiko komunikazioa ahalbidetzeko, hainbat tresna osagarri eskaintzen dira lhoberen web-orrian:



Ekitaldiaren Ingurumen Adierazpena (EIA) dokumentuaren eredu bat. Tresna horren bitartez, ingurumen-irizpideak txertatzeko zer prozesu egin den jakinaraz dakieke interes-talde guztiei eta bereziki nabarmendu daitezke bai egindako hobekuntza, bai ekitaldiaren monitorizazioaren emaitzak (karbonoaren, uraren eta ingurumenaren aztarnetan oinarrituta), bai hurrengo ekitaldietarako ondorio eta ikaskuntzak. EIA dokumentuen bitartez, prozesuaren ondorioak laburbiltzen dira, eragile guztiekiko komunikazioa ahalbidetzen da, inplikaturako erakundeen irudia indartzen da eta egindako ahalegina aintzatesten da.



Ekitaldietan **datuak biltzeko** eredu. Ekitaldiaren inpaktua kalkulatzeko beharrezkoa den informazio guztia trazatu eta baliozkotzen dela bermatzeko helburuarekin. Gainera, dokumentu horren bitartez, datu-bilketaren arduradun bakoitzaren konpromisoa formaliza daiteke, besteak beste, ekitaldiko hornitzaileena.



Ezarritako jarduketaren menua. Checklist horri esker, ekitaldian, Erronka Garbiaren jarduera-ardatz bakoitzean txertatu diren hobekuntza guztiak erraz bistaratzen dira.



KONPROMISOA

Ingurumen- hobekuntzako jarduerak

Ingurumen-hobekuntzako jarduerak

Jarraian, askotariko jardueretan aplikatu daitezkeen hobekuntza-jarduerak aurkeztuko ditugu. Jardueren bilduma hori osatu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan 2014. eta 2015. urteetan egin diren hainbat ekitalditan pilotu bat aplikatzearen ondorioz ateratako ikaskuntzak baliatu ditugu. Hobekuntza-jarduerak Erronka Garbiaren sei jarduera-ardatzetan banatzen dira:

Mugikortasuna



Ekitaldia izango den lekuraino hara doazenen multzo jendetsua eramatea da berotegi-efektuko gasen emisio-foku nagusietakoa, eta, horren ondorioz, ingurumen-inpaktu handia eragiten du. Atal honetan sartzen da, halaber, ekitaldia egiteko beharrezkoak diren erosketa eta azpiegiturekin lotutako garraioa.

Energia



Ekitaldiaren energia-kontsumoak (argiztapena, klimatizazioa, soinua eta abar) eragina du ingurumenean, eta eragin hori ekoizpenaren eta kontsumoaren araberakoa da.

Ura



Ekitaldiaren irismeneko fase guztietan ekitaldiko ur-eskaria murrizteko aplikatutako neurriak hartzen ditu eraginpean; esaterako: makinaren kontsumoak, komunak, bertaratutakoaren kontsumoa eta garbiketa. Halaber, ekitaldia baino lehen (muntaketa-lanetan), ekitaldian bertan eta ekitaldiaren ondoren (desmuntaketa-lanetan eta garbiketetan) sortutako hondakin-uren kudeaketa eta tratamendua ere barne hartzen ditu. Azken fase hori oso garrantzitsua da kontsumoen eta hondakin-urak sortzearen ikuspegitik begiratuta.

Erosketak



Ekitaldia egiteko erosten diren produktuei eta kontratatzen diren zerbitzuei lotuta dago atal hau: papera eta elikagaiak, inprimatze-zerbitzuak eta -artikuluak, janari eta edariak, catering- eta jatetxe-zerbitzuak, merchandising-a, garbiketako produktu eta zerbitzuak, segurtasuna, ostatuak...

Azpiegiturak



Ekitaldia egiteko erosi diren ekipamendu eta azpiegitura guztiak sartzen dira, bai aldi baterako erabiltzekoak, bai iraunkorrak: egiturak, ekipo elektrogenoak, aparatu elektrikoak, altzariak, dekorazioa, argiztapena, soinua, seinaleak eta kartelak, itxitura eta balizajea, komunak...

Hondakinak



Ekitaldiaren tipologiak eta bertaratutakoen kopuruak ere baldintzatzen du ekitaldi batean sortzen den hondakin-bolumena. Ekitaldiaren faseetan sortutako hondakin-bolumenaren inpaktua aldatu egiten da sortutako hondakin-kantitatearen eta haren ondorengo kudeaketaren arabera.

Jarraian, Erronka Garbia eskuliburuan ekitaldiak egitearekin lotutako inpaktu negatiboak murrizteko proposatutako neurriak banan-banan deskribatuko ditugu, zehatz-mehatz. Jarduera bakoitzak informazio estandarizatua du eta honako datu hauek biltzen ditu:

- Neurriaren deskribapena
- Jarduera ezartzeko, fase bakoitzean egin beharreko zereginen laburpena.
- Ingurumen-inpaktu potentzialen eta inpaktu ekonomikoen (positiboak eta negatiboak) zerrenda.
- Jarduera ezartzeko prozesu osoan komunikazioa nola landu jakiteko hainbat orientabide.
- Jardueraren inpaktua monitorizatzeko adierazleen proposamena.
- Zehaztutako adierazleen jarraipena eta monitorizazioa ahalbidetzeko gomendioak.

Gida honen II. eranskinean zerrendatutako jarduerari esker, antolatzaileek balioetsi eta/edo ezarri beharreko jarduera guztien plangintza egin dezakete.



Mugikortasuna



Deskribapena

Atmosferara CO₂ isurtzea da ingurumen-inpaktu handiena eragiten duen faktorea, mugikortasunari dagokionez. Ez dugu ahaztu behar beste gas batzuk ere isurtzen direla, zarata, tokiko trafikoa itotzen dela eta sarbidek eta inguruko guneak okupatzen direla. Garraioaren plangintza egokia egitea funtsezkoa da bertaritzen direnek aukera izan dezaten ahalik eta modu jasangarrienean joateko ekitaldira, ahalik eta ibilgailu partikular gutxien erabilita. Horretarako, garraioa ongi aztertu eta planifikatu behar da. Ekitaldiari dagokion mugikortasun-plana egiteko garaian, eragin handieneko alderdi hauek aintzat hartu behar dira: ekitaldiaren kokapena, zenbat jende joango den aurreikustea eta nongo jendea etorriko den.

Eragina duten faktore horiek aztertu ondoren, ekitaldia egin behar den tokiak eskaintzen dituen garraio publikoko zerbitzuak aztertuko dira eta, behar izanez gero, garraio publikoko operadoreekin elkarreraginean jardungo da zerbitzu gehigarriak ezartzeko edo, bestela, bertaratu nahi dutenei garraio publikoaren sareetatik at geratzen diren udalerrri jakin batzuetatik garraio bide pribatu kolektiboak eskaintzeko aukera aztertuko.

Ekitaldira joateko zer garraio bide dituzten aukeran

jakinarazi behar zaie bertaratu nahi dutenei, eta aukerarik jasangarriena zein den ere bai, abiapuntuarekiko distantziaren arabera. Mugikortasuna planifikatzeko, goian aipatu ditugun faktoreak kontuan hartzeaz gain, bertaraturakoen jatorriari edo abiapuntuari ere bereziki erreparatu behar zaio, eta ekitaldira joateko zenbat desplazamendu eta zer desplazamendu mota (hiri barnekoa ala hiriartekoa) izango diren zehaztu behar da.

Beraz, lehen adierazitakoan oinarrituta, desplazamendu motak identifikatzea garrantzitsua da ekitaldi baten mugikortasuna aztertzeko. Jatorri edo abiapuntuaren eta ekitaldiaren kokalekuaren arteko distantziak baldintzatu egiten du ekitaldira joateko erabili beharreko garraio bide mota, egin daitezkeen konbinazio posibleak eta beharrezkoak diren desplazamenduen kopurua. Faktore horiek oso garrantzitsuak dira mugikortasunarekin lotutako inpaktua kuantifikatzeko; beraz, irismenean bildu beharreko gaiak dira.

Atal honen barruan, ekitaldi batera joaten diren pertsonen garraioa aztertzeaz gain, salgaien garraioa ere aztertu beharko da, hau da, erosketekin, azpiegiturekin... lotutako garraioa, ekitaldia egiteko ezinbesteko elementuak diren aldetik.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Garraio publikoaren sarean ongi xertatutako guneak hautatzea.
- Ekitaldiaren berezko premiekin bat datorren mugikortasun-plana ezartzea.
- Bertaratupei mugikortasun-aukeren berri ematea.
- Garraio publikoko eta pribatuko operadoreekin elkarreraginean jardutea gerora informazioa transmititzeko.



Ekitaldian bertan

- Garraio bide kolektiboak (publiko eta pribatuak) sustatzea eta zerbitzu horien estaldurari buruzko informazioa ematea bertaraturakoei.
- Egindako plangintzak ekitaldiko bertaratu edo parte-hartzaileen mugikortasun-premia guztiak betetzen dituela egiaztatzea. Eta ekitaldirako sarbidea egokia, ordenatua dela, kolapsorik eta masifikaziorik gabe.



Ondoren

- Ezarritako mugikortasun-planarekin bertaraturen premiak bete ote diren egiaztatzea.
- Garraio bide kolektibo publiko eta pribatuei bertaraturen datuak eskatzea, erabilitako garraio bide motaren arabera, guztizkoak kalkulatzeko.
- Ekitaldian zehar sortu diren gorabehera aipagarri guztiak biltzea, egoera horiek landu ahal izateko eta etorkizuneko edizioetan –halakorik balego– horrelakorik ez gertatzeko, ahal den heinean.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murriztea ibilgailu partikular gutxiago erabili direlako ekitaldira joateko; hartara, ekitaldia egingo den tokira iristeko kolapsoak sortzeko aukera ere txikiagoa da.



Ahaleginak aurreikusiz gero, azken orduko ezustekoekin lotutako kostu ekonomikoak aurrez daitezke.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Oso garrantzitsua da, ekitaldia baino lehen eta ekitaldian bertan, bertaratuko direnei ekitaldira joateko garraio publikoko aukeren berri ematea, eta jatorriaren arabera garraiobide jasangarriena zein den ere adierazi behar zaie, iristeko eta abiatzeko ordutegia zein den, edo aparkalekuak non izango dituzten.

Garraio publikoko edo pribatuko operadoreekin komunikatzea eta elkarreragitea funtsezkoa da kolapsorik ez sortzeko eta ekitaldira bertaratuko direnen garraio-premiak bete ahal izateko. Garraio publikoko eta garraio pribatuko operadoreen ahaleginak eta inplikazioa eskertzea komeni da; halaber, ibilgailuetan ahalik eta bidaiari gehien sartzeari ere komeni da, eta neurri hauek ezartzeak ingurumenari zer nolako onurak dakartzkion jakinarazi beharko litzateke. Neurri hauek hartzeak bertaratutakoak sentsibilizatzeko balioko du, ekitaldiaren egunean bertan eta eguneroko bizitzan horrelako jardunbideak susta ditzaten.

Adierazleak

Km Garraiobide bakoitzeko egindako distantzia

% Garraiobide mota bakoitza erabili duten bertaratuen kopurua

t Mugikortasunaren ondorioz egindako CO₂ emisioak, bertaratu bakoitzeko

Monitorizatzeko gomendioak

Garraioa monitorizatzeko garaian, hainbat tresna erabil daitezke. Datuak biltzeko formularioan (III. eranskina), ekitaldi batera joaten direnen jatorriari eta erabilitako garraiobideei buruzko datuak bil daitezke.



Deskribapena

Ekitaldirako joan-etorria eraginkorragoa izan dadin, garraio publikoaren erabilera sustatzea komeni da, ibilgailu pribatu partikularren desplazamendu masiboa saihestearren. Ekitaldia egingo den tokira garraiobide publikoan iristeko moduari buruzko informazioa emango zaie bertaratutakoei, baita hortik beste toki batzuetara nola mugitu ere. Garraio publikoa sustatzeko neurrien artean, honako hauek ezar daitezke, besteak beste:

- Garraio publikoaren sarean ongi komunikatutako kokalekua hautatzea, eta ekitaldia izango den tokitik gertuen dauden geltokien eta garraiobide publikoen berri ematea.
- Ekitaldian sartzeko eta garraiobide publikoa erabiltzeko txartel konbinatuak ezartzea.

- Trenaren, autobusaren, tranbiaren eta metroaren geltokiak seinaleztatzea, baita erabil daitezkeen zerbitzuen ordutegiak eta maiztasunak ere.

- Garraio publikoaren zerbitzu bereziak ezartzea garraio publikoko operadoreekin elkarlanean. Horri esker, ekitaldia egingo den tokian garraio publikoaren eskaintza hobetzeko eta areagotzeko aukera egon daiteke. Dena den, garraio-sistema publikoek eskain dezaketen zerbitzuaren gehieneko edukiera kontuan izan behar da; izan ere, edukiera hori gaindituz gero, garraio publikorako sarbideetan pilaketak sortuko dira eta ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloetako abantailak desagertu egingo dira.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Beharrezko zerbitzuak bertaratutakoen aurreikuspenean oinarrituta antolatzea eta errefortzuko zerbitzuak ezartzea behar izanez gero.
- Garraio publikoko operadoreekin harremanetan egotea eta haien inplikazioa bilatzea.
- Garraio publikoan iristeko aukerei buruzko informazioa ematea, ordutegiak eta prezioak ere zehaztuta.
- Garraio publikoko operadore guztiekin koordinatzea, mugikortasunarekin lotutako monitorizazioko datu edo adierazleak haiekin batera ezartzeko, betiere ahalik eta errealistena izanik.



Ekitaldian bertan

- Hartutako neurriak ikusgai egitea, seinaleak erabilia.
- Bertaratutakoei ordutegien eta ibilbideen berri ematea. Oso garrantzitsua da bertaratutakoei edo parte-hartzaileei etengabe informazioa ematea gerta daitezkeen gorabehera edo aldaketei buruz. Horretarako, ekitaldiak irauten duen bitartean garraio publikoko operadoreekin komunikazioan egon behar da, planifikatutako zerbitzuak nola gauzatzen ari diren jakiteko.



Ondoren

- Garraio publikoko operadoreei bertaratuen datuak eskatzea, garraiobide motaren arabera, guttizkoak kalkulatzeko.
- Mugikortasunarekin lotutako emaitzak garraio publikoko operadore guztiei edo eremu horretan lan egin duten eragileei jakinaraztea, egindako lanarengatik esker ona adierazteko eta emaitzetan partaide ere izan direla sentiarazteko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira.



Kutsadura akustikoa murrizten da.



Erregai fosilen erabilera murrizten da.



Kostuak garestitzea antolatzaileek lantzadera edo anezka beren kabuz jarri behar izanez gero.



Garraio publikoko operadorearekin lankidetzan jarduteak garraioarekin lotutako gastuen murrizketa eragin dezake.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia baino lehen komunikazio bat egitea komeni da, webgunearen bitartez, telebistaren bitartez, prentsan iragarkiak jarrita... bertaratutakoei jakinarazteko zer aukera dituzten ekitaldira garraibide publikoak erabiliz iristeko. Zerbitzuen ordutegiaren berri eman behar zaie, zenbateko maiztasunarekin eta zer preziotan dauden, jendeari garraio publikoari buruzko informazio guztia emateko. Bestalde, antolatzaileak garraio publikoko operadoreekin komunikatzea ere ezinbestekoa da, lortutako emaitzen azken ebaluazioa egiteko.

Bertaratutakoak inplikaturako direla ziurtatzeko eta, testuingurua baliatuta, garraioaren inpaktuen gainean eta eguneroko bizitzan har ditzaketen aukera onenen gainean sentsibilizatzeko, ekitaldian bertan hainbat esku-hartze eta pizgarri ezar daitezke. Hona hemen pizgarrien hainbat aukera: garraio publikoan iristen denari lehentasuna ematea sartzean, garraioa eta sarrera uztartuko dituzten txartel konbinatuak, barretara lehentasunezko sarbidea izatea eta abar.

Adierazleak



Ekitaldira garraio publikoa erabilia iristen diren bertaratuek

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko, ekitaldira garraio publiko erabilia zenbat pertsona bertaratu diren jakin beharko da, eta garraio publikoko operadoreek errefortzuko zenbat zerbitzu ezarri dituzten. Horretarako, garraio publikoko operadore guztiekin elkarreragitea ezinbestekoa da.



Deskribapena

Garraio kolektibo pribatua (autobusa) sustatu edo eskainiz gero, ekitaldira ibilgailu gutxiago joango dira eta, hortaz, ekitaldira doazenen mugikortasunarekin eta garraioarekin lotutako kutsadura ere txikiagoa izango da, kutsadura atmosferikoari eta akustikoari dagokienez.

Garraio kolektibo pribatuko zerbitzuak ezarri edo kontratatzeke, hainbat aukera daude edo azter daitezke:

- **Bertaratzen diren** kolektiboek (GKEek, elkarteek, ikastetxeek, koadrilek eta abar) garraio kolektibo pribatuak antola ditzaten sustatzea.
- **Antolatzaileek berek** garraio kolektiboko zerbitzuak ezartzea garraio publikoaren saretik kanpo geratzen diren udalerrri jakin batzuetatik. Garraio kolektibo pribatuko operadoreekin esparru-kontratu bat modu kolektiboan negoziatuz gero, garraioaren kostuak murriztu daitezke. Gainera, operadore hori ekitaldiko

operadore pribatu ofizial (sponsor) izenda daiteke eta, hartara, zerbitzu horiek kontratatzeagatiko kostuak murrizten dira.

Garraibide horren erabilera sustatzea garrantzitsua da, ingurumen-abantailak eskaintzen dituelako, eta ekitaldira iristeko aukera hori jendeari eskaintzen diotenean egindako ahaleginaz gain, garraibide hori erabilia iristen diren pertsonen egindakoa ere eskertu behar da.

Zerbitzu hori bereziki garrantzitsua da hiriarteko ibilbideak egiteko bertaratuei komeni zaien egun eta orduetan, bertaratutakoen edo parte-hartzaileen masa kritikoa duten udalerrien artean eta/edo garraio-nodoetatik; horrenbestez, antolatzaileek urrats bat aurrera egin dezakete neurri honekin, eta neurria sustatzeaz gain, zerbitzua modu aktiboan eskaini dezake ere.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Garraioaren premiak dimentsionatzea eskura dagoen informazioan oinarrituta, hala nola izen-emateetan edo aurreko edizioetako datuetan.
- Garraio kolektiboko zerbitzua (ordutegiak, maiztasunak eta abar) garraio kolektibo pribatuko enprekin koordinatzea eta baldintzak negoziatzea.
- Webgunean eta komunikabideetan jakinaraztea ekitaldira autobus pribatuan etortzeko aukera dagoela, eta zerbitzua modu aktiboan sustatzea.
- Ekitaldiaren kokagunetik gertu bidaiariak deskargatzeko guneak aurreikustea, eta garraibide mota horretarako aparkaleku bereziak prestatzea edo izatea.



- Garraibide kolektibo pribatuetan iristen direnentzako pizgarriak edo sustapen-mekanismoak ezartzea. Pizgarri horiek izan daitezke sartzeko garaian abantaila izatea, prezio merkeagoak eta abar.
- Garraio mota horrekin sor daitezkeen gorabeherak kudeatzea.



- Garraio kolektiboko ibilgailuentzat prestatu diren aparkalekuak –prestatu badira– lehen zeuden bezala uztea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Garraio kolektiboa, oro har, garraio individuala baino eraginkorragoa da eta kutsadura atmosferiko txikiagoa eragiten du.



Garraio kolektibo pribatua merkeagoa da ibilgailu pribatuak erabiltzea baino, betiere okupazio-maila handia bermatuz gero.



Ibilgailu kolektibo batek zarata gutxiago egiten du automobilen kopuru baliokideak baino.



Aparkaleku gutxiago behar dira eta ez da trafiko-kolapsorik sortzen.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldira joan nahi dutenei garraio bide pribatu kolektiboa erabiltzea joateko zer aukera dituzten jakinarazi behar zaie baliabide guztiak baliatuta (Webgunea, seinaleak, aplikazio mugikorak eta abar), abiapuntuak, ordutegiak eta prezioak zehaztuta. Ekitaldiak irauten duen bitartean mezuak igor daitezke garraio bide kolektiboan etorri direnei eskerrak emanez ekitaldiaren ingurumen-inpaktua murrizten lagundu dutelako. Bertaratuen sentsibilizazioa bermatzeko eta haien bizimoduko ohiturak aldatzeko, automobil partikularren ordez ibilgailu kolektibo pribatua erabiltzeak dakartzan ingurumen-abantaila ugarien berri emango zaie inplikaturako eragile guztiei

Adierazleak

kop. Garraio bide kolektibo pribatuen bertaratu diren pertsonak

% Garraio bide kolektibo pribatuen bertaratu direnak

Km Autobusek egindako distantzia

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldira zenbat autobus kolektibo etorri diren zenbatzea, baita autobus bakoitzean zenbat pertsona ere.



Mugikortasunari dagozkion hobekuntza-jarduerak

1.4 Ibilgailuetako okupazio handia sustatzea

Deskribapena

Ibilgailuetan ahalik eta bidaiari gehien sartuz gero, ekitaldira joaten diren ibilgailuen guztizko kopurua txikiagoa izango da eta, beraz, baita kutsadura atmosferiko eta akustikoa ere. Gainera, auto-ilarak sortzea saihestu eta trafikoa arinago ibiliko denez, ekitaldia izango den tokira iristeko kolapsoak sortzeko aukera murriztuko da.

Ibilgailuetan ahalik eta bidaiari gehien sar daitezten ahalbidetzeko, antolatzaileek honako neurri hauek ezar ditzakete:

- Plataforma bat sortzea ibilgailu pribatuan etortzen direnek ibilbidea batera egin dezaten. Horretarako, lehendik badiren plataformak balia daitezke, hala nola Amovens edo BlaBlaCar.
- Kokaleku hoberenetan dauden aparkalekuetan tokiak gordetzea okupazio-maila handia duten ibilgailuentzat.



- Ibilgailu pribatuentzako ordainpeko aparkalekuak ezarriz gero, taseen eskala bat finka daiteke eta okupazio-maila handieneko ibilgailuek lehentasunezko tratua izan dezakete; bestela esateko, okupazio-ehuneko txikiena duten ibilgailuek gehiago ordaindu beharko dute eta, hartara, neurriaren aplikazioa sustatzea lortuko da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Komunikazio-kanpaina egitea hainbat baliabide erabilita.
- Okupazio-tasa handia duten ibilgailuentzat pizgarriak ezartzea.
- Bertaratzeko asmoa dutenei plataforma erabiltzeko aukera dutela eta hori egiteak zer onura dakartzan jakinaraztea, ahal dela, posta elektronikoa erabilita.
- Ekitaldirako berariazko plataforma sortzea, lehendik dauden online plataformak baliatuta.

Ekitaldian bertan

- Aparkalekuen egoera eta tasak kobratzen direla kontrolatzea, betiere sistema hori aplikatzea erabakiz gero.
- Inkestak egitea ibilgailuen batez besteko okupazio-tasa kalkulatzeko. Autoaren okupazio-mailaren araberako tasak kobratzen badira, informazio hori errazago erregistratu ahal izango da.
- Partekatutako autoen plataformaren jarraipena egitea, ongi funtzionatzen ote duen eta behar bezala erabiltzen ote den ikusteko.

Ondoren

- Online plataformatik edo inkesten bitartez plazen okupazioa kontabilizatzea, ibilgailuen batez besteko okupazio-tasa kalkulatzeko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ekitaldira joaten diren ibilgailuen kopurua murrizten da, kolapsoak sortzea saihesten da eta lotutako kutsadura atmosferikoa murrizten da.



Ekitaldira ibilgailu gutxiago iritsiz gero, aparkatzeko toki gutxiago prestatu beharko da eta, beraz, lotutako kostua eta kudeaketa-lanak murriztuko dira.





Ibilgailu gutxiago mugitzearen ondorioz kutsadura akustikoa murrizten da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren aurreko komunikazio-kanpainaren bitartez, eskura dauden bideak erabilia (Webgunea, ekitaldirako berariazko Appak, prentsako edo irratiko iragarkiak...), ekitaldira ibilgailuan ahalik eta bidaiari kopuru handiena sartuta etortzeagatiko abantailen berri emango da. Eta bide batez, garraioaren inpaktuaren gainean sentsibilizatu eta herritarrek aukeran dituzten jardunbide egokienei buruzko informazioa eman daiteke.

Adierazleak



Monitorizatzeko gomendioak

Garraioa monitorizatzeko garaian, hainbat tresna erabil daitezke. Erronka Garbiak badu formulario bat ekitaldi batera joaten direnen jatorriari eta erabilitako garraio bideei buruzko datuak biltzeko.



Deskribapena

Mugikortasun jasagarria zera da, joan-etorriak ahalik eta ingurumen-inpaktu txikienarekin egiteko aukera ematen duen mugikortasun-eredua. Kontzeptu hori ibilgailu elektriko eta hibridoekin, batik bat, lotzen da, baita biodiesel erregaia erabiltzen duten ibilgailuen erabilerarekin ere, baina ezin ahaztu ingurumena gehien errespetatzen duen mugikortasuna: oinez edo bizikletaz ibiltzea.

Garraiobide jasagarriago horiek erabiltzeko, honako aukera hauek azter daitezke:

- Ibilbide luze samarrak egin beharreko ekitaldietan, antolatzaileek ingurumen-inpaktua murrizten lagun dezakete ekitaldiaren eremuan barrena mugitzeko, baina baita azpiegitura, parte-hartzaileak eta abar garraiatzeko ere.



- Ekitaldira joango direnek ibilgailu eraginkorragoak erabil ditzaten sustatzea.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Mugikortasun-aukera jasagarriagoak bilatzea.
- Ekitaldiaren babesle izan daitezkeen eta, publizitatearen truke, ibilgailu jasagarriak eskain ditzaketen erakunde publiko edo pribatuekin harremanetan jartzea.
- Garraiobide jasagarrienak erabil daitezten sustatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea.



Ekitaldian bertan

- Biodiesela saltzen duten gasolindegia eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak non dauden jakinaraztea bertaratutakoei.
- Autobus publiko edo pribatuak erabiliz gero, erabilgarri dauden teknologiarik onenak dituztenei ematea lehentasuna.



Ondoren

- Desmuntaketa-lanetan ibilgailuak erabiliz gero, ahal dela bioerregaiarekin funtziona dezatela, edo elektrikoak nahiz hibridoak izan daitezela.

Neurriaren inpaktu potentziala



Biodieselak ez du sufrerik eta CO₂-aren emisio-mailak oso txikiak dira diesel konbentzionalarekin alderatuta. Gainera, biodegradagarria da eta olioaren birziklatzea ahalbidetzen du; hartara, botatzen denean ez da urik kutsatzen.



Ibilgailu elektrikoak erabiltzeak erregaia aurrezteko dakar.



Atmosferara konposatu kutsatzaile gutxiago isurtzen dira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia baino lehen, antolatzaileek bertaratu nahi dutenei eskaintzen dizkieten garraiobideen aukera jasangarriak zeintzuk diren jakinarazteko mezuak igorri behar dira komunikazio-kanpainaren bitartez. Mezu horiekin batera, pertsonen eguneroko garraioaren ingurumen-inpaktuari buruzko informazioa eta inpaktu hori murrizteko aukerarik onenak zeintzuk diren azal daitezke. Ekitaldian ibilgailu jasangarriagoekin lotutako hobekuntzaren bat txertatu baldin bada, hobekuntza hori agerian eta bertaratutakoaren eskura jarri behar da eskuragarri dauden baliabide ugarien artean zenbait erabilita: kartelak, megafoniako mezuak, langileen zuzeneko arreta eta abar.

Adierazleak



Ibilgailu garbi eta/edo eraginkorretan joaten direnak

Monitorizatzeko gomendioak

Garraioa monitorizatzeko garaian, hainbat tresna erabil daitezke. Erronka Garbiak badu Datuak Biltzeko Formulario bat eta, horren bitartez, ekitaldi batera joaten direnen jatorriari eta erabilitako garraiobideei buruzko datuak bil daitezke.



Deskribapena

Garraibiderik jasagarriena erabiltzen ez den hori da; hori dela eta, ekitaldia non egingo den aukeratzeko garaian, ongi komunikatuta dagoen toki bat, garraio publikoaren sarean txertatuta dagoena eta, ahal den guztietan, oinez edo bizikletaz iristeko aukera ematen duena hautatuko da, ahal dela. Motorrik gabeko garraibideak erabiltzea baldintzatuta egon daiteke ekitaldi motaren eta ekitaldiaren kokapenaren arabera. Eta, batik bat, ibilbide laburrak egiteko erabiltzen da aukera hori, hau da, herri edo hiri barruan edo hiriartean, ezohiko moduan, egin beharreko distantziaren arabera. Hortaz, ekitaldi batera motorrik gabeko garraibideetan joateko aukera ezin da beti gauzatu, baina ekitaldietan aukera hori gehiago nabarmendu beharko litzateke, sentsibilizazioaren eta ohitura-aldaketaren ikuspegitik begiratuta.

Oso garrantzitsua da bertaratutakoen ahalik eta proportzio handiena oinez edo motorrik gabeko garraibideetan iristea; hortaz, ekitaldiaren kokapenak horretarako aukera eman behar du.

Esparrura iristen diren bizikletentzako erreiak prestatu daitezke, baita egokien kokatutako aparkalekuetan bizikletak uzteko tokiak prestatu ere, bertaratutakoek egindako ahalegina saritzeko. Bizikletak uzteko nahikoa toki badagoela bermatzen saiatu behar da eta, bestela, behin-behineko aparkalekuak ezarriko dira. Ekitaldiko jarduerak egingo diren guneen arteko distantziak laburrak eta irisgarriak izan daitezela, ahal dela. Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide eroso eta seguruak diseinatu behar dira puntu estrategikoetatik, betiere dauden azpiegiturak baliatuta, ahal dela (bidegorriak, espaloiak eta abar).

Bizikleta erabiltzea sustatzeko neurri bat izan daiteke motordun ibilgailuen garraiorako behin-behinekoz erabili ezin diren esparruetara sartzen uztea bizikletei.

Ingurumen-inpaktua murrizteaz gain, ohitura osasungarriak hartzea sustatuko da eta eguneroko bizitzan ere gauza daitezke ohitura horiek.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Ekitaldiaren kokagunea hautatzeko aukera guztiak aztertzea, oinez edo bizikletaz iristeko aukera izatearren.
- Oinezkoak ekitaldia egingo den tokiraino iristeko espaloien presentzia identifikatzea edo prestatzea.
- Ekitaldia egingo den tokiraino eta esparruaren barruan bidegorriak detektatzea.

Ekitaldian bertan

- Motordun garraioa murriztea.
- Bizikletak uzteko tokiak ezartzea.
- Ekitaldirako ere bizikletak alokatzea.
- Aldi berean egingo den beste jardueraren bat antolatzea bizikletaz.
- Ekitaldiko puntu batetik bestera dagoen distantziaren berri ematea.

Ondoren

- Bizikletak uzteko aparkalekuren bat prestatuz gero, desmuntatu egin beharko da.

Neurriaren inpaktu potentziala



Motorrik gabeko garraiobideek ez dute kutsadura akustikorik sortzen, ez dute eraginik trafikoan eta ez dute auto-ilararik sortzen.



Horrelako garraiobideak uzteko edo aparkatzeko aparkalekurik ez badago, prestatu egin beharko da eta ekitaldiko antolatzaileei kostu txikia eragingo die horrek.



Hiriko airearen kalitateari kalte egiten dioten gasen emisioa saihesten da (CO₂, NO_x, HC edo CO).

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren aurreko komunikazio-kanpainaren bitartez, ibilgailu motordunak ez diren garraiobide alternatiboetan joateko aukeraren berri eman beharko da hainbat baliabide baliatuta (prentsan eta irratian jarritako iragarkiak, online plataformak eta abar). Ekitaldiaren egunean bertan jarduerak egiteko puntuen arteko distantzien berri emango da eta, hartara, ekitaldian barrena mugitzeko garraiobide motordunak erabiltzea saihestuko da.

Ekitaldira joango direnei aldeztu aurreko komunikazio-kanpainaren bitartez nahiz egunean bertan informazioa ematen bazaie ekitaldira oinez edo bizikletaz joateak dakartzan ingurumen-onurei buruz, ibilgailu motordunak erabiltzearen eta erabilera horrekin lotutako kutsaduraren ondoriozko ingurumen-inpaktuen gainean sentsibilizatuko dira. Motordun ibilgailuen erabilera saihestuko da behar-beharrezkoa ez den guztietan, eta hori egitea osasunerako eta ingurunerako mesedegarria dela nabarmenduko da.

Adierazleak



Motorrik gabeko garraiobidea erabilia iristen direnak



Bertaratutakoen abiapuntuarekiko batez besteko distantzia

Monitorizatzeko gomendioak

Mugikortasunari buruzko informazioa lortzeko eta ekitaldira iristeko zer garraiobide erabili duten eta nondik etorri diren jakiteko, bertaratutakoei galderak egin behar zaizkie, inkesten bitartez.



Deskribapena

Antolatzaileek ezarri beharreko neurri garrantzitsuenetako bat da garraibide pribatuan (autoz) iristen direnen kopurua ahalik eta gehien murrizten saiatzea, garraio kolektibora bideratuta. Ezinezkoa den kasuetan edo bertaratutakoen nahiz parte-hartzaileen kopuru oso handia duten ekitaldietan, antolatzaileek aldi baterako aparkalekuak presta ditzakete. Aparkaleku horien kokapena, egoera, edukiera edo plaza kopurua eta sarbideak zaintzea garrantzitsua izaten da, batik bat, ekitaldia natura-ingurunean baldin bada; kasu horietan, landaredia dagoen tokietan kokatzea saihestuko da, ahal dela. Herrigunetik urruneko guneetan kokatzeko ahalegina egingo da, trafiko-dentsitate handirik izan ez dadin auto askorik ibiltzen ez den tokietan, eta ekitaldiaren ondo-ondoko kokaguneak ere saihestuko dira, banakako erabilera duten ibilgailu pribatuak denak

batera pilatu ez daitezzen. Egokien kokatutako espazioak ingurunea gehien errespetatzen duten garraibideentzat gordeta.

Bizikletak, bertaratutakoak daramatzaten ibilgailu kolektiboak eta azpiegiturak muntatu eta desmuntatzeko kamioiak aparkatzeko tokiak prestatzea gomendatzen da. Aparkatzeko toki hori ekitaldia izango den tokitik urrun baldin badago, bertaratuak ekitaldira hurbiltzeko autobusen anezka-zerbitzua ezartzeko aukera aztertuko da.

Aparkatzeko toki horietatik ehuneko bat mugikortasun urriko pertsonentzat gorde beharko da, eta espresuki adierazi. Antolatzaileek bertaratutakoei aparkalekuen okupazio-mailaren berri emateko mekanismoak izan beharko lituzkete.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldia egingo den tokitik gertu dauden aparkalekuak aztertzea.
- Bertaratutakoen kopuruari buruzko aurreikuspenak aztertzea zenbat aparkaleku prestatu beharko diren hautatzeko.
- Kokapen posible guztiak aztertzea eta landaredia duten tokiak saihestea.
- Autobusen anezka-zerbitzua ezartzea aldirietako aparkalekuetatik, behar izanez gero.



Ekitaldian bertan

- Aparkalekuen okupazio-tasaren jarraipena egitea eta kontrolatzea, ekitaldira zenbat pertsona bertaratu diren kontrolatzeko.
- Bertaratutakoentzat prestatutako aparkatzeko toki guztiak seinaleztatzea.
- Bertaratutakoei aparkalekuen okupazio-tasaren berri ematea.
- Aparkalekuetan sor daitezkeen gorabeherak kudeatzea.



Ondoren

- Prestatutako aparkaleku guztiak desmuntatzea

Neurriaren inpaktu potentziala



Gune egokietan aldi baterako aparkalekuak prestatzea lagungarri izango da ekitaldiaren inguruko berdeguneak behar bezala kontrolatu eta zaintzeko.

Aldiriko aparkalekuak lagungarri izaten dira honako hauetarako:

- Trafikoaren eta auto-ilaren mailak murrizteko ibilbide erradialetan eta hirigunean.

- Iristeko errepideen ahalmena areagotzeko premia murrizteko eta, hortaz, gas kutsagarrien emisio-mailak ere murrizteko.



Aldiriko aparkalekuei esker, hirietako erdialdean beharrezkoak diren aparkatzeko tokien kopurua txikiagoa izan daiteke (hiriguneetan erabilgarri dagoen lurzorua eskasa eta garestia baita), beste toki batzuetara bideratuta (lurra merkeagoa eta irisgarriagoa den tokietara).



Aparkaleku berriak prestatu behar izatea kostu gehigarria izan daiteke antolatzaileentzat.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiak irauten duen bitartean, aparkatzeko prestatutako aldi baterako guneak non dauden eta zenbateko okupazio-maila duten jakinaraziko zaie motordun ibilgailuetan etorri diren bertaratutakoei. Bertaratutakoak sentsibilizatu egin beharko dira antolatzaileek berdeguneak zaintzeko egin duten ahaleginari dagokionez eta ekitaldiak irauten duen bitartean ibilgailuak aparkatzeko aldi baterako prestatu diren gune egokiak hautatzeari dagokionez. Gainera, bertaratutakoei ez zaie utzi behar beren ibilgailuak aparkatzeko prestatuta ez dauden berdeguneetan aparkatzen.

Adierazleak



**Prestatutako guneen
batez besteko
okupazioa**



**Aparkalekuetarako
prestatutako azalera**

Monitorizatzeko gomendioak

Aparkaleku horien okupazioaren trazabilitatea egiteko, arduradunei prestakuntza eman beharko zaie eta datuak atzera antolatzaileei helarazteko tresnak ere izan beharko dituzte.



Mugikortasunari dagozkion hobekuntza-jarduerak

1.8 Garraio-nodoetatik taxiak partekatzeko aukera ahalbidetzea

Deskribapena

Ohikoa izaten da ekitaldietara joaten direnek hainbat garraiobide erabiltzea ekitaldia izango den tokira iristeko edo hurbiltzeko: tren, hegazkina edo autobusa. Dagokion garraio-nodora iritsi ostean (geltokia, aireportua eta abar), ekitaldia izango den tokiraino edo ostatu hartzeko tokiraino joan behar dute eta agian taxi behar izango dute. Kasu horretan, ekitaldira joango diren pertsona batek baino gehiagok bat egiten badute toki eta une berean, taxi partekatzeko aukera izango da proposamena.

Garraio-nodoetatik taxi partekatzeko aukera emango dute murriztu egiten du ekitaldiarekin loturiko ibilgailuen kopurua eta, hortaz, ekitaldiaren kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murriztea ere eragiten du.

Ekitaldiaren antolatzaileek bitartekari-lanak egin ditzakete prozesu horretan, eta hainbat tresna eta plataforma eskaini ditzakete: berariazko



online plataformak sortzea (blog irekiak), Doodle-ak eta bertaratutakoei taxi partekatzeko aukera emango dieten beste online tresna batzuk (JoinupTaxi). Tresna horiek helburua garraioaren eskaria bateratzea izango da, betiere premia eta ordutegi aldetik bat datozen kasuetan.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Auto-kudeaketako online tresnak eskaintzea.
- Dela izena emateko prozesuan, dela geroagoko asteetan, taxi-ibilbideak partekatu ahal izateko plataformak erabilgarri dituztela jakinaraztea ekitaldira joango direnei.
- Plataforma kudeatzea behar bezala erabiltzen dela ziurtatzeko.

Ekitaldian bertan

- Ekitaldiak irauten duen bitartean plataforma hor dagoela jakinaraztea, itzulerako bidean taxi parteka dezaten, plataforma networking-a sustatzeko tresnatzat hartuta betiere.
- Ibilgailuen batez besteko okupazio-tasa kalkulatzeko jarri diren tresnak baliatuta, plazen okupazioa kontabilizatzea.

Ondoren

- Ekitaldira joan direnen artetik, taxi zenbatek partekatu duten kontabilizatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Kutsadura atmosferikoa eta akustikoa murriztu egingo dira zirkulazioan dauden ibilgailuen guztizko kopurua murriztuz gero.



Oro har, bertaratutakoek ordaintzen dute taxia; beraz, ibilbidea partekatzen badute ekitaldiarekin lotutako gastuak murriztu egingo dira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldira joango direnek taxi-ibilbideak partekatzeko erabakia har dezaten, antolatzaileek zer pizgarri proposatu aztertu behar dute, eta pizgarri horiek eragozpenei gailendu behar zaizkie (esaterako, ibilbidea partekatzea ez da hain eroso). Hori lortzeko, horrelako jokabideekiko errefortzu positiboa erabil daiteke ekitaldian igortzen diren komunikazio-mezen bitartez. Komunikazio hori batik bat hasierako etapetan indartzea izaten da garrantzitsua, izena emateko prozesuan, ekitaldira joateko asmoa duena orduan hasiko baita bere logistika antolatzen.

Adierazleak



Ekitaldira joan direnen artetik taxia partekatu dutenak

Ekitaldira joan direnen artetik ibilbidea taxian egin dutenen guztizkoa



Plataforma baliatu duten erabiltzaileak

Monitorizatzeko gomendioak

Garraioa monitorizatzeko garaian, hainbat tresna erabil daitezke. Erronka Garbiak badu formulario bat ekitaldi batera joaten direnen jatorriari eta erabilitako garraio bideei buruzko datuak biltzeko. Online plataformen kasuan, kontabilizatzeara erraza izaten da, horretarako tresnak txertatuta izaten dituztelako.



Deskribapena

Mugikortasuna izaten da ekitaldi baten ingurumen-inpaktu nagusietako bat, batez ere, motordun garraiobideen emisioen ondorioz, zarataren ondorioz, tokiko trafikokoan sortzen diren pilaketen ondorioz eta inguruko sarbideen okupazioaren ondorioz. Garraio-premiak planifikatuz gero, ekitaldira joango direnak eta parte-hartzaileak ekitaldia izango den tokiraino joateko antolakuntzatik eskainiko diren garraiobideak aurreikusi, dimentsionatu eta egokitu ahal izaten dira. Horri esker, gainera, aukera jasangarriagoak eskain daitezke, garraioaren inpaktua ahalik eta gehien arindu ahal izateko, horixe izaten baita ekitaldien inpaktuaren arrazoi nagusietako bat.

Mugikortasun-plana zehaztu ostean (honako datu hauek aintzat hartuta: ekitaldiaren kokapena, bertaratutakoen kopuruaren aurreikuspena, bertaratutakoen jatorria eta garraio publikoko zerbitzuak) eta ekitaldia

bukatutakoan, antolatzaileek garraioak eragingo dituen emisioak konpentsatzen lagunduko duten neurriak proposa ditzakete. CO₂ emisioen konpentsazioa borondatez ematen den diru-kopuru bat izaten da, aldi jakin baterako, isuri diren baina oraindik murriztu ezin izan diren CO₂ tonekiko proportzionala.

Testuinguru hori baliatuta, antolatzaileek beste jarduera batzuk antola ditzakete, ekitaldiaren programazioaren barruan, bertaratutakoei konpentsazio horretan parte hartzeko aukera emateko, bertaratutakoak sentsibilizatzeko eta ekitaldiaren posizionamendu publikoa lortzeko.

Emisioak konpentsatzeko hainbat aukera daude, baina interesgarrienak izaten dira bertaratutakoak inplikatzan dituztenak eta informazioa ematen dietenak, betiere testuinguru ludiko batean eta naturaz, kirolaz eta bizimodu osasungarriaz gozatzen.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Garraioa behar bezala planifikatu ostean, antolatzaileek ekitaldiak eragingo dituen emisioen aurreikuspena egin dezakete.
- Bertaratutakoak inplikaturako dituzten eta emisioak konpentsatzeko aukera emango duten jarduerak diseinatzea.
- Jarduera zehatzik programatzen ez bada, konpentsazioko programa publikoetara jo daiteke, hala nola Ingurumen Ministerioaren Emisioen Erregistrora.



Ekitaldian bertan

- Konpentsazioko jarduerak egitea.
- Esku-hartzeek eragindako finkaturako emisioak erregistratzea.



Ondoren

- Egindako konpentsazio-jardueren emaitzak jakinaraztea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Garraioak eragindako emisio atmosferikoak konpentsatzen dira.



Proposatutako esku-hartzeek kostu ekonomiko gehigarria eragin dezakete, baina garraioaren plangintza egokia eginda aurrezten denarekin oreka daitezke. Gainera, jarduera horiek lagungarri dira bertaratutakoek, babesleek eta administrazioek ekitaldiaren gaineko pertzepzio hobea izateko.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldi baten ingurumen-inpaktua kudeatzeko garaian, lehenengo aukera inpaktu hori ahalik eta gehien murriztea izango da, plangintzatik hasita. Konpentsatzeko mekanismoen bitartez, ekitaldi batean izan den CO₂ emisioaren baliokidea den zenbateko bat finka daiteke. Komunikatzeko garaian, ezinbestekoa da interes-taldeek ulertzea jarduera horien irismena zenbatekoa den eta emisioak konpentsatzeari baino arintzeari eman behar zaiola lehenetasuna.

Kompentsazio-jarduerak esparru ezin hobea dira ekitaldi batean inplikaturako interes-taldeak hezteko eta sentsibilizatzeko. Kompentsazio-ekintzak ekitaldi baten programazioan bertan txertatuz gero ikuspegi ludiko batetik begiratuta, bertaratutakoek inplikazioa ez ezik, ekitaldi baten inpaktuak hobeto ulertzea ere lortuko da.

Adierazleak



Kompentsazio-jardueretan parte hartzen duten bertaratutakoak



CO₂ baliokide konpentsatua

Monitorizatzeko gomendioak

Proposatutako jardueretan zenbat jendek parte hartu duen kontabilizatzea, sentsibilizazioaren inpaktua neurtzeko modua den aldetik. Ekitaldia burutu eta Karbono Azterna kalkulatu ostean, aztarnaren zenbateko ehunekoa konpentsatu den kalkulatu ahal izango da.





Deskribapena

Ekitaldiaren diseinu energetiko optimoa egiteko garaian, lehen-lehenik energia-beharrak aztertu behar dira kontratatutako energia behar den energiarekin bat etor dadin eta, hartara, ez gaindimentsionatzeko.

Ekitaldiaren kokapen egokia hautatzea funtsezkoa da ekitaldirako energia-plan egokia diseinatzeko; hori horrela dela, elektrizitatearen eta gasaren sareei konektatzeko aukera izango da, argi naturala aprobetxatu ahal izango da edo ekitaldian bertan energia garbiak sortu ahal izango dira. Energiaren (elektrikoa eta gasa) kontsumo-puntuak zeintzuk izango diren kontuan izan behar da energia-beharrak erabilgarri dagoen espazioaren eta aurreikusitako bertaratutakoen arabera dimentsionatzeko.

Ekitaldiaren berezko beharrak beteko dituzten ekipoak –energetikoki eraginkorrak direnak– hautatu beharko dira.

Horretaz gain, energiaren hornitzeko ingurumena gehien errespetatuko duten aukerak aztertuko dira, betiere ekitaldiaren kokalekuak aukera hori gauzatzeko parada emanez gero (energia garbiak sortzea, sareari konektatzea, ekipo elektrogenoak erabiltzea eta abar), baina sareak huts eginez gero elektrizitatea sortzeko ekipo osagarriak izatea ere kontuan hartu behar da.

Diseinu energetiko egokia eginez gero, eraginkortasuna handiagoa izango da eta ekitaldi baten energia-kontsumoak dakartzan ingurumen-inpaktuak minimizatuko dira.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren energia-beharrak aztertea, kontratatutako potentzia ez gaindimentsionatzeko.
- Energia-hornidurarako hainbat aukera bilatzea (sarea, ekipo elektrogenoak eta abar).
- Ekitaldiaren energia-beharrak betetzea ahalbidetuko duten ekipoak –energetikoki eraginkorrak direnak– hautatzea.
- Identifikatutako operadore edo instalatzaileekin elkarreragitea ekitaldiaren ingurumen-helburuen berri emateko eta transmititzeko eta helburu horiek betetzen inplika daitezkeen; horretaz gain, ekitaldiaren monitorizazioa nola egin edo energia-kontsumoari buruzko datuak nola bildu adostu beharko da haiekin.



Ekitaldian bertan

- Kontratututako energiarekin ekitaldiaren hornidura-beharrak betetzen direla egiaztatzea.



Ondoren

- Erabilitako energiaren hornitzeko sistemarekin lotuta sortu diren gorabehera posibleak aintzat hartzea eta biltzea.
- Energia kontsumitzen duten elementuen hornitzaile, instalatzaile edo operadoreak identifikatzea, energia-kontsumoari buruzko datuak eskatzeko.
- Inplikaturako operadore edo instalatzaileen neurriei esker lortu diren hobekuntzen emaitzak jakinaraztea, haiek ere partaide direla sentiarazteko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira.



Natura-baliabideak kontserbatu egiten dira, erregai fosilen mendeko energia-kontsumoa murrizten denez.



Energia-plangintza egokia eginez gero, energia aurreztuko da eta, horren ondorioz, baita dirua ere.



Ekitaldirako energia-beharren azterketa bat edo auditoria bat eginez gero, antolatzaileek kostu gehigarri bat izango dute baina azterketa egin eta hobekuntzak ezartzearen ondorioz aurreztuko denarekin konpentsatu ahal izango da kostu hori.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren egunean bertan bertaratutakoei mezuak helarazita, energiak eragiten dituen inpaktu ekonomikoei eta energia-inpaktuei buruzko informazioa emango zaie. Era berean, energia zentzuz erabiltzeak zer onura dakartzan jakinaraz dakieke, baita etxean energia berdea kontsumitzeko zer aukera dituzten ere.

Adierazleak

kWh

Kontsumitutako energia, bertaratutako bakoitzeko

kWh

Kontsumitutako energia, motaren arabera

%

Kontsumitutako energia berdea

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko, konexio-puntu garrantzitsuetan kontagailuak jarri beharko dira, kontratatutako energiarekin energia-beharrak betetzen ote diren kalkulatzeko eta, gainera, ekitaldiaren guztizko energia-kontsumoa ere kalkulatu ahal izateko.



Deskribapena

Ekitaldi batean energia-kontsumoa murrizteko ezarri beharreko ekintzetako bat zera da, eraginkortasun-irizpide zorrotzenak betetzen dituzten ekipo elektriko-elektronikoak hautatzea; esaterako:

- Energia-etiketa A edo goragokoa duten etxetresna elektrikoak.
- Energy Star etiketa duten gailu elektronikoak.
- Kontsumo txikiko argiztapen-sistemak erabiltzea, hau da, Led argiak, kontsumo txikiko fluoreszenteak eta abar.
- Ekitaldiaren beharrekin bat datozen soinu-ekipoak eta, horien artetik, ahalik eta kontsumo txikiena dutenak.

-Klimatizazioko eta berokuntzako sistema eraginkorrak eta azaroaren 27ko 1826/ 2009 Errege Dekretuan xedatutako baldintzak betetzen dituztenak. Klimatizazio-baldintza onak (isolamendua, aireztatze naturala eta abar) dituzten kokalekuak hautatzea ekitaldirako. Instalazio itxietan egiten diren ekitaldien kasuan, giroko tenperatura parte-hartzaileen eta bertaratutako en konfortera egokitzea, ez hotzegi, ez beroegi.

-Ekipo elektrogenoak. Energetikoki eraginkorrenak direnak hautatuko dira. Ekipo horiek hautatzeko moduari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, azpiegituren ataleko ekipo elektrogenoak hautatzeko fitxa kontsulta daiteke.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekipo eraginkorrenak bilatu eta hautatzea, ekitaldiaren beharretara egokitzen direnak izanik betiere.
- Ekipoak eta makinak martxan ez daudenean itzalita daudela ziurtatzeko protokolo bat ezartzea, baldin eta itzalita energia aurrezten bada eta ekipoan ez bada matxurarik eragiten.
- Energia aurrezteko ezarri diren irizpideen berri ematea mantentze-lanetako teknikariei.



Ekitaldian bertan

- Ezarritako energia aurrezteko protokoloa betetzen dela ziurtatzea.
- Argiak zentzuz erabiltzea eta argi naturala nahikoa ez denean soilik piztea argiak.



Ondoren

- Ekitaldia amaitzen denetik desmuntatzen diren arte, instalatutako ekipoak itzalita daudela ziurtatzea, betiere aldi horretan erabili behar ez badira.
- Ekitaldirako instalatu diren ekipoak desmuntatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Energia aurrezten da energia-eraginkortasun handiagoren ondorioz.



Energia sortzeak eta garraiatzeak eragindako emisioak murrizten dira.



Natura-baliabideak zaintzen dira.



Energia aurrezte eta, horren ondorioz, dirua ere aurrezte.



Ekipo eta instalazio propioak dituzten ekitaldi errepikakorren kasuan, ekipo eta instalazio horien orde ez eraginkorragoak erabiliz gero, hasierako inbertsioak kostu bat ekarriko luke, baina kostu hori konpentsatu ahal izango da eta, gainera, mesedegarria ere izan daiteke diruaren aldetik, ekitaldiaren edizio guztietan energia aurreztuko baita.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Garrantzitsua da bertaratutakoei ekitaldiaren energia-kontsumoa murrizteko ezarritako neurrien berri ematea, energia aurrezte eta energia-eraginkortasuna garrantzitsuak direla ikusaraztea eta energia zentzuz erabiltzeak zer onura dakartzan azaltzea; halaber, energiaren kontsumo eraginkorra egiteko nola jokatu behar den jakinaraztea ere garrantzitsua da.

Guneetako mantentze-lanetako teknikariei jakinarazi egin behar zaie argiak piztu eta itzali egin behar direla, guneetan zenbateko tenperatura jarri behar den eta abar; horretarako, ekitaldian energia aurrezteko finkatutako irizpideen berri eman behar zaie. Energetikoki eraginkorrenak diren ekipoak hautatzeak eragiten dituen onuren gainean bertaratutakoak sentsibilizatzea garrantzitsua da, bakoitzak bere etxerako ekipoak hautatu behar dituen garaian energia-kontsumo egokiaren irizpide horiek aplikatu dituzten.

Adierazleak



**Ekitaldian erabilitako
goi-mailako
eraginkortasuneko
ekipoak**

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen eraginkortasuna ebaluatzeko, goian aipatu diren energia-eraginkortasuneko baldintzetakoren bat betetzen duten zenbat ekipo erabili diren zenbatu beharko da ekitaldian.



Deskribapena

Aire zabaleko ekitaldien kasuan, elektrizitatearen edo gasaren sareari konektatzen bada energiaren erabilera optimizatu daiteke, ez baita soberakinik izango benetan kontsumituko denaren aldean, ekipo elektrogenoak erabiltzean gertatzen den moduan.

Horretarako, lehenik, ekitaldia izango den udalerriarekin jarri beharko da harremanetan eta, gero, energia banatzen duen operadorearekin, behar den energia kontratatzeko eta konexioa egiteko.

Konexio-puntuak toki egokietan egingo dira, ahal dela, betiere ahalik eta kontsumo-puntu gehien hartzeko.

Auditoria energetikoak eginez edo ekitaldian bertan aurreikusitako kontsumoen ebaluazioa eginez, kalkuluen arabera kontsumituko den energiaren arabera kontratatuko da energia, energia-estalduran gabeziarik izan ez dadin.



Ekitaldi bateko aldi baterako instalazio elektrikoaren tentsio izendatua ez izango 230/400 V baino handiagoa korrante altxatu, eta ahal dela hargune trifasikoa egingo da, faseetako batek huts eginez gero hornidurarik gabe ez geratzeko eta elektrizitatea sortzeko ekipo osagarriarik behar ez izateko.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren energia-beharrak aztertzea behar den potentzia kontratatzeko eta konexio optimoak ezartzeko.
- Konexio-puntuak eta konexioen kopuru egokia hautatzea.
- Erabakitako sare-konexioak instalatzea, bertaratutako segurtasuna bermatuta.



Ekitaldian bertan

- Kontratatutako energiarekin ekitaldiaren hornidura-beharrak betetzen direla egiaztatzea.
- Jendearen segurtasuna bermatzea sarerako konexioa egiteko ipini diren linea elektrikoek dagokienez.
- Egindako konexioak egoera onean daudela eta behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea.



Ondoren

- Egindako konexioak desmuntatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Aurreztutako energiarekin lotutako CO₂ emisioak murrizten dira.



Energia optimizatzen da, behar dena kontratatu delako.



Erregai fosilen kontsumoa txikiagoa da energia-eskaria murriztu delako.



Saihestu den energia-kontsumoaren ondorioz eta ekipoak –ekipo elektrogenoak, kasu– alokatu behar ez izatearen ondorioz dirua aurrezteak.



Harguneak udal-sareari konektatzeak kostu ekonomiko gehigarri txiki bat izan dezake.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren egunean bertan bertaratutakoei mezuak helarazita, ezarritako ingurumen-neurrien berri eta energia aurreztearen garrantziaren berri emango zaie; halaber, udal-sareari konektatzea beste aukera batzuk baino mesedegarriagoa dela adieraziko zaie, ingurumenaren aldetik inpaktu handiagoa dutelako besteek, eta energia zentzuz erabiltzearen alde onak zeintzuk diren ere azalduko zaie.

Adierazleak

kWh

Saretik datorren energia-kontsumoa

%

Saretik datorren kontsumitutako energia

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldian kontsumitutako energia kontrolatu eta monitorizatzeko, kontagailuak ipiniko dira sarera konektatzeko puntu guztietan eta, hartara, saretik datorren zenbat energia kontsumituko den jakin daiteke zehatz-mehatz, eta kontratatutako energia kontsumitutakoarekin bat ote datorren.



Deskribapena

Aire zabaleko ekitaldien kasuan, energia-hornidura bermatuta dagoen kokapena hautatu beharko da, ekipo elektrogenorik erabili behar ez izateko.

Ekipo elektrogenoak erabiltzeak atmosferara gas-emisio handiak egitea dakar, kutsadura akustikoaz gain. Hortaz, ahal den guztietan, ekipo horien erabilera minimizatu egingo da eta beste aukera jasangarriago batzuk aztertuko dira.

Horrelako ekiporik erabili behar izanez gero, ekipoez edo ekipoak konektatuta egoten diren instalazioek zenbateko kontsumoak izango dituzten ebaluatuko da, betiere aurreikusitako energia-beharrekin bat datorren potentzia

dutenak hautatzeko eta sortutako energia ez gaindimentsionatzeko, benetan behar denaren aldean. Gainera, ekipo eraginkorrenak hautatuko dira.

Zenbait kasutan, energia sortzeko ekipo osagarriak erabiltzea beharrezkoa izango da, horniduran akatsak izanez gero edo elektrizitate-sareak huts eginez gero elektrizitate-hornidura bermatzeko. Horrelako kasuetan, energetikoki eraginkorrenak direnak hautatu beharko dira eta, ahal dela, azpiegituren ataleko ekipo elektrogenoak hautatzeko dokumentu honetako fitxa atxikian aipatzen diren irizpideetakoren bat betetzen dutenak.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Sarerako aldi baterako harguneak egiteko aukera emango duen kokalekua hautatzea ekitaldirako.
- Aukera jasangarriagoak aztertzea.
- Energia-beharren azterketa egitea, behar den energiako egokiak diren ekipo elektrogeno eraginkorrenak hautatzeko, erabili behar izanez gero.



Ekitaldian bertan

- Instalaturako ekipo elektrogenoek behar bezala funtzionatzen dutela kontrolatzea.



Ondoren

- Ekitaldian erabilitako ekipo elektrogenoak desinstalatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ekipo elektrogenoak barne-errekuntzako motorrak dira eta funtzionatzen ari direnean substantzia toxikoak isurtzen dituzte: nitrogeno oxidoak, kedarra, karbono monoxidoa, hidrokarburoak eta abar. Ekipo elektrogenoak gutxiago erabiltzen badira, gas horien emisioa eta lotutako inpaktuak murrizten dira.



Ez bada energia-soberakinik sortzen, erregaia kontsumitzeak dakarren kostu gehigarria saihesten da.



Kostuak murriztea, ekipo elektrogenoak ez direnez alokatu edo erosi behar.



Ekipo elektrogenoak ahalik eta gutxien erabiliz gero, erabiltzean sortzen duten kutsadura akustikoa gutxituko da eta bertaratutakoei eragindako eragozpenak ere murriztuko dira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Garrantzitsua da ekitaldiaren antolatzaileek ekipo elektrogenoen erabilerak eragiten duen ingurumen-inpaktua murrizteko egin duten ahalegina bertaratutakoei jakinaraztea, eta ekitaldietako antolatzaileek ordezkoko neurriak ezar ditzaten sustatzea. Bestalde, ingurumen-inpaktu txikiagoko ekipo elektrogenoak hautatuz gero, horrelako ekipoak dituzten hornitzaileei emango diegu lehentasuna eta ingurumenean eragin txikiagoa duten sorgailuen garapena sustatuko dugu.

Adierazleak



Ekipo elektrogenoek kontsumitutako erregaiaren bolumena



Ekipo elektrogenoek sortutakotik kontsumitutako energia

Monitorizatzeko gomendioak

Lortutako emaitzak monitorizatu eta ebaluatu egin beharko dira erabilitako ekipo elektrogenoek sortutako energiari dagokionez, eta betiere ekipoaren ezaugarri teknikoak aintzat hartuta. Kontsumo-puntuetan kontagailuak ipiniko dira, guztira zenbat energia kontsumitu den zehatz-mehatz jakiteko eta kontsumitutako hori sortutako energiarekin bat ote datorren egiaztatzeko. Gainera, ekipoen erregai kontsumoaren guztizkoa ere kontabilizatu beharko da.



Deskribapena

Ekitaldietan bertan energia berriztagarriak eta garbiak sortzeak murriztu egiten du ekitaldian kontsumitutako energiarekin lotutako kutsadura atmosferikoa eta, aldi berean, ekitaldira bertaratu direnak ingurumena zaintzearen gainean sentsibilizatzeko ere balio du.

Energia eta ur bero sanitarioa produzitzeko energia berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioei lehentasuna ematea gomendatzen da. Horregatik, ekitaldia non egingo den edo ekitaldiaren egoitza hautatzeko garaian, kokaleku horrek energia garbia sortzeko iturriak izatea kontuan izango da, energiaren autohornitzeko.

Sortutako energia nekez biltegiara daitekeenez, kontsumo-puntu bat hornitzeko sortu beharko den energiaren aurreikuspena egingo da, aurreikusten den beharraren arabera.



Neurri honen adibide praktikoak izango lirateke energia panel fotovoltaikoen bitartez sortzea, dela elektrizitatea sortzeko, dela ur bero sanitarioa lortzeko; mikrosorgailu eolikoak erabiltzea eta abar.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Ekitaldiaren hainbat kokaleku aztertzea eta energia garbia sortzeko instalazioak badituztenei ematea lehentasuna.
- Energia garbia sortzeko iturri optimoak hautatzea, baina teknologia horiek kokatzeko toki egokia ere.

Ekitaldian bertan

- Energia garbia sortzeko instalazioak kontrolatzea eta jarraipena eta mantentze-lanak egitea, behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko.

Ondoren

- Instalatu diren energia garbia sortzeko iturriak desinstalatzea, ekitaldia egingo den tokikoak edo ekitaldiaren egoitzakoak ez baldin badira.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen dira, erregai fosiletan oinarritutako energiaren kontsumoa saihestu delako.



Natura-baliabideak zaintzen dira.



Zenbait kasutan, hornitzaileek edo erakunde publikoek energia sortzeko gailu garbietan berrikuntzak eskain ditzakete doan, betiere produktuaren publizitatea egiteko eta jende askorengana iristea lortzeko; horri esker, neurri hau ezartzearen kostua murriztu egiten da.



Jatorri berriztagarriko energia sortzeak kostu gehigarria dakar (teknologia hori alokatu eta instalatu egin behar delako) ekitaldiaren antolakuntzarako.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Garrantzitsua da ekitaldiaren antolatzaileek ingurumen-inpaktua murrizteko egin duten ahalegina bertaratutakoei jakinaraztea, energia sortzeko jatorri berriztagarriei lehentasuna emateagatik ingurumen-inpaktu handiagoko teknologien kaltetan.

Ekitaldiaren egunean, energia mota hori sortzeak dakartzan ingurumen-onuren berri eta energia zentzugabe erabiltzeak eragiten dituen inpaktuen berri bertaratutakoei ematea komeni da, eguneroko bizitzan modu arduratsuan erabiltzeko portaerak aplika ditzaten eta iturri berriztagarrietan oinarritutako energia-sorkuntza gehiago susta dadin, hartara, natura-baliabideak zainduz.

Adierazleak

kWh Sortutako energia berdea

% Kontsumitutako energia berriztagarria

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldian energia berriztagarriak kontrolatu eta monitorizatzeko, kontagailu elektrikoak ipiniko dira energia garbia sortzeko puntu guztietan, teknologia horien bitartez sortutako energia guztira zenbat izan den zehatz-mehatz jakiteko.




Deskribapena

Energia berdea da energia sortzeko baliabide berriztagarriak eta potentzialki infinituak erabiltzeko aukera ematen duten teknologien bitartez lortzen dena.

Gaur egun, energia berriztagarria eta garbia kontsumitu daiteke edozein tokitan, hornitzeko sarera konektatu badaiteke, nahiz eta kokaleku horretan ez egon eguzki-panelen instalaziorik, panel fotovoltaikorik, aerosorgailurik eta abarrik. Zeharkako transakzio bat da eta erabiltzaileak ordaindu egiten du sistema elektrikoaren beste puntu batean sortutako elektrizitate berriztagarria jasotzeagatik.

Horregatik, energia mota hori kontratatzen denean, energia berriztagarrien hazkundera ez ezik, ingurumena gehiago errespetatzen duen



eredu energetikoaren garapena ere bultzatzen da, eta herrialdeen burujabetza energetikoa areagotzeko lagungarri izaten da hori.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldirako energia garbiak kontratatzeko aukera guztiak aztertzea.
- Energia garbia kontratatzea ekitaldiaren beharrak betetzeko.



Ekitaldian bertan

- Ekitaldiak irauten duen bitartean, energia-hornidura iturri berriztagarrietatik datorrela jakinarazi behar da modu aktiboan, baita horren onuren eta horretarako prozeduraren berri eman ere, bertaratutakoek portaera hori errepikatu ahal izan dezaten.



Ondoren

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira.



Natura-baliabideak zaintzen dira.



Oro har, jatorri garbi eta berriztagarriko energiak kontratatzeak kostu gehigarri txiki bat izaten du, jatorri fosileko energien aldean.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Bertaratutakoak energia berriztagarrien kontratazioak dakartzan ingurumen-abantailen gainean sentsibilizatzeko ahalegina egingo da, eta haiek ere horrela jokatzera sustatuko da, ingurumena gehiago errespetatzen duten energia-iturrien instalazioan hazkundera lortze aldera.

Adierazleak



Konsumitutako energia berriztagarria



Kontratutako energia berdea

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldian kontsumitutako energia garbia kontrolatu eta monitorizatzeko, kontagailu elektrikoak ipiniko dira ezarritako konexio guztietan, eta kontratatutako energia berdea kontsumitutakoarekin bat ote datorren egiaztatuko da.



Deskribapena

Gizakiaren begiak hobeto funtzionatzen du argi naturalaren eraginpean. Eguzkiaren argiak koloreen errendimendu perfektua du eta elementu oso proaktiboak ditu pertsonen jokabidean.

Horregatik, eta argi naturalaren ingurumen-inpaktua nulua dela kontuan izanik, argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu behar da, betiere ekitaldiaren ezaugarriak neurri hori aplikatzearekin bateragarriak baldin badira.

Argiztapen egokia funtsezkoa izaten da ekitaldi orotan. Ez soilik giro jakin bat sortzeko, elementu edo guneak nabarmentzeko, ekitaldiaren erritmoak bereizteko eta abar, baizik eta argiak bertaratutakoen erosotasun-mailan ere eragiten duelako, baita haien gogo-aldartean eta produktibitatean ere. Ekitaldi baterako argiztapen



jakin bat hautatzeko garaian, aplikazio egokia hartu behar da kontuan, kutsadura luminikoa saihestu behar da, eta energia aurreztu.

Ekitaldia egiteko egun, ordu eta toki desegokia hautatuz gero, ekitaldian bertan kontsumitutako energia nabarmen handitu daiteke eta, beraz, baita horren guztizko kostua ere.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldia egiteko eguna, tokia eta ordua hautatzeko garaian, argi naturalaren aprobetxamenduaren faktorea aintzat hartzea, betiere faktore horiek ekitaldiaren nolakotasunean eragiten ez badute.
- Ekitaldirako kokaleku egokia hautatzea, argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko moduan.



Ekitaldian bertan

- Argiztapena unean uneko beharretarako eta ekitaldirako egokia dela kontrolatzea eta jarraipena egitea.
- Argirik eza detektatzeko gailuak kontrolatzea, ekitaldiak uneoro argiztapen egokia izan dezan.



Ondoren

- Desmuntaketa-lanak egiteko garaian argi naturala aprobetxatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Argi naturala aprobetxatzean energia aurrezten da eta, hortaz, energia hori produzitu eta banatzearekin lotutako emisioak murrizten dira.



Argi naturala aprobetxatzen bada, kontsumo elektrikoan % 40 aurreztera irits daiteke kokagune itxietan, eta are gehiago aire zabaleko ekitaldietan. Ez dugu ahaztu behar gure planetan gehien dagoen natura-baliabideetako bat dela.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Komeni da bertaratutakoei azaltzea ekitaldirako kokalekua hautatzeko arrazoiak zeintzuk izan diren eta argi naturala aprobetxatzeak zer ingurumen-abantaila eragiten dituen, energia aurrezteaz gain.

Adierazleak

B/E

Argi naturala aprobetxatzen al da?

Monitorizatzeko gomendioak

Emaitzak monitorizatu eta ebaluatzeari esker, lortutako ingurumen-onuren berri izango dugu, eta ezarritako neurrien indarguneak zeintzuk diren eta hurrengo ekitaldietarako hobetu beharreko puntu posibleak zeintzuk diren ere jakingo dugu.



Deskribapena

Toki itxietan edo estalietan egiten diren ekitaldietan, esparruaren klimatizazioa kontuan izan beharreko elementua da; izan ere, eraikinen kanpoko eta barruko tenperaturen artean alde handia baldin badago, jendea zorabiatu egin daiteke eta gehiegi izerditzten hasi. Alde batetik, modu artifizialean klimatizatutako giroa lehorra izan daiteke eta, horren ondorioz, buruko minak edo migrainak sortzeaz gain, birusek edo bakterioek eragindako infekzioak ere sor daitezke.

Horregatik guztiagatik, ekitaldiaren tokian tenperatura optimoa zein den aztertu eta kontrolatzea komeni da eta, ahal dela, ekitaldia diseinatzean honako alderdi hauek aintzat hartu beharko lirake:

-Materialen inertzia termikoa: Energia termikoa kontserbatzen laguntzen duten eraikuntza-materialak.

-Eguzki-erradiazioa eta eraikinaren orientazioa kontrolatzea: Zenbait kasutan, klimatizazioaren beharrak % 50 murriztera irits daiteke, eguzki-plangintza egokia eginez gero.

-Aireztapen egokia bermatzea: Aire girotuaren erabilera murrizteko aukera ematen du.

-Sistemaren sektorizazioa: Hainbat espazio edo gune egokitzea hainbat jardueratarako.

-Ahal den guztietan, energia berriztagarriak kontratatzea edo kogenerazio-sistemen bitartez optimizatzea. Ezinezkoa denean, hobe da gas naturala edo gasolioa erabiltzea.

Beste ekitaldi mota batzuetan ur beroa erabili behar izango da, hala nola kirol-ekitaldietan dutxatzeko; horrelako kasuetan, klimatizazioaren gehiegizko erabilerak inpaktu ekonomiko handia eragin diezaieke ekitaldiaren antolatzaileei.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren tokia hautatzea honako hauek aintzat hartuta: materialen inertzia, eguzkiaren erradiazioa eta eraikinaren orientazioa, aireztapen natural egokia, klimatizazioaren sektorizazioa, klimatizaziorako erabilitako energia-iturria.



Ekitaldian bertan

- Klimatizazioa unean uneko beharretarako eta ekitaldirako egokia eta optimoa dela kontrolatzea eta jarraipena egitea.
- Giza konforterako tenperatura eta hezetasun optimoak detektatzeko gailuak kontrolatzea.



Ondoren

Neurriaren inpaktu potentziala



Klimatizazioa optimizatzean energia aurrezten da eta, hortaz, energia hori produzitu eta banatzearekin lotutako emisioak murrizten dira.



Klimatizazioa behar bezala erabiliz gero, energia-kontsumoan aurreztu egin daiteke.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Antolatzaileek ekitaldian ingurumen-irizpideak txertatzeko egindako ahaleginaren eta ezarritako neurrien berri bertaratutakoei ematea garrantzitsua da.

Komeni da bertaratutakoei azaltzea ekitaldirako kokalekua hautatzeko arrazoiak zeintzuk izan diren eta klimatizazioa optimizatzeak zer ingurumen-abantaila eragiten dituen, energia aurrezteaz gain. Horretarako, parte-hartzaileekin komunikatzeko gailuak erabiltzea interesgarria izaten da, bereziki gatazkatsuak diren guneetan, hala nola komunetan edo igarobideetan.

Adierazleak

B/E

Klimatizazioa optimizatu al da?

B/E

Ur bero sanitarioaren erabilera optimizatu al da?

Monitorizatzeko gomendioak

Emaitzak monitorizatu eta ebaluatzeari esker, lortutako ingurumen-onuren berri izango dugu, eta ezarritako neurrien indarguneak zeintzuk diren eta hurrengo ekitaldietarako hobetu beharreko puntu posibleak zeintzuk diren ere jakingo dugu.





Deskribapena

Ekitaldi batean izango den ur-kontsumoa planifikatzea ezinbestekoa da ura modu eraginkorrean erabiltzen eta ahalik eta gutxien kontsumitzen saiatzeko.

Neurri hau gauzatzeko, ekitaldian izan daitezkeen uraren kontsumo-puntu eta erabilera posibleak identifikatzea garrantzitsua da, hala nola komunak, iturriak, ureztatzea, garbiketa eta beste erabilera batzuk, ostalaritzarekin lotutako jardueretan, esaterako.

Puntu hori identifikatu eta egoki dimentsionatzea ezinbesteko neurria da uraren aprobetxamendu egokia egiteko eta behar ez diren baliabide hidrikoak ez erabiltzeko (komun edo ur-depositu gehiegi jartzea, kasu). Halaber, ekitaldiaren tipologiaren eta urteko sasoiaren arabera ere ur-kontsumoa asko alda daiteke. Ekitaldi berean ur-kontsumoa handiagoa edo txikiagoa izango da udan edo neguan egiten bada.

Gainera, ura banatzeko eta erabiltzeko jarritako aldi baterako instalazio guztiak instalatzeko garaian,

kontsumo-puntu bakoitzean isuririk edo gehiegizko emaririk ez izateko moduan egin beharko da. Horretarako, garrantzitsua da instalatzaileak inplikatzeko eta ekitaldian ezarri nahi diren ura aurrezteko irizpideak transmititzea, haiek ere partaide direla sentiaraziz eta lagunduz.

Azkenik, ura erabiltzen duten eta lehendik dauden instalazioak aztertu egin behar dira. Instalazio horiek konpontzea edo aldatzea garrantzitsua da isuriek eragindako ur-kontsumoa murrizteko edo minimizatzeko. Ekitaldi batean ur-hornidurako sarea erabiltzen bada, garrantzitsua da hodiak aztertzea eta isuriak dauden puntuak konpontzea, batik bat, aldizka egiten diren edo luzaro irauten duten ekitaldien kasuan.

Uraren kontsumoaren eta kudeaketaren azterketa bukatzeko, ekitaldi bakar batean bereiz daitezkeen ur tipologiak eta erabilera posibleak aintzat hartu behar dira, hala nola sortzen diren ur grisak edo zikinak, betiere sortuko den bolumena murriztearren edo ur horien kudeaketa edo erabilera posiblea planifikatzearen.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Lehendik dauden instalazioak aztertzea.
- Ekitaldiko benetako ur-premiak planifikatzea.
- Instalazio akastunak aldatzea edo konpontzea.
- Instalatzaileak ura aurrezteko irizpideetan inplikatzeko.
- Identifikaturako operadore edo instalatzaileekin elkarrengaita ekitaldiaren ingurumen-helburuen berri emateko eta transmititzeko, helburu horiek betetzen inplika daitezkeen; horretaz gain, ekitaldiaren monitorizazioa nola egin edo ur-kontsumoari buruzko datuak nola bildu adostu beharko da haiekin.

Ekitaldian bertan

- Ur-instalazioak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea eta haustura eta/edo isuriei aurrea hartzea.

Ondoren

- Planifikaturako hornidura-sistemarekin lotuta sortu diren gorabehera posibleak aintzat hartzea eta biltzea.
- Egin diren aldi baterako konexioak desmuntatzea eta uraren sarea edo instalazioak ekitaldia egin aurretik zeuden bezala (edo hobeto) geratzen direla ziurtatzea. Zenbait kasutan, instalazioen zati bat berriz jarri behar izango da lehengo egoerara itzultzeko.
- Ura kontsumitzen duten elementuen hornitzaile, instalatzaile edo operadoreei ur-kontsumoari buruzko datuak eskatzea.
- Inplikaturako operadore edo instalatzaileen neurriek esker lortu diren hobekuntzen emaitzak jakinaraztea, haiek ere partaide direla sentiarazteko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ur-baliabideak zaintzen dira.



Natura-ingurunea eta biodibertsitatea babesten dira.



Uraren fakturan aurreztu egingo da.



Kostuak areagotu egingo dira sareko puntuetan edo instalazioetan konponketak edo ordezkapenak egitean.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren egunean bertan bertaratutakoei mezuak helarazita, ur-horniduraren sarean egindako hobekuntzen berri eta instalazio akastunetan egindako ordezkapenen berri emango zaie. Halaber, urarekin lotutako azpiegituren instalazioak ahalik eta eraginkorrenak izateko egin den ahaleginaren berri ere emango zaie.

Adierazleak

B/E Ur-premiak aztertu al dira alde aurretik?

B/E Uraren kudeaketa planifikatu al da kontsumoa minimizatzearen?

B/E Ur-kontsumoa murrizteko asmoetan hobekuntzarik egin al da?

L Ekitaldiko ur-kontsumoaren guztizko bolumena

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldiko ur-kontsumoa zenbatekoa den jakiteko eta kontrolatzeko, ur-kontagailuak ipiniko dira martxan jarri diren aldi baterako konexioetan eta erabiltzen diren baina horrelako gailurik ez duten instalazio iraunkorretan.



Deskribapena

Ur-instalazio iragankorra egin beharreko ekitaldien kasuan, ura aurrezteko neurri zuzenenetako bat zera izaten da, ur-emia murriztu edo erregulatzeko sistema edo mekanismoen bitartez ur-kontsumoa gutxitzea. Horretarako, ura aurrezteko sistemaren baten bitartez aldatzeko moduan dauden kontsumo-puntuak lokalizatzeko azterketa egingo da alde aurretik.

Neurri hau ezartzea lortzeko hainbat mekanismo daude:

- Kontsumoa murrizteko sistemak: zurrusta haustekoak, bolumen-murriztaileak, emari-erregulatzaileak eta abar instalatzea.

- Komunak hautatzea: ekitaldiko ur-kontsumo handiena komunetan gertatzen da; hortaz, komun egokiak hautatuz gero, ur asko aurrez daiteke. Ur-kontsumo txikieneko komunak izaten dira uraren birzirkulazio-sistema, deskarga bikoitzeko sistema edo hutsean xurgatzeko sistema dutenak.

- Ureztatze-sistema eraginkorrak: ekitaldi motaren arabera, ureztatze-sistemarik baldin badago horren eragin oso handia izan dezake ur-kontsumo orokorrean. Ur-kontsumoa murrizteko hainbat neurri ezar daitezke: gauez edo eguzkiak indar gutxien duenean ureztatzea edo ureztatze-sistema eraginkorragoak ezartzea, tantakako sistema, esaterako.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Aldatzeko moduan dauden kontsumo-puntu posibleak alde aurretik aztertzea.
- Kontsumoa murrizteko sistemak instalatzea.
- Ura aurrezteko sistema duten komunak hautatzea.
- Ureztatze sistema eta neurri eraginkorrak ezartzeari lehentasuna ematea.



Ekitaldian bertan

- Ura aurrezteko instalaturako sistema edo gailuak kontrolatzea, horniduraren premiak betetzen dituztela eta egiaztatzea erabiltzaileek eragin negatiborik ez dutela sumatu.



Ondoren

- Instalazioen azken egoera aztertzea eta lehen zeuden bezala edo etorkizuneko premiak betetzeko prest uztea; behar izanez gero, aurrezteko ipinitako sistemak desinstalatu egingo dira eta hurrengo edizioetarako edo antzeko ekitaldietarako gorde daitezke.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ur-baliabideak zaintzen dira.



Natura-ingurunea eta biodibertsitatea babesten dira.



Uraren fakturan aurreztu egingo da.



Kostuak areagotu egingo dira ura aurrezteko sistemak erostean.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiak irauten duen bitartean, ura aurrezteko zer sistema ezarri diren jakinaraziko zaie bertaratutakoei. Antolatzaileek ekitaldiko ur-kontsumoa murrizteko egin duten ahalegina bertaratutakoei helarazita. Komunikabideen bitartez, ura aurreztea eta ura modu arduratsuan erabiltzea oso garrantzitsuak direla ikusaraziko zaie bertaratutakoei. Bertaratutakoei helarazitako mezuetan antolatzaileek ekitaldiko ur-kontsumoa murrizteko egin dituzten ahaleginak adieraztea bertaratutakoak sentsibilizatzeko modu egokia da. Bestalde, komunikazio horiek baliatuta, jakintza-pilulak edo gomendioak eskain daitezke etxean ere ura zentzuz erabiltzeko eta inpaktu positiboa areagotzeko.

Adierazleak



Aurreztutako ur-bolumena



**Ekitaldian erabilitako
goi-mailako
eraginkortasuneko ekipiak**

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri hau monitorizatzeko, zenbat litro ur aurreztu diren zenbatu behar da. Horretarako, emaria murrizteko sistemak badituzten eta ez dituzten elementu edo instalazioetako emariak neurtuko dira, betiere ura aurrezteko sistemak ipini nahi diren instalazioak badira, hala nola komunak edo urreztatzeko sistemak.



Deskribapena

Ekitaldi bateko ur-kontsumoa ekitaldira joaten diren pertsonen kopuruaren eta ekitaldiaren tamainaren arabera izaten da: zenbat eta jende gehiago, orduan eta kontsumo handiagoa. Bertaratutakoak sentsibilizatzeaz gain, sentsibilizazio-kanpainan ekitaldiko antolatzaileak, boluntarioak eta parte-hartzaileak ere sartu behar dira. Garbiketaz arduratuko direnak –boluntarioak izan nahiz kontratatutako zerbitzua izan– inplikatzeari bereziki garrantzitsua da, eskala handiko ekitaldietan garbiketa-lanetan ura modu arduratsuan erabiltzeak alde handia eragin baitezake.

Ur-kontsumo arduratsua sustatu behar da ekitaldiaren aurretik eta ekitaldian bertan egiten den sentsibilizazio-kanpainaren bitartez. Horretarako, hainbat plataforma edo baliabide daude: irratia edo telebista, plataforma digital berriak, megafoniako mezuak eta, azkenik, papereko komunikabideen bidez igor daitezkeen zuzeneko mezuak.



Plataforma digitalen kasuan, komunikatzeko hainbat modu daude. Egun gehien erabiltzen direnak web-orriak eta mugikorretarako aplikazioak dira. Aplikazioak asko erabiltzen ari dira azkenaldian antolatu diren ekitaldietan, ustiatu beharreko esparrua dira.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Sentsibilizazio-kanpaina antolatzea.
- Ekitaldiaren aurreko sentsibilizazio-kanpaina abiaraztea (telebista, irratia, plataforma digitalak...).
- Euren jardunean ura kontsumitzen duten eragileak identifikatzea ekitaldiaren ingurumen-helburuen berri emateko eta helburu horiek betetzen inplika daitezen.



- In situ sentsibilizazio-kanpaina (megafonia, inprimatutako baliabideak...), ekitaldian parte hartzen duten eragile guztiei zuzenduta.



- Garbiketaz arduratuko diren boluntarioei edo garbiketa-zerbitzuari ura aurrezteko mezua helaraztea.
- Helburuak betetzen inplikaturako guztiei emaitzak jakinaraztea, helburu horiek betetzen eta/edo ekitaldiaren inpaktua murrizten egindako lana edo beren inplakazioa eskertzeko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ur-baliabideak zaintzen dira.



Uraren fakturan aurreztu egingo da.



Natura-ingurunea eta biodibertsitatea babesten dira.



Sentsibilizazio-kanpaina egiteko erabiltzen diren baliabideen arabera, lotutako gastuak handiagoak edo txikiagoak izango dira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren aurretik eta bitartean, bertaratutakoei zuzendutako informazioa eta sentsibilizazioa zabalduko da eskura dauden komunikazio-plataformen bitartez. Plataforma horietan sartzten dira komunikabide tradizionalak, hau da, irratan edo telebistan egindako iragarkiak; plataforma digital berriak, hala nola web-orriak edo aplikazio mugikorak; edo in situ mezuak, esate baterako megafonia bidez egindakoak.

Komunikazio-mezuetan, ura zein garrantzitsua den nabarmenduko da eta erabilera arduratsua egitea sustatuko da. Mezu horien bitartez bertaratutakoen ingurumen-jokabidea hobetzea lortu behar da eta, hortaz, ekitaldi motaren arabera, mezu mota bat edo beste erabiliko da. Sentsibilizatzeko modu egokia izan daiteke munduan ur gezaren eskasiarekin loturik dauden arazoak ikusaraztea, edo keinu txikiak eginez urtean zenbat litro ur aurrez daitezkeen adieraztea.

Adierazleak

B/E

Ur-kontsumoa murrizteko sentsibilizazio-kanpainerik antolatua al da?

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri hau monitorizatu ahal izateko, zenbat komunikazio-plataforma erabili diren kontabilizatu beharko da.



Deskribapena

Saretik datorren uraren kontsumoa murrizteko ezar daitezkeen beste neurri bat zera da, euri-urak baliatzea horniduraren zati bat betetzeko. Euri-urak ezin izango du inoiz sareko ura ordeztu ur-horniduran, osasun-arrazoiak direla eta, baina euri-ura hainbat gauzatarako erabil daiteke: ureztatze edo komuneko bonbarako.

Ekitaldiak urte osoan barrena izaten dituzten kokalekuetan estrategia hau aplikatzeak eragin handia izaten du, metatutako ur-kontsumoa nabarmen murriztu baitezake.

Neurri hau gauzatu ahal izateko, euri-uren kolektore bat instalatu beharko da ageriko gune batean (euri-ura modu eraginkorrean bildu ahal izateko). Kolektoreaz gain, euri-urak biltzeko tokia eta ur hori erabil dezaketen kontsumo-puntuetara eramango duen



banaketa-sistema ere behar dira. Euri-uren hustuleku moduan erabil daitezkeen puntuak dira komunak, garbiketa, ureztatze-lanak edo ura gizakion kontsumorako erabiltzen ez den puntuak.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren eremuan euria egiteko aukerak aztertzea, euri-ura biltzeko instalazioen kokapenaren eta iraupenaren arabera.
- Euri-ura kontsumitzeko puntu posibleak aztertzea.
- Euri-urak biltzeko sistemak instalatzea.



Ekitaldian bertan

- Euri-urak erabiltzea erabil daitezkeen puntuetan.



Ondoren

- Euri-urak ekitaldiaren garbiketarako erabiltzeko aukera.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ur-baliabideak zaintzen dira.



Natura-ingurunea eta biodibertsitatea babesten dira.



Uraren fakturan aurreztu egingo da.



Euri-urak biltzeko sistemak instalatzeak kostu gehigarria eragiten du.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Bertaratutakoei jakinarazi egingo zaie sareko uraren kontsumoa murrizteko ahalegina egin dela euri-urak biltzeko, biltegitratzeko eta banatzeko sistema baten bitartez eta euri-urak erabilia. Euri-urak aprobetxatzeko instalatu den azpiegituraren berri eta horrek guztiak dakartzan ingurumen-abantailen berri ere emango zaie.

Era berean, beste ur-iturri batzuen bitartez hornitzeko egindako ahaleginak bertaratutakoei jakinaraztearekin batera, ura aurreztea eta modu eraginkorrean erabiltzea oso garrantzitsua dela adierazten eta ikusarazten da. Esate baterako, komunetan eta ura kontsumitzen den beste toki batzuetan mezuak jar daitezke ur hori euri-ura dela adierazteko.

Adierazleak



Aprobetxatutako euri-uraren bolumena



Euri-uretatik datorren ur-kontsumoa

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri hau monitorizatzeko, erabilitako euri-uren guztizkoa kontabilizatu beharko da. Horretarako, euri-uren deposituaren irteeran ur-kontagailu bat jartzea nahikoa izango litzateke.



Urari dagozkion hobekuntza-jarduerak

3.5 Ur grisak berrerabiltzea

Deskribapena

Ur-kontsumoarekin loturiko ingurumen-inpaktuetako bat ur grisak sortzea da. Ur hori berrerabiltzea lagungarri izaten da ekitaldi batean ura aurrezteko eta ekitaldiaren inpaktua leuntzeko. Eta bertaratutakoak baliabide hori aurrezteko oso garrantzitsua dela kontzientziatzeko modu argi eta zuzena ere bada.

Ekitaldi batean sortzen diren ur grisak garbiketa-lanetatik, iturritik, catering-eko guneetatik edo hainbat establezimendutatik datoz.

Ur grisak berrerabili ahal izateko, isurketa horiek non sortzen diren aztertu beharko da, baita kontsumo-puntu posibleak zeintzuk diren ere. Kontsumo-puntu horiek lorezaintzako edo garbiketako lanak izan daitezke, edo komunak... baina gizakion kontsumorako direnak alde batera utzita.



Garrantzitsua da adieraztea edo gogoratzea ur grisak ez badira berrerabiltzen kudeatu egin behar direla, egoki kudeatu ere, udalaren saneamendu-sarera isuriz (beti ezin da egin) edo beste moduren batera, eta, beraz, ohikoak baino zailtasun handiagoak sor daitezkeela.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Aprobetxa daitezkeen ur grisak sortzen diren puntuak lokalizatzea.
- Ura metatzeko deposituak lokalizatzea.
- Ur grisak aprobetxatu ahal diren beste kontsumo-puntu batzuetara bideratzeko sistemak instalatzea.



Ekitaldian bertan

- Ur grisak berrerabiltzea hainbat puntutan: komunetan edo lorezaintzako lanetan.



Ondoren

- Ur grisak garbiketa-lanetan berrerabiltzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ur-baliabideak zaintzen dira.



Natura-ingurunea eta biodibertsitatea babesten dira.



Uraren fakturan eta uraren kudeaketan aurreztea.



Ura berrerabiltzeko sistema instalatzeak kostu gehigarria eragiten du.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Komunetan, dutxako edo txorrotetako soberako ura berrerabili egingo dela jakinaraziko zaie bertaratutakoei. Hartara, uraren balioari eta ekitaldiko antolatzaileek baliabide hori zaintzeko egindako ahaleginari balioa ematen zaio. Ur grisak berrerabilita ur-kontsumoa murrizteko antolatzaileek egindako lanaren berri bertaratutakoei ematen zaienean, sentsibilizazio-lan handia egiten da.

Izan ere, ura aurrezteko egindako ahaleginen berri bertaratutakoei ematea haiek sentsibilizatzeko modu oso eraginkorra da, ura baliabide eskasa eta garrantzitsua den aldetik. Esate baterako, komunetan eta ura kontsumitzen den beste toki batzuetan mezuak jar daitezke ur hori birziklatutako ura dela adierazteko.

Adierazleak

L Berrerabilitako ur grisaren bolumena

% Berrerabilitako ur grisetatik datorren kontsumoa

L Ur grisaren guztizko bolumena

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri hau ebaluatzeko, ur grisaren zenbat litro berrerabili diren zenbatu behar da.



Urari dagozkion hobekuntza-jarduerak

3.6 Hondakin-urak kudeatzea; in situ tratamendua edo kostu txikiko sistemak

Deskribapena

Ur-kontsumoarekin loturiko ingurumen-inpaktueta bat hondakin-uren tratamendua da. Ekitaldietan sortzen diren mota horretako urak bertaratutakoen kopuruaren, ekitaldiaren kokapenaren eta erabiltzen diren instalazio edo azpiegituren arabera dira. Horrek esan nahi du hondakin-urak ezin direla, inolaz ere, ingurumenera isuri aldezturik tratamendurik egin gabe; beraz, kudeaketa egokia eskatzen du eta, sortzen den bolumenaren arabera, beti ez da erraza izaten. Kostu energetiko txikiko arazketa-sistemak aukera bat izan daitezke hondakin-urak ingurumenera isuri baino lehen tratatzeko, kanpoko energia-ekarpen txikia edo nulua behar baitute.



Sistema horien bideragarritasuna –alderdi teknikoetik, ingurumenaren eta diruaren aldetik begiratuta– ebaluatu behar da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Hondakin-urak tratatzeko puntuak lokalizatzea.
- Kostu txikiko edo in-situ tratamendu-sistemak instalatzea.
- Tratatutako ura zein puntutan berrerabiliko den ebaluatzea eta lokalizatzea.
- Udalaren saneamendu-sarera edo kolektorera isuri ahal izateko lizentziak, baimenak lortu behar dituzten operadoreak, kudeatzaileak edo administrazio eskudunak identifikatzea.

Ekitaldian bertan

- Leheneratutako urak berrerabiltzea lorezaintzako lanetan, esaterako.
- Konexioetan, biltegitratzeko tokietan edo deposituetan urraturik ez dagoela egiaztatzea, gorabeherak prebenitzea ur mota horren isuririk gerta ez dadin.

Ondoren

- Ekitaldian sortutako hondakin-urak kudeatzea.
- Sortutako hondakin-uren guztizko bolumena, informazioa erregistratzea, baita egindako tratamendu mota edo kudeaketa ere.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ur-baliabideak zaintzen dira.



Natura-ingurunea eta biodibertsitatea babesten dira.



Tratamendu-sistemaren instalazioan kostuak areagotzea.



Ureztatzeko ur-kontsumoan aurrezteak.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Hondakin-uren tratamenduari eta ekitaldiko antolatzaileek baliabide hori zaintzeko egindako ahaleginaren kudeaketa egokiari buruzko informazioa emango zaie bertaratutakoei. Izan ere, ura aurrezteko egindako ahaleginen berri bertaratutakoei ematea haiek sentsibilizatzeko modu oso eraginkorra da, ura baliabide eskasa eta garrantzitsua den aldetik.

Adierazleak



Tratatutako hondakin-uren bolumena



Urak inpaktu txikiko sistemekin edo in situ tratatzen al dira?



Hondakin-uren guztizko bolumena

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri hau ebaluatzeko, tratatutako ur litro guztiak zenbatu behar da.



Erosketak



Deskribapena

Ekitaldi bat antolatzeako produktu, zerbitzu eta azpiegitura ugari behar izaten dira eta, batzuetan, obrak ere egin behar direnez azpiegitura horiek lortzeko, ekitaldiaren ingurumen-aztarna handitu egiten da. Ekitaldiaren erosketekin lotutako ingurumen-inpaktuak murriztearren, erosketa berdea egiteko politika bat ezarri behar da; politika horretan, ohiko erosketa-irizpideez gain, hau da, prezioa, kalitatea eta ezaugarri teknikoak..., ingurumen-irizpideak ere txertatu behar dira, dela produktuaren mailan, dela hornitzailearen mailan. Erosketa eta kontratazio berdea prozesu bat da eta, prozesu horren bitartez, bizi-ziklo osoan ingurumen-inpaktu murriztua duten produktu eta zerbitzuak erosten dira, betiere oinarrizko erabilgarritasun berdina duten produktu eta zerbitzuekin alderatuta.

Erosketa berdearen politika finkatzeko garaian, aukera eta muga guztiak izan behar dira kontuan eta erakundearen balibideen arabera egingarrienak direnak hautatu. Jasangarritasun-irizpideak betetzen dituzten produktu eta zerbitzuak txertatzea prozesu mailakatua izango da, abiapuntuaren arabera, eta adierazi beharko ditu ezarpena arrakastatsu izan dadin zer urrats egin behar diren. Gidaren kapitulu honi modu erabat desberdinean ekin behar zaio ekitaldiaren antolatzailea edo jabea administrazio

pribatu bat denean edo kontratazio publikoa arautzen duen egungo araudia aplikatzen duen administrazio publiko bat denean. Arau horretan administrazio publikoek mugatzen zaie ekitaldiak antolatzearekin lotutako erosketak eta kontratazioak egiteko modua, eta erosketa eta kontratazio horietan ingurumen-irizpideak txertatzeko modua.

Jarraian landuko dugun informazioa ekitaldi jasangarri bat egin nahi duten erakunde guztiei zuzenduta dago baina kontratazio publikoa arautzen duen araudia bete behar duten administrazio publikoek bereziki kontuz ibili beharko dute zenbait kasutan, hala nola tokiko produktu edo hornitzaileak hautatzeko garaian. Behar izanez gero, administrazio publikoek horri buruzko informazioa eskatu ahal izango dute webgune honetako Erosketa publiko berdea atalean: www.ihobe.eus

Zerbitzu edo produktu mota bakoitzaren ingurumen-eskakizunak desberdinak dira. Hainbeste direnez, ezinezkoa da gida honetan kategoria guztiak biltzea eta, beraz, xehetasun-maila handiagoa lortzeko, goian aipatu dugun Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua kontsultatzea komeni da; eskuliburua ikuspegi publikotik begiratuta eginga dagoen arren, erabilgarria izan daiteke beti abiapuntuako informaziozat.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldirako egin behar diren erosketa eta kontratazioen inbentarioa egitea.
- Hornitzaile potentzialak identifikatzea.
- Erosketa- eta kontratazio-klausuletan txertatu beharreko ingurumen-irizpideak ezartzea.
- Ezarritako irizpideak betetzen dituzten hornitzaileak bilatzea.
- Irizpideak hornitzaileekin batera berregokitzea.
- Erosketak egiten dituztenek ekitaldiaren antolatzaileek edo jabeak ezarritako erosketa-politika betetzen dutela egiaztatzea.



Ekitaldian bertan



Ondoren

- Aplikatu den erosketa kontratazio berdearen politika berrikustea, hau da, egokia ote zen edo ekitaldiaren produkzio-fasean egiten diren erosketa-prozesuak hobetzeko elementuak erantsi behar ote diren.
- Erosketekin lotutako emaitzak hornitzaileei edo eremu horretan lan egiten duten hornidura-kateko eragileei jakinaraztea, egindako lanarengatik esker ona adierazteko eta emaitzetan partaide ere izan direla sentiarazteko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Hondakinen bolumena murrizten da.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira, dela fabrikazio-prozesuetan, dela garraioarekin lotuta.



Produktu berrerabilgarri gehiago erabiliz gero, erosketen bolumena txikiagoa da.



Garraioari lotutako kostuak murriztea.



Garbiketako eta hondakinen kudeaketako kostuak murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Erakundearen barruan erosketaren berdearen politika ezarri ostean, enpresako langile guztiei horren berri eman behar zaie, baita hornitzaile interesdunei ere.

Halaber, ohiko hornitzaileen eta beste enpresa batzuen artean ere zabaldu behar da erosketaren eta kontratazio berdearen politika berria, merkatuaren eskaintza zein den identifikatzeko, eta produktu eta zerbitzu berrietarako trantsizioa eta horien erosketaren ahalbidetzeko. Langileak erosketen ingurumen-inpaktuen gainean kontzientziatzeko, erakundeko kide guztiei dibulgazioko materiala banatzea komeni da; bertan azalduko da ekitaldian erosketaren eta kontratazio berdea aplikatzaren ingurumen-abantailak zeintzuk diren eta erakundearen ingurumen-hobekuntzan langileen inplikazioa zein garrantzitsua den.

Adierazleak

B/E

Erosketa eta kontratazio berdearen politika ezarri al da?

B/E

Langile guztiei eman al zaie ezarritako politikaren berri?

%

Ingurumen-irizpideak dituzten produktu eta zerbitzuak

Monitorizatzeko gomendioak

Estrategia hau nola gauzatzen den monitorizatzeko, erakundeko kide guztiek ezarritako irizpideen berri badutela ziurtatu behar da, bereziki, erosketen arduratzen direnek. Ingurumen-irizpideak txertatzeaz arduratzen denak ziurtatu behar du erosketen ezarritako erosketaren-estrategiaren arabera egiten direla.



Deskribapena

Erosketak egiteko prozedurek garrantzi oso handia dute ekitaldiaren antolaketan, horien arabera kontratatzen baitira zerbitzuak eta erosten baitira ekitaldia behar bezala garatzeko beharrezkoak izango diren produktu guztiak. Erosketak ekitaldiaren premietara egokitzea garrantzitsua da, gairadimentsionamendurik gabe. Ekitaldiaren premiak zeintzuk diren zenbat eta hobeto jakin, orduan eta gehiago aurreztuko da antolaketarako baliabide material eta ekonomikoei dagokienez, eta orduan eta txikiagoa izango da lotutako ingurumen-inpaktua. Produktu galkorren kasuan bereziki garrantzitsua da.

Ekitaldiko erosketen plangintza egokia egiteko, honako alderdi hauek izan behar dira kontuan:

- **Ekitaldiaren tipologia:** Ekitaldiaren berezitasunen arabera, zerbitzu eta produktu batzuk ala besteak behar izango dira, ekitaldiaren premiekin bat datozenak.

- **Ekitaldia egiteko tokia:** Ekitaldiaren kokapenak eragin oso handia izango du ekitaldiaren premietan, batik bat, ekitaldia aire zabalean egiten bada.

- **Bertaratutako kopurua:** Erosketen bolumena bertaratutako kopuruarekin loturik dago zuzenean; zenbat eta jende gehiago izan, orduan eta produktu eta zerbitzu gehiago beharko dira.

- **Ordutegia:** Ekitaldia egiteko orduaren arabera, produktu eta zerbitzu gehiago ala gutxiago behar izango dira; izan ere, parte-hartzaileen kontsumoa areagotu egiten da ordu jakin batetik aurrera, bereziki, elikagai gehien kontsumitzen diren orduetan.

- **Iraupena:** iraupen luzeagoko ekitaldietan, oro har, produktu gehiago behar izaten dira.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren tipologia identifikatzea.
- Egiteko tokia aztertzea.
- Ekitaldiaren kontratazio- eta erosketa-premiak identifikatzea.
- Ekitaldia egiteko beharrezkoak diren produktuen eta zerbitzuen kopurua kalkulatzeko.



Ekitaldian bertan

- Erositako produktuen eta kontratatutako zerbitzuen kopuruak kontrolatzea eta jarraipena egitea, ekitaldia egitean sortzen diren hornidura-premiak betetzen direla ziurtatzeko.



Ondoren

- Soberako erosketen edo materialaren inbentarioa egitea, produktu eta zerbitzuen hornitzaileei informazioa eskatzea egiaztatuzko planifikaturakoarekin edo kalkulaturakoarekin ekitaldiaren garapenean izandako eskaera bete den.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira erosi ez diren produktuak direla eta.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Sortutako hondakinen bolumena murrizten da.



Erosketak ekitaldiaren premietara egokituz gero, kontratazioaren eta erosketen kostuak murrizten dira.



Garbiketako, hondakinak kudeatzeko eta garraiatzeko kostuak murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren premiak aztertzeko garaian, inplikaturako eragile askorekin (parte-hartzaileekin, hornitzaileekin, zerbitzu-enpresekin...) jarri behar da harremanetan euren jarduerak garatzeko zer elementu behar izango dituzten jakiteko.

Lehenengo komunikazio-fase honetan, ekitaldiaren ingurumen-helburuak zeintzuk diren jakinaraztea komeni da, baita helburu horiek betetzeko zer neurri landuko diren ere.

Komunikazio posta elektronikoz, telefonoz edo bideokonferentziaz egin daiteke, baina ahal dela paperik erabili gabe.

Adierazleak

B/E Erosketak ekitaldiaren benetako premiekin bat etorri al dira?

Kg Erosketen kopurua edo soberakinak, produktu motaren arabera

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen ezarpen-maila neurtzeko, ekitaldiaren premiak aztertu ote diren egiaztatu behar da eta, ekitaldia amaitutakoan, soberako zenbat produktu geratu diren kuantifikatu.



Deskribapena

Ekitaldiak iragankorrak izaki, behin erabiltzeko produktu ugari kontsumitzen dira. Horrelako produktuek lehengaien kontsumo handia eta atmosferara egindako emisio ugari eragiten dituzte garraioarekin loturik, baina hori ez da eragiten duten ingurumen-inpaktu bakarra; izan ere, horretaz gain, hondakinen bolumen oso handia ere sortzen dute, baina oso erraz saihesteko modukoa da hori.

Hondakinik onena sortzen ez dena denez, behin erabiltzeko produktuen ordez berrerabilgarriak erabiliz gero, ekitaldian sortutako hondakinen bolumena txikiagoa izango da.

Beste ekitaldi batzuetan edo hurrengo edizioetan berrerabil daitezkeen produktuei lehentasuna ematea garrantzitsua da, erabili eta botatzeko produktuak ez erabiltzearen. Hartara, kontsumitutako materialen kopurua ez ezik, sortutako hondakinen kopurua ere murriztuko da, ingurumen-inpaktua ere txikiagoa izanik.

Erabili eta botatzeko materialak erabiltzearekin lotutako inpaktua murriztu ahal izateko, ez da aski produktu berrerabilgarriak erostea, baizik eta produktu horiek gerora berrerabiltzeko berreskuratzen direla ziurtatu behar da.

Produktu berrerabilgarriak egiteko energia eta material gehiago behar izan daiteke; beraz, hainbat aldiz erabili behar dira berrerabilgarrien erabilerak erabili eta botatzeko produktuen erabilerak baino inpaktu txikiagoa izan dezan.



Antolatzaileek lehentasuna eman diezaioките produktu berrerabilgarriak erosteari, eta produktu horiek berreskuratzea eta berrerabiltzen direla ziurtatzeko sistemarik egokiena ezar dezakete. Horretarako, pizgarriak ezartzea garrantzitsua da bertaratutakoek parte hartu eta lagun dezaten.

Neurri honen bitartez produktu berrerabilgarriak erostea sustatzen da, baina horren osagarri, antzeko ekitaldietako edo aurreko edizioetako material edo produktuak berrerabiltzeko gomendioa eman daiteke eta, hartara, erosketekin lotutako inpaktua murrizten da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Produktu berrerabilgarriak hautatzea ahal den guztietan.
- Kontrol-sistema bat planifikatzea materialak itzultzen direla eta berrerabiltzen direla ziurtatzeko.



Ekitaldian bertan

- Bertaratutakoei produktu berrerabilgarriak nola erabili behar dituzten jakinaraztea.
- Produktu berrerabilgarriak benetan itzultzen ari direla kontrolatzea.
- Ahal den guztietan, bertaratutakoei emandako materialak minimizatzea.



Ondoren

- Itzultako material berrerabilgarriak jaso eta biltegitratzea.
- Itzultako materialaren kopurua eta egoera ebaluatzea.
- Jaso eta biltegitratutako materiala hurrengo ekitaldietarako aintzat hartzen dela ziurtatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Produkzio-prozesuekin lotutako energia-kontsumoa txikiagoa da.



Hondakinen bolumena murrizten da, bereziki, produktu plastikoena.



Ez badira behar adina aldiz erabiltzen, inpaktu handiagoa izan dezakete.



Epe luzera dirua aurrezten da. Garbiketako eta hondakinen kudeaketako gastuen murrizketa.



Hasierako inbertsioa handiagoa da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Bai antolakuntzako kideek, bai langileek materialak berrerabiltzeko sistema nolakoa den jakin behar dute, produktuak behar bezala kudeatu ahal izateko.

Produktuen salmentak itzulketa-sistema bat ezarriz gero, sistemak nola funtzionatzen duen ez ezik, sistemaren ingurumen-abantailen berri ere eman behar zaie bertaratutakoei. Sistemak behar bezala funtziona dezan eta bertaratutakoak erabili eta botatzeko produktuen erabilerak dakartzan inpaktu negatiboen gainean kontzientziazte aldera, ingurumen-sentsibilizazioko kanpaina bat egin behar da.

Kanpainaren helburuak ez du izan behar ekitaldian produktu berrerabilgarriak erabiltzea soilik, baizik eta parte-hartzaileen eguneroko bizitzan erosketak egiteko irizpideak aldatzea.

Adierazleak



Antolakuntzari itzulitako produktu berrerabilgarriak



Saihestutako hondakinen kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Antolatzaileek egindako ekintzak ebaluatzeko, erabili eta botatzeko produktuen orde z zenbat produktu berrerabilgarri erabili diren kuantifikatu behar da.

Era beran, neurri hau ezartzearen ondorioz sortu ez diren hondakinen kantitatea (Kg) ere kalkula daiteke.



Deskribapena

Ekitaldiaren hainbat fasetan sortutako hondakin asko erraz saihesteko modukoak dira.

Hondakinak sortzea erosketekin oso lotuta dago; hortaz, produktu eta zerbitzuen kontratazio eta erosketan ingurumen-irizpideak txertatuz gero, sortuko den hondakin bolumena txikiagoa izan daiteke.

Ahalik eta hondakin gehien murriztea lortzeko, hondakinaren prebentzioko politika bat ezarri behar da, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- **Murriztea:** Hondakinaren sorkuntza saihestea. Helburu hori betetzeko, erosketa berdearen irizpideak (banakako ontzi eta bilgarrien erabilera edo erabili eta botatzeko produktuen erabilera saihestea) ezartzea eta erosketak modu eraginkorrean egitea garrantzitsua da, gehiegizko

stock-a izatea saihestuz eta paperaren erabilera minimizatuz.

- **Berrerabilitzea:** Produktu bat hondakin bihurtzen dadin saihesteko gakoetako bat berrerabilitzea da; hartara, sortzen diren hondakinaren guztizko kopurua zuzenean gutxitzen da.

- **Birziklatzea:** Hondakin guztien sorkuntza saihestu ezinezkoa denez, bereizketa ongi egin behar da, birziklatzea eta hondakinak desagerraraztea ahalbidetzeko moduan.

Ekitaldi batean birziklatzen laguntzeko, antolatzaileek erositako produktu guztiak birziklagarriak eta/edo birziklatutako materialez egindakoak izatea ezinbestekoa da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Politika zehaztea eta inplikaturakoei jakinaraztea.
- Erosketetan esku hartzea, jatorrian hondakinik sor ez dadin.
- Hornitzaileekin eta hondakin-bilketaren arduradunarekin negoziatzea.
- Bertaratuak bereizketan inplikatzeo komunikazio-estrategia prestatzea.
- Antolakuntzako langile guztiei ematea ezarritako politikaren berri.



- Jatorrian sortzen diren hondakinak kontrolatzea, hau da, ekitaldiko langile eta boluntarioek hondakinak murrizteko zehaztutako politikak –ahalik eta hondakin gutxien sortzeari buruzkoak– aplikatzen dituztela egiaztatzea.



- Ekitaldian sortutako hondakin guztien jatorria identifikatzea eta noiz sortzen diren aztertzea, etorkizuneko edizioetan prebentzioa landu ahal izateko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira.



Solteko produktuak edo formatu handikoak erostea dirua aurrezteko modu bat da.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Sortutako hondakinen bolumena murrizten da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Garrantzitsua da langile guztiak jakinaren gainean egotea eta ekitaldia antolatzeko eta egiteko garaian ahalik eta hondakin gutxien sortzeko politikaren ezarpenean inplika daitezen lortzea. Horretarako barne-komunikazioko eta -koordinazioko lan handia eskatuko du. Ekitaldirako zehaztutako ingurumen-helburuak betetze aldera, aldez aurretik kontzientziazio-kanpaina egokia egitea izan daiteke neurririk onena, inplikaturako eragile guztiei ikusarazita euren laguntza ezinbestekoa dela.

Sentsibilizazio-lan hori ekitaldia baino lehen egin behar da, hitzaldi edo bideokonferentzien bitartez, edo formatu digitalean zabaldutako bideo edo mezuen bitartez.

Adierazleak

B/E

Ba al dago jatorrian ahalik eta hondakin gutxien sortzeko politikarik?

B/E

Langileei eman al zaie informazioa?

B/E

Behar bezala aplikatu al da?

Kg

Saihestutako hondakinen kopurua edo estimazioa

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen ezarpen-maila neurtzeko, jatorrian ahalik eta hondakin gutxien sortzeko politika ezarri ote den eta behar bezala aplikatu ote den identifikatu behar da.



Deskribapena

Ekitaldi bat egiteak lehengai ugariaren kontsumoa dakar. Sustapeneko eta komunikazioko zereginetarako, inprimatutako materiala behar izaten da eta horrek inpaktu handia eragin dezake euskarriari dagokionez (papera, PVCa, kartoia...), eta erabilitako tintei dagokienez. Horregatik, paper kopurua murriztu eta «zero papera» ekitaldia lortzeko bidean aurrera egiteko neurriak hartzea garrantzitsua da.

Helburu hori betetzeko modurik zuzenena inprimatzeko materialen ordez formatu digitalak erabiltzea da. Gaur egun, teknologia berriak gure eguneroko bizitzan txertatuta daudenez, ekitaldiaren komunikazioko eta hedapeneko zereginetarako erabil ditzakegu. Euskarri digitalak erabiliz gero, hondakinen bolumena eta materialen kontsumoa murrizteaz gain, papera eta tinta egitearekin lotutako prozesu kimiko kutsatzaileak eta energia-kontsumoa saihesten dira.

Hobe da ekitaldian ahalik eta material gutxien ematea eta parte-hartzaileei beren intereseko dokumentazioa deskargatzeko aukera eskaintzea.

Pertsona-talde jakin batentzat paperezko ale gutxi batzuk egitea erabakitzen bada, papera aukeratzekoan, diseinuan eta inprimatzean ingurumen-irizpideak kontuan hartu beharko dira, eta, halaber, dokumentazioa itzultzeko puntu bat ere finkatu beharko da, egoki irizitako moduan kudeatu ahal izateko.

Inprimatutako materiala minimizatzeko garaian, ekitaldiaren aurretik, bitartean eta ondoren erabilitako inprimatutako material guztiak hartu behar dira kontuan, bai kokalekuan bertan, baita kokalekutik kanpo ere.

Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Internet eta teknologia digitalak erabiltzea ekitaldia ezagutarazteko eta komunikazioak, izen-emateak edo dokumentazio-bidalketak egiteko.
- Bertaratutakoei dokumentuak eskaintzea webgunean edo mobile App-ean.
- Informazioa gailu elektronikoen bitartez deskargatzeko puntuak eta akreditazio/sarreraren sistema elektronikoa ezartzea.

Ekitaldian bertan

- Instalaturako gailuek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.
- Informazioa toki irisgarrietan argitaratzea guztiontzat, banaka egin beharrean.
- Boluntarioek/langileek ekitaldiari buruz eta ekitaldiko antolatzaileen ekintzei buruz jakin beharreko guztia badakitela ziurtatzea.

Ondoren

- Soberako materiala jasotzea.
- Soberako materiala birziklatzea edo biltegitratzea, motaren arabera.

Neurriaren inpaktu potentziala



Papera ekoiztearekin, inprimatzeko prozesuekin eta materiala bidali eta banatzearekin lotutako inpaktuak murrizten dira.



Inprimatzeko materialak egiteko beharrezkoak diren lehengaien, uraren eta energiaren kontsumoa txikiagoa izaten da.



Inprimatzeko materialen hondakinen bolumena murrizten da.



Inprimatzeko prozesuetan eta materialetan aurrezteak.

Paper-hondakinen kudeatzeko gastuen murrizketa.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Inprimatutako materialaren erabileran murrizketa handiena komunikazioaren atalean egin daiteke. Internet eta teknologia digitalak erabiltzea ezinbestekoa da ekitaldia ezagutarazteko, izen-emateak egiteko edo dokumentazioa bidaltzeko, betiere paperik gabeko ekitaldi bat lortze aldera.

Barne- nahiz kanpo-komunikazio guztiak posta elektronikoaren, bideokonferentzien edo paperik behar ez duten bestelako baliabideen bitartez egin behar dira.

Inplikaturako eragile guztiek parte har dezaten lortzeko, antolatzaileek ahalik eta paper gutxien erabiltzeko ezarri dituzten helburuak transmititu egin behar dira, ekitaldiaren aurretik. Paper-kontsumoaren murrizketa ez da soilik ekitaldietan aplikatzeko moduko neurria. Gure eguneroko bizitzak egunero erabiltzen ditugu saihestu zitezkeen inprimatzekoak.

Ekitaldiaren aurretik euskarri digitalen bitartez kontzientziazio-kanpaina egokia egitea da modurik egokiena egindako neurrien eraginkortasuna hobetzeko eta inprimatutako materiala murrizteko helburuetan arrakasta-maila handiagoa lortzeko.

Horrelako kanpainen bitartez, antolatzaileen minimizazio-helburuak betetzeko lagungarri izateaz gain, bertaratutakoen ohiturak aldatzea bultzatzen da, ekitaldiaren mugetatik haratago.

Adierazleak

Kg
Inprimatutako materialaren kantitatea bertaratutako lagun bakoitzeko

kop.
Baliabideen deskargak eta/edo webguneko bisitaldiak

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko, antolatzaileek prestatutako inprimatutako dokumentuen (diptikoak, liburuxkak, memoriak, mapak...) kopurua kuantifikatu beharko da eta deskargen kopuruarekin edo ekitaldirako prestatutako tresna teknologikoen erabilerarekin alderatu. Inprimatutako materialaren kuantifikazioari dagokionez, inprimatutako materialen pisua kuantifikatu beharko da, azaleraren eta gramajearen arabera.



Deskribapena

Ekitaldi bat egiteko beharrezkoak diren produktuak erosteko garaian eta salgaien garraioarekin lotutako inpaktua murrizte aldera, ekitaldia egingo den tokitik gertuen dauden hornitzaileei lehentasuna ematea komeni da.

Tokiko hornitzaileak hautatuz gero, garraioan atmosferara egiten diren emisioen inpaktua murrizten da eta kostuak ere txikiagoak dira.

Neurri honen onurak ez dira soilik ekitaldiko antolatzaileentzat, baizik eta inguruko ekonomia hobetzen ere laguntzen du; beraz, tokiko komunitateak ekitaldia gero eta gehiago onartzen du.

Hornitzaileak hautatzeko garaian, honako alderdi hauek balioetsi behar dira:

- **Gertutasuna:** Ekitaldia egingo den tokirainoko distantzia da garraioak eragiten duen inpaktuaren faktore erabakigarrienetako bat; hortaz, gertuen dauden hornitzaileei eman behar zaie lehentasuna.

- **Ingurumen-irizpideak:** Aukeran dauden hornitzaileen artetik, ingurumen-politikaren bat ezarrita duten edo euren produktuetan edo kudeaketa-sisteman ingurumen-ziurtagiriren bat edo bereizgarriren bat dutenak hautatu behar dira.

- **Prezioa:** Produktuak erostearen kostua alderdi garrantzitsua da, baina horrek ez luke izan behar erosketarako irizpide bakarra. Kostu ekonomikoa ez ezik, ingurumen-kostua ere balioetsi behar da.

Ekitaldi publikoetarako edo ekitaldiaren jabea edo antolatzailea erakunde publiko bat den kasuetarako, kontratazio publikoari buruzko legeak betetzen direla ziurtatu beharko da eta, esate baterako, tokiko produktu edo hornitzaileak hautatzeari bereziki erreparatu beharko zaio, gaur egungo kontratuei buruzko legearen lege-esparruan ezin izango bailitzateke hori eskatu.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren premiak aztertzea.
- Tokiko hornitzaileei lehentasuna ematea honako irizpide hauetan oinarrituta: gertutasuna, ingurumen-irizpideak eta prezioa.
- Gertutasunaren irizpidea sistematizatzea, erosketa-politikan txertatuta.



Ekitaldian bertan

- Bertaratutakoei produktuen jatorriaren berri ematea eta tokiko produktuei balioa ematea



Ondoren

- Tokiko hornitzaileak aztertzea eta haien lana berrikustea etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik begiratuta, hurrengo edizioetarako hornidura-katea hobetearren.

Neurriaren inpaktu potentziala



Erosketetako salgaien garraioarekin lotuta atmosferara egindako emisioak murrizten dira.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Garraioari lotutako kostuak murriztea.



Tokiko eta gertutasuneko merkataritza sustatzea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia baino lehen, hornigaiak erosteko eta zerbitzuak kontratatzeko ingurumen betekizunen berri eman behar zaie hornitzaileei. Ekitaldia egiten ari den bitartean, komeni da tokiko hornitzaileak hautatu izanak eragindako ingurumen-abantailen berri ematea bertaratutakoei.

Sentsibilizazio-eragile diren aldetik, antolatzaileek beren gain har dezakete dagokien erantzukizuna eta tokiko produktuak bereziki susta ditzakete, posizionamendu mesedegarrian jarrita edo eskaintza nahiz sustapenak eskainita.

Adierazleak

Km

Hornitzaileen
eta ekitaldiaren
kokalekuaren arteko
batez besteko distantzia

%

Tokian bertan
produzitutako
produktuen kopurua,
erosketen guztizkoari
dagokionez

Monitorizatzeko gomendioak

Hornitzaileak hautatzeko irizpideak neurtzearen, hornitzaileen zerrenda bat egin behar da eta ekitaldia egingo den tokiraino bakoitzak zenbateko distantzia duen adierazi behar da, baita erakundearen barruan ingurumen-irizpiderik ba ote duten ere.



Erosketei dagozkien hobekuntza-jarduerak

4.7 Produktuak hautatzean ingurumen-irizpideak txertatzea

Deskribapena

Ekitaldia egiteko beharrezkoak diren produktuak hautatzeko garaian, inpaktu txikiena dutenei emango zaie lehentasuna, betiere honako alderdi hauek aintzat hartuta: iraunkortasuna, fabrikazioan erabilitako material mota, eta produkzioko eta garraioko prozesuekin lotutako inpaktua.

Produktuen ingurumen-ebaluazioa Bizi Zikloaren ikuspegitik begiratuta egin behar da, hau da, etapa guztiak –lehengaiak erauzteko eta eraldatzeko etapa, produkzioko, garraioko eta banaketako etapa eta produktuaren azken prestakuntzako eta erabilerako etapa– barnean hartuta.

Produktuen ingurumen-bereizgarriak alderatzeko irizpideak zehaztu ahal izateko tresnetako bat produktuen ingurumen-irizpideen araberrako etiketatzea da (Europako Etiketa Ekologikoa, esaterako). Erakunde pribatu batek antolatu

edo babestutako ekitaldien kasuan, etiketadun produktuak eskatu ahal izango dira; ekitaldi publikoen kasuan, antolatzaileek Kontratu publikoei buruzko Legea bete behar dutenez, produktu baten ingurumen-bereizgarriak zehazte aldera, Lege horretan produktuaren kategoriarako ezarritako irizpideak har daitezke abiapuntutzat eta baldintza teknikoan agirietan txertatu. Ziurtagiri hori izatea har daiteke irizpideak betetzen direla egiaztatzeko bidetzat.

Produktu baten inpaktua balioesteko garaian ingurumen-alderdi adierazgarrienei buruzko informazio zehaztuagoa nahi izanez gero, «Ihoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua» kontsulta daiteke, batik bat, 69. orrialdea; webgune honetan dago eskuragarri: www.ihobe.eus

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren erosketen premiak aztertzea.
- Produktuaren ingurumen-irizpiderik ba ote dagoen kontsultatzea hainbat tresnatan, hala nola, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan.
- Baldintzen agiriko irizpideak betetzen dituzten hornitzaileak bilatzea.



Ekitaldian bertan

- Ezarritako erosketa-irizpideak jakinaraztea eta horien berri ematea bertaratutakoei, eta modu horretan erositako produktuak identifikatzea eta bereiztea, balioa emateko.



Ondoren

- Prozesua ebaluatzea eta ikaskuntzak formalizatzea.
- Lehentasunezko hornitzaileen zerrenda egitea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira.



Bizi-ziklo luzeagoa duten produktuek kostuak murrizten dituzte materialen erosketan.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Ingurumen-inpaktua txikiagoa da erositako produktuen Bizi Ziklo osoan.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren erosketa-premia guztiak aztertu eta ingurumen-irizpideak finkatu ostean, baldintza horiek guztiak betetzen dituzten hornitzaileak aurkitu behar dira. Hornitzaileekiko komunikazioa ahalbidetzearen eta eskatuko zaizkien produktuen ingurumen-ezaugarriak eskaintze aldera, betekizunen dokumentu bat idaztea komeni da, laburra eta antolaketako premiak zehazteko lagungarri dena.

Inpaktu txikiagoko produktuak erabiliz gero, ekitaldiaren ingurumen-aztarna murrizten da. Neurri hau bertaratutakoei transmititu dakieke mezuen edo irudien bitartez, ekitaldiaren hainbat fasetan eta, batik bat, horrelako produktuak dauden tokietan. Produktuen ingurumen-inpaktuaren gainean kontzientziaztea garrantzitsua da, bertaratutakoei dagokienez eta ekitaldiko hornitzaileei dagokienez.

Bertaratutakoei erosketekin lotutako ingurumen-inpaktuaren berri transmititzeko, sentsibilizazio-kanpaina bat egin daiteke eta ingurumen-portaera hobea duten produktuen ondoriozko hobekuntzak zeintzuk diren azaldu.

Adierazleak

B/E

Ingurumen-irizpideak finkatu al dira produktu gehienentzat?

%

Finkatutako erosketa-irizpideak betetzen dituzten produktuak

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldiko premiak ebaluatu ostean, erosi behar diren produktuen motak eta kopuruak zerrendatu behar dira. Eroskeko estrategia zehazteko garaian lehenetsuzko ingurumen-irizpideak finkatuko dira eta erosketen arduradunei horien berri eman behar zaie. Ekitaldia amaitutakoan, ezarritako irizpideak ez ezik, irizpide horiek bete zituzten produktuen ehunekoa zenbatekoa den ere ebaluatuko da.



Deskribapena

Ekitaldi bat antolatzean, erosketen atalean ez da sartzten soilik produktuak erostea; izan ere, ekitaldiko premia guztiak estaliko dituzten zerbitzu ugarien kontratazioa ere egin behar izaten da.

Ekitaldiaren tipologiaren eta magnitudearen arabera, hainbat zerbitzu kontratatu beharko dira: catering-a, garraioa, segurtasuna, argiak eta soinuak, garbiketa...

Zerbitzuan ingurumen-irizpideen arabera kontratatuz gero, bi dimentsio hauek hartu beharko dira aintzat: zerbitzuaren jardueran beharrezkoak diren produktu eta makinekin lotutako ingurumen-alderdiak, eta zerbitzua gauzatzeko baldintzak. Lehenengo dimentsioa honako jarduera honetan lantzen da: «Ingurumen-irizpideak produktuak hautatzean». Zerbitzua ezartzeari buruzkoan honako irizpide hauek hartu behar dira kontuan: kontratatutako enpresaren ingurumen-kudeaketa (ba al du Ingurumena Kudeatzeko Sistemei dagokien



ziurtagiririk?), langilean kontratazeko jardunbideak, hornitzailearen kokalekua eta abar.

Produktu eta zerbitzuen inpaktua balioesteko garaian ingurumen-alderdi adierazgarrienei buruzko informazio zehaztuagoa nahi izanez gero, Ihoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua kontsulta daiteke, batik bat, 69. orrialdea; webgune honetan dago eskuragarri: www.ihobe.eus

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiko kontratazio-premiak identifikatzea.
- Zerbitzu bakoitzaren kontratazio-klausuletan txertatu beharreko ingurumen-irizpideak ezartzea.
- Ezarritako irizpideak betetzen dituzten hornitzaileak identifikatzea.
- Kontratazioa gauzatzea.



Ekitaldian bertan

- Zerbitzua ematean, kontratatutako baldintzak betetzen direla ziurtatzea.



Ondoren

- Ekitaldia amaitutakoan, komeni da hornitzaileei informazioa eskatzea ekitaldian zerbitzua nola gauzatu den jakiteko. Datu horietan sartuko dira kontsumoak, sortutako hondakinak eta monitorizazioa egiteko baliatuko diren beste alderdi batzuk.

Neurriaren inpaktu potentziala



Kontratatutako zerbitzuen ingurumen-inpaktua murrizten da, baita ekitaldiaren inpaktu orokorra ere.



Lehengai gutxiago kontsumitzen dira zerbitzua modu eraginkorragoan gauzatzen denez.



Zerbitzu jasangarriagoak hautatzeak ez du zertan kostu handiagoa eragin.



Hondakinak behar bezala kudeatzen dituzten zerbitzuak kontratatuz gero, garbiketako eta hondakinak kudeatzeko kostuak txikiagoak dira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia baino lehen, ekitaldiaren jasangarritasun-helburuen arabera eskatuko diren ingurumen-betekizunen berri eman behar zaie zerbitzu-enpresei. Zeregin horretarako, ingurumen-irizpideak txertatuta dituzten erosketen baldintza-agiriak idaztea lagungarri izaten da hornitzaile potentzialekiko komunikaziorako.

Kontratatutako zerbitzuaren arabera, ekitaldiaren hainbat fasetan komeni da bertaratutakoei transmititzea zer ingurumen-abantaila sortu diren zerbitzuak jasangarritasun-irizpideei jarraikiz kontratatzean.

Zerbitzu-enpresen artean inplikazio-maila handiagoa lortze aldera, zerbitzuetan ingurumen-arloko jardunbide egokiak txertatzeak dakartzan abantailak transmititu behar zaizkie, eraginkortasuna hobetzen baita, kudeaketa-ereduari balio erantsia ematen baitio eta ingurumenarentzat mesede handiagoa eragiten baitu.

Adierazleak

B/E

Ingurumen-irizpideak finkatu al dira zerbitzuak kontratatzeke?

%

Ezarritako irizpideak betetzen dituzten zerbitzuak

Kontratatutako zerbitzuen guztizkoa

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldiko premiak ebaluatu ostean, kontratatu behar diren zerbitzuak zerrendatu behar dira. Erosteko estrategia zehazteko garaian lehenetsuneko ingurumen-irizpideak finkatuko dira eta kontratazioen arduradunei horien berri eman behar zaie. Ekitaldia amaitutakoan, ezarritako irizpideak bete zituzten zerbitzuen ehunekoa ez ezik, zerbitzuaren ingurumen-emaizak ere ebaluatuko dira. Azken hori egiteko, energiaren eta uraren kontsumoei buruzko datu zehatzak, erabilitako produktuak, zer garraiobide erabili den... galdetu beharko zaio hornitzaile bakoitzari.



Deskribapena

Ekitaldiaren tipologiaren eta berezko ezaugarrien arabera, hainbat elikagai mota erosi beharko dira. Nekazaritzaren inpaktuak askotarikoak dira tokiko mailan nahiz orokorrean. Oro har, nekazaritza modernoa hazkuntza azkarreko monolaborantzan oinarritzen denez, gero eta pestizida eta ongarrri gehiago erabili behar izaten dira; izan ere, monolaborantzan errazagoa baita izurriak zabaltzea eta lurzorua pobretu egiten baita mantenuaiegi dagokienez.

Jakien eta edarien eremuan ingurumen-aldagaia txertatzeko, produktuak hautatzeko garaian honako irizpide hauek kontuan hartzea komeni da:

- **Pestizida eta ongarrrien erabilera mugatzen duten produktuak erostea**, baita lurzorua kontserbatzeko jardunbideak aplikatzen dituztenak ere. Ezagunenak eta zabalduenak nekazaritza ekologikokoak eta produkzio integratukoak dira.

- **Sasoiko produktuak hautatzea.**

- **Bertako produktuak lantzen dituzten** tokiko hornitzaileak hautatzea.

- **Ur eta energia gutxiago kontsumitzen duten** ekipoak erabiltzen dituzten hornitzaileak hautatzea.

- **Animalia-jatorriko produktuen erabilera mugatzea** eta, nolana ere, produkzioan animalien ongizatearen goi-mailako estandarrak bete daitezela.

Jatetxe- eta catering-zerbitzuen inpaktua balioesteko garaian ingurumen-alderdi adierazgarrienei buruzko informazio zehaztuagoa nahi izanez gero, lhoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua kontsulta daiteke, batik bat, 195. orrialdea; webgune honetan dago eskuragarri: www.ihobe.eus.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Ekitaldiko elikagaien, edarien eta catering-eko premiak aztertzea erosketak optimizatu ahal izateko.
- Ingurumen-irizpideak finkatzea produktuak erosteko.
- Elikagaiak erostean hainbat aukera balioestea.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produktu eta hornitzaileak hautatzea.



- Zerbitzuaren jardunean hondakin gutxiago sortzea eta hondakin horiek egoki kudeatzea, gaikako bilketaren bitartez.
- Zerbitzatu diren jakien soberakinen ondoriozko hondakinak kontrolatzea.



- Sobera geratu den janaria elkarreei, GKEei, jantoki sozialei eta abarri ematea.
- Ekitaldian sortutako hondakin mota guztiak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira tokiko produktuak, sasoikoak eta baliabide gutxiago behar dituztenak erabiliz gero.



Zenbait kasutan, ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produktuak erabiltzeak produktuaren prezioan eragina izan dezake, kostuak areagotuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Elikadura-kateak ingurumen-inpaktu garrantzitsua eragiten du, baina kontsumitzaile guztiok ez gara horretaz jabetzen. Modu jasangarriagoan produzitutako elikagaiak hautatzea ingurumen-hobekuntzat har daiteke, eta bertaratutakoei horren berri eman dakieke. Hobekuntza hori elikagaiak kontsumitzen diren puntuetan ere adierazi behar da, mezu horiek indartuz eskaria sustatzeko. Elikagai jakin batzuei beste batzuen gainetik lehentasuna ematea ohikoa izaten da jende guztiaren eguneroko bizitzan. Ekitaldi baten testuinguruan informazioa eta kontsumo-aukerak eskaintzea lagungarri izan daiteke bertaratutakoak kontzientziatzeko erosketarekin lotutako ingurumen-inpaktuen gainean.

Elikagaien industriak dituen inpaktuen berri bertaratutakoei ematen bazaie mezuen, irudien edo tailerren bidez, ekitaldian gauzatutako neurrien pertzepzioa hobetzeaz gain, eguneroko bizimoduko portaeretan eragina izatea ere lor daiteke.

Adierazleak

B/E Ingurumen-irizpideak finkatu al dira jakiak eta edariak erosteko?

% Ingurumen-bereizgarria duten elikagaiak

Kg Botatako elikagaien kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen betetze-maila monitorizatzeko, erosketa-politikan finkatutako ingurumen-betekizunak betetzen ote diren balioetsiko da. Hautatutako produktuen ingurumen-ezaugarriak ebaluatuko dira, baita sobera geratutako produktuen kopuruak ere.



Deskribapena

Jatetxe- eta catering-zerbitzu jasagarrienen bi ikuspegitik begiratuta lantzen dute ingurumen-hobekuntza: lehengai jasagarriagoez hornitzea eta jardunbide egokiak ezartzea kudeaketan eta zerbitzuen jardueran. Hornitzaile jasagarriagoak hautatzeko garaian, kontratazioaren baldintza-agirian honako irizpide hauek txertatzea komeni da:

- Inpaktu **txikiko produktuekin egindako menua** hautatzea, inguruko sukaldaritzaren ezaugarriekin bat datorrena.
- Berrerabil daitezkeen **produktuak erabiltzea** ahalik eta hondakin gutxien sortzeko. Erabili eta botatzeko produktuak erabiltzea ezinbestekoa bada, produktu biodegradagarriak, konpostagarriak edo inpaktu txikiko materialekin –papera eta kartoia– egindakoak lehenetsiko dira.
- **Garraiobide jasagarrienak** erabiltzen dituzten hornitzaileak hautatzea.

- Zerbitzuan **ahalik eta hondakin gutxien** sor daitezen sustatzea eta hondakin horiek egoki kudeatzea, gaikako bilketaren bitartez.
- Jardunbide **egokiak** eta prozedura egokiak ezartzea, beharrezkoak ez diren hondakinak sortzea eta baliabideen kontsumoa saihestuz.
- Produktuak manipulatzear, **makinak erabiltzeaz** eta hondakinak gaika biltzeaz arduratuko direnei prestakuntza-prozesu baten bermea ematea.
- **Inpaktu txikiko** garbiketako produktu eta tresnak erabiltzea.

Jatetxe- eta catering-zerbitzuen inpaktua balioesteko garaian ingurumen-alderdi adierazgarrienei buruzko informazio zehaztuagoa nahi izanez gero, lhoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua kontsulta daiteke, batik bat, elikagaiei buruzko kapitulua; webgune honetan dago eskuragarri: www.ihobe.eus.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Jatetxe- eta catering-premiak aztertzea.
- Zerbitzuak kontratatzekeo garaian eskatu beharreko irizpideak identifikatzea.
- Produktuen eta zerbitzuen aukera guztiak balioestea.
- Inpaktu txikieneko zerbitzuak kontratatzea.
- Ingurumen-inpaktu txikiko menua hautatzea.
- Langileek ingurumen-prestakuntza egokia dutela ziurtatzea.



Ekitaldian bertan

- Jarduerak egiteko garaian, alde aurretik erabakitako eta ingurumena errespetatzen duten jardunbide eta prozedurei jarraikiz egiten direla ziurtatzea.
- Zerbitzuan ahalik eta hondakin gutxien sortzen direla eta hondakin horiek egoki kudeatzen direla ziurtatzea, gaikako bilketaren bitartez.
- Zerbitzatu diren jakien soberakinen ondoriozko hondakinak kontrolatzea.



Ondoren

- Soberako janaria pobreziaren aurkako borrokan jarduten duten tokiko elkarteei ematea.
- Ekitaldian sortutako hondakin mota guztiak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira.



Sortutako hondakinen bolumena murrizten da.



Uraren eta energiaren kontsumoa murrizten da.



Batzuetan, hornitzaileekin ingurumen-arloko irizpide zorrotzagoak betetzeko negoziazioaren ondorioz, zerbitzuaren prezioa negoziatzeko ahalmena txikiagoa izaten da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Kontsumitutako jaki eta edarien ondoriozko ingurumen-inpaktua ez da produkzioan eta garraioan soilik gertatzen. Zerbitzu eraginkorra hautatzea, hau da, hondakinak ongi kudeatzen dituen eta jardunbideetan ingurumen-irizpideak txertatzen dituen, lagungarri izaten da ekitaldiaren ingurumen-hobekuntzarako, eta bertaratutakoei horren berri eman behar zaie.

Catering-zerbitzuko motaren bat eskaintzen duen ekitaldi baten ingurumen-inpaktua kalkulatzeko, hornitzaileak hainbat datu bildu beharko ditu. Prozesu hori arintzearen, zeregin hori baldintzen agirian txertatzea eta tresnak eskaintzea komeni da, hala nola, Datuak Biltzeko Formularioa, ingurumen-datu garrantzitsuak antolatzaileei transmititzea ahalbidetzen baitute.

Adierazleak

B/E

Ingurumen-irizpideak finkatu al dira jatetxe- eta catering-zerbitzuak kontratatzeko?

B/E

Inpaktu txikiko sukaldeko tresneria erabili al da?

B/E

Zerbitzuak ba al du ingurumen-kudeaketarako sistemarik?

%

Honako baldintza hauek betetzen dituzten produktuak: tokiko produktua, sasoiko produktua eta inpaktu txikiko produktua

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen garapena monitorizatzeko, hornitzailearen kontratazioan finkatutako betekizunen betetze-maila ebaluatuko da. Eskainitako jaki eta edarien ezaugarriak ez ezik, zerbitzuaren eta ondoriozko jardueren –hala nola, garbiketa– ingurumen-kudeaketa ere balioetsiko da.

Menuan eskaintzen diren produktuei buruzko informazioa, produktu horien jatorria eta ezaugarriak, eta kudeaketa-jardunbideen gaineko informazioa sartu beharko dira Ekitaldien Ingurumen Inpaktuaren Kalkulagailuan. Horretarako, hornitzaileak informazioa bildu eta eskaini beharko du.



Deskribapena

Ekitaldi bateko garbiketa-zerbitzuetan sartzen dira bai garbiketako ohiko jarduerak, bai botatako hondakinak biltzea, baita beharrezkoak diren higie- eta garbiketa-produktu eta materialez hornitzea ere.

Ingurumenaren gaineko inpaktu txikiagoa dakarren garbiketa egite aldera, honako hauek egitea komeni da:

- Zereginak eta zeregin horien maiztasuna benetako premien arabera egokitzea.
- Erabilitako produktu kimikoen karga toxikoa murriztea, eta produktu biodegradagarriak eta ingurumena gehiago errespetatzen dutenak hautatzea. Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu «Ingurumen-irizpideak produktuak hautatzean» jarduketara.

- Jasangarritasun-irizpideak hautatzen dituzten garbiketako tresnak erabiltzea (adibidez, mikrozuuntzeko zapiak erabiltzea ohikoen orde).

- Zerbitzuan hondakin gutxiago sortzea eta hondakin horiek egoki sailkatu eta kudeatzea.

- Garbiketako eta zerbitzua antolatzeko prozedurak hautatzeko garaian, ura eta energia aurrezteko ahalbidetzen dutenak hautatzea.

Garbiketako produktu eta zerbitzuen inpaktua balioesteko garaian ingurumen-alderdi adierazgarrienei buruzko informazio zehaztuagoa nahi izanez gero, lhoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua kontsulta daiteke; webgune honetan dago eskuragarri: www.ihobe.eus

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiko garbiketa-premiak kalkulatzeko.
- Ingurumen-irizpideak finkatzea eta baldintza-agirian txertatzea.
- Lehen deskribatutako jasangarritasun-irizpideak betetzen dituen garbiketa-zerbitzua hautatzea.
- Garbiketako arduradunek ingurumen-arloko prestakuntza jaso dezatela sustatzea.



Ekitaldian bertan



Ondoren

- Hondakinak egoki sailkatu eta kudeatzea.
- Hornitzaileei informazioa eskatzea ekitaldian zerbitzua nola gauzatu den jakiteko. Datu horietan sartuko dira kontsumoak, sortutako hondakinak eta ekitaldia monitorizatzeko bilduko diren beste alderdi batzuk.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ingurumen-inpaktua murrizten da ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak erabilia.



Uraren kontsumoa murrizten da.



Energiaren kontsumoa murrizten da.



Lehengaien kontsumoa murrizten da, garbiketa-produktuak modu eraginkorragoan erabilia.



Dirua aurreztea uraren eta energiaren kontsumoa murriztearen ondorioz.



Garbiketa-zerbitzu eraginkorragoa lortzeko, lan-ordu gutxiago sartu behar dira eta, beraz, kostuetan aurreztu egiten da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Garbiketa-jarduerak ingurumen-inpaktua dakarte, produktu kimikoak erabiltzen direlako eta baliabideak –hala nola, ura– kontsumitzen direlako; hortaz, garrantzitsua da garbiketa-lanak egingo dituztenak sentsibilizatuta egotea beren jardueraren inpaktuaren gainean. Halaber, garbiketaz arduratuko diren kide guztiek izan behar dute ekitaldiaren ingurumen-helburuen berri eta inpaktua murrizteko ezarritako neurrien berri.

Ekitaldiaren ingurumen-betekizunak transmititze aldera, funtsezkoa da ingurumen-irizpideak txertatuta dituen baldintza-agiria idaztea. Bestalde, garbiketan inplikaturako kideek berariazko prestakuntza jasotzea oso garrantzitsua izango da, beren zeregina egiten dutenean zeregin horrek dakarren ingurumen-inpaktuaren jakitun izan daitezen eta inpaktu hori murriztu dezaten, jardunbide egokiak ahalik eta gehien ezarrita.

Adierazleak

B/E

Ingurumen-irizpideak finkatu al dira garbiketa-zerbitzuak kontratatzeke?

B/E

Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten garbiketa-produktuak erabili al dira?

%

Garbiketa-produktu jasagarriagoen kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen ezarpenaren eraginkortasuna ebaluatzeko garaian adierazlerik garrantzitsuenak honako hauek dira: garbiketa-lanetan egindako kontsumoak eta produktuak ingurumen-irizpideen arabera hautatzea. Ez bada garbiketa-zerbitzurik kontratatu eta garbiketa-lanak boluntarioek edo arloarekin loturarik ez dutenek egin badituzte, eginkizun hori behar bezala betetzeko beharrezkoa den ingurumen-prestakuntza jaso ote duten adieraztea komeni da.



Erosketei dagozkien hobekuntza-jarduerak

4.12 Inprimatzeko produktu eta zerbitzuen erosketak berdea

Deskribapena

Ekitaldi bat egiteko, inprimatzeko materialak kontsumitu behar izaten dira normalean, antolatzaileek egindako sustapeneko eta komunikazioko jarduerekin, babesleen publizitatearekin eta ekitaldiko jardueri euskarria eskaintzearekin lotuta. Inpaktu hori murriztearren, antolatzaileek ekitaldian papera (eta inprimatutako materiala) ezabatzeko trantsizio-bideari ekitea erabaki dezakete (ikus «Ahalik eta material gutxien inprimatzea»). Inprimatzea saihestu ezin den kasuan, inprimatze-zerbitzua kontratatzeke honako ingurumen-irizpide hauek kontuan izatea gomendatzen da:

- Offset inprimatze-metodoak **lehenestea inprimatze digitalaren** ordez ale asko inprimatu behar direnean.
- **Birziklatutako** papera eta/edo **produktua ingurumen-irizpideen arabera etikatzeko** sistema baten bitartez (Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria, FSC eta abar) ziurtatutako papera erabiltzea.
- Metal astunen **100 ppm** baino kontzentrazio handiagorik ez duten tintak eta tonerrak erabiltzea.
- Landare-jatorriko **tintei lehenetasuna ematea**.
- **Ahal den heinean**, hainbat akabera saihestea, hala nola plastifikatzea eta disolbatzaileak dituzten bernizak.

- Inprimatze-zerbitzua **hautatzean**, energiaren aldetik eraginkorragoak diren makinak erabiltzen dituen bat hautatzea.

- **Paperaren gramajea** egin beharreko material motaren arabera egokitzea (liburuxkak, diptikoak, kartelak eta abar).

- Ekodiseinuko estrategiak **aplikatzea** sortutako materialetan (saihestu orri zuriak eta beharrezkoak ez diren marjinak, egokitu leading-a eta abar).

- Inpaktu txikiagoa duten, birziklatutako materialekin egindakoak diren eta/edo, ahal izanez gero, ekoetiketaren bat duten inprimatzeko material edo artikulua hautatzea. Plastikoen kasuan, halogenatuekin egindakoak saihestu behar dira, eta birziklatutako plastikoaren ehuneko bat dutenak eta/edo I motako etiketa dutenak –Aingeru Urdina, esaterako– identifikatu.

Inprimatzeko artikulua eta zerbitzuen inpaktua balioesteko garaian ingurumen-alderdi adierazgarrienei buruzko informazio zehaztuagoa nahi izanez gero, Ihoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua kontsulta daiteke; webgune honetan dago eskuragarri: www.ihobe.eus.

Zereginak eta inplikatutako eragileak



Aurretik

- Inprimatutako material ahalik eta gutxien erabiltzea eta horien ordez baliabide digitalak, zuzeneko arretakoak eta abar erabiltzea.
- Egindako materialetan ekodiseinuko estrategiak aplikatzea.
- Zerrendatutako jasangarritasun-irizpideak betetzen dituzten inprimatze-artikuluak eta hornitzaileak hautatzea.



Ekitaldian bertan



Ondoren

- Berrerabil daitezkeen inprimatzeko materialak biltzeko mekanismoak ezartzea.
- Etorkizunean berriz erabil daitezkeen elementu berrerabilgarriak biltegitratzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jauritzen dira.



Tintak eta inprimatzeko artikulua produzitzeko prozesuarekin lotutako inpaktua txikiagoa da.



Sortutako hondakinen bolumena murrizten da.



Lehengaien –papera edo tintak, kasu– kontsumoa murrizten da.



Inprimatze-kostuetan aurrezteak, ahalik eta inprimatutako material gutxien erabiltzen denez.



Materialen garraioarekin lotutako kostuak murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldi baten faseetan inprimatzeko artikulua erabiltzen dira eta artikulua horiek produzitu egin behar dira, horrek dakarren inpaktu eta guzti. Ekitaldiaren ingurumen-helburuetako bat, maila honetan, inprimatutako materiala ahalik eta gutxien erabiltzea izan daiteke. Inplikaturako eragile guztiei jakinarazi egin behar zaie ekitaldiaren helburuetako bat papera murriztea dela, eta inprimatze-zerbitzuren bat kontratatu edo artikuluren bat egin behar izanez gero, aplikatu beharreko ingurumen-irizpideak zeintzuk diren transmititu behar zaie.

Sponsor eta babesle guztiak kontzientziatuz gero publizitate mota horrek dakarren inpaktuaren gainean, jardunbide horien orde ingurunea gehiago errespetatzen duten beste baliabide batzuk erabiltzeko ekarpena egin daiteke. Horrelako jardunbideei aurre egiteko, komeni da babesleei jakinaraztea badagoela beste publizitate-metodo batzuk erabiltzeko aukera edo badirela inpaktu txikiagoko inprimatzeko metodo eta artikulua. Inprimatze-artikulu handiak, bereziki, publizitaterako erabiltzen diren plastikozko olana handiak erabiltzea izaten da ekitaldian plastikozko hondakinen iturri nagusietako bat.

Adierazleak

B/E

Birziklatutako papera, ingurumen-ziurtagiria duena edo inpaktu txikiagoa erabili al da?

B/E

Ingurumen-inpaktu txikiagoa tintak erabili al dira?

B/E

Inprimatze-sistema eraginkorra erabili al da?

%

Inpaktu txikiagoko inprimatze-materialaren kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen betetze-maila monitorizatzeko, hautatutako hornitzaileak gomendatu zaizkion betekizunak betetzen ote dituen balioetsiko da. Hornitzailearen ingurumen-kudeaketa balioestearren, hornitzaile horrek antolamenduan ingurumen-kudeaketako sistemaren bat eta/edo ingurumen-politikaren bat ba ote duen egiazta daiteke.



Deskribapena

Merchandising terminoan biltzen dira enpresa batek eskaintzen dituen produktuak, bere markaren euskarri moduan eta sustapenerako erabiltzen dituenak. Ehun-gaiak izan daitezke, hala nola, txanoak, motxilak eta elastikoak, edo bulegoko materiala, edo osagarri teknologikoak.

Merchandising produktuen inpaktua hainbat irizpideren arabera izan daiteke: hautatutako produktu mota, hautatutako hornitzailea, erabilitako materialak, erabilitako bilgarriak, fabrikazio-prozesua eta ekitaldiaren tokirainoko garraioa. Ekitaldiko merchandising-a hautatzeko garaian txertatu beharreko ingurumen-irizpide orokorrak bat datoz «Ingurumen-irizpideak produktuak hautatzean» jarduketan zerrendatutakoekin.

Ekitaldietako merchandising moduan ehun-gaiak erabiltzen direnez, oro har, jarraian, horrelako produktuak hautatzeko garaian gomendagarriak diren jarraibide osagarriak deskribatuko ditugu:

- **Produktuen kopurua** benetako premiekin bat etortzea, soberakinik izan ez dadin.

- Birziklatutako eta/edo **jatorri naturaleko** ehunak erabiltzea, eta lehentasuna ematea nekazaritza ekologikotik edo produkzio integratutik datozenei.

- Jatorri sintetikoak duten **zuntzak baztertzea**, polimero plastikoetatik datozenen barruan.

- **Substantzia kaltegarriak** kontrolatzeko OEKO-TEX 100 etiketa duten produktuak hautatzea.

Eskuz egindako produktuak eta/edo tokian produzitutakoak hautatzea.

- Produktuaren ingurumen-etiketa duten **produktuak hautatzea**, hala nola: Beltxarga Zuria eta Europako Etiketa Ekologikoa; zuntzen jatorriari dagozkion etiketak dira.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Sustapeneko beste jarduera batzuk egiteko aukera aztertzea, merchandising-aren ordez.
- Benetako premiak aztertzea, produktuak sobera geratzea saihestuta
- Produktuen hainbat aukera aztertzea eta lehentasuna ematea energiari erabiltzen ez dutenei, tokiak egindakoei, material berriztagarriak erabiltzen dituztenei, birziklatutako materialarekin egindakoei eta/edo inpaktu txikikoei...



Ekitaldian bertan



Ondoren

Neurriaren inpaktu potentziala



Produktuen fabrikazioarekin eta garraioarekin lotutako inpaktua murrizten da.



Lehengai gutxiago kontsumitzen dira, produktuen erosketa hobeto doituaz gero.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Enpresa batek banatzen dituen merchandising-eko produktuak ekitaldien, enpresen eta lotutako marken aurkezpen-gutun bihurtzen dira. Marken balioak produktuen ezaugarriekin lotuko dira produktuen bizi-ziklo osoan. Horregatik, biziki garrantzitsua da ekitaldiaren balioekin bat datozen produktuak hautatzea, ekitaldien gauzatze fisiko bihurtzen baitira. Ingurumen-ezaugarri hobeak dituzten produktuak banatzea ekitaldiak bereizteko aukera bat izaten da, baita parte-hartzaileek esperientzia hobe bizitzeko aukera ere.

Adierazleak

B/E

Merchandising-eko produktuek betetzen al dute ezarritako ingurumen-irizpideren bat edo batzuk?

Kg

Soberako produktuen kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri hau monitorizatzeko, merchandising-eko erosketetarako finkatutako ingurumen-irizpideen betetze-maila ebaluatuko da.



Erosketari dagozkien hobekuntza-jarduerak

4.14 Erakusketarien konpromisoa - erakusketarientzako ingurumen-jokabideko irizpideak finkatzea

Deskribapena

Ekitaldi baten barruan egiten diren jardueren artean, baliteke gune bat egotea enpresa, erakunde edo elkarteek erakusketa jartzeko. Oro har, erakustegi horietan euren jarduerak eta helburuak zeintzuk diren azaltzen dute eta, horretarako, hainbat egitura eta materia lagungarri izaten dituzte (arkitektura iragankorreko elementuak, ofimatika, pantailak, komunikaziorako euskarriak eta abar) eta, ziurrenik, banatzeko materiala ere bai (diptikoak, triptikoak, txostenak, merchandising-a eta abar). Bi kasuetan, baliabideen kontsumo handia eta hondakin asko sortzea eragin dezake horrek, dela erabilera mugatuko egitura iragankorrak direlako, dela bertaratutakoei ematekoak diren materialen kopuru handiagatik.

Ekitaldiko antolatzaileek erakusketariei zuzendutako ingurumen-jokabideari buruzko politika bat ezar dezakete, hainbat irizpide



eta/edo jardunbide egoki biltzen dituen eta bete egin beharko dutena (adibidez, egitura berrerabilgarriak, material digitalak eskaintzea, inprimatutako material ahalik eta gutxien banatzea eta abar). Erakusketariek politika horrekiko konpromisoa formalki adieraztea gomendatzen da, betiere ezarritako irizpideak bete ditzaten.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Erakusketariei zuzendutako ingurumen-jokabideari buruzko politika zehaztea.
- Erakusketariei zer irizpide bete behar dituzten jakinaraztea eta irizpideak onartzen dituztela formalki adieraztea.



- Erakusketarien jarduna egokia dela ziurtatzea, finkatutako irizpideei jarraikiz.



- Erakusketarien egiturak behar bezala desmuntatzen direla ziurtatzea, etorkizuneko ekitaldietan berrerabili ahal izateko.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ekitaldian sortutako hondakinen bolumena murrizten da.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Berrerabilitako materiala, beste edizio batzuetakoa edo antzeko ekitaldietako materiala erabiliz gero, dirua aurrez daiteke.



Elementuak desmuntatzean etorkizunean erabili ahal izateko moduan egin behar da eta, horregatik, lan horiek konplikatu edo luzatu egin daitezke denboran; horren ondorioz, kostua handixeagoa izan daiteke.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia baino lehen, ekitaldirako finkatutako jokabide-politikaren berri eman behar zaie erakusketariei. Halaber, haien inplikazioari esker, ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren murrizketa potentzialaren berri eman daiteke.

Adierazleak

% Antolatzaileen gomendioak betetzeko konpromisoa formalki hartzen duten erakusketariak

Kg Berrerabilitako material kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Jarduera honen betetze-maila monitorizatzeko, irizpideak betetzeko konpromisoa formalki hartu duten erakusketariak kontabilizatuko dira eta ekitaldi osoan izan duten betetze-maila ebaluatuko da.



Deskribapena

Ekitaldi bat antolatzeko egin behar diren erosketetan ez da sartzeko soilik produktuak erostea, baizik eta, batzuetan, ekitaldiko premia guztiak estaliko dituzten zerbitzuen kontratazioa ere egin behar izaten da.

Ekitaldi baten antolatzaileak ingurunearekiko erantzukizuna du, eredu-aldaketak eragina izateko aukera duen aldetik zerbitzu jasangarriagoen kontratazioa sustatuta eta/edo ingurumen-inpaktua txikiagoa duten hotelen gomendioak eginez bertaratutakoei. Antolatzaileek egindako kontratazioez gain, gainerako parte-hartzaileen erabakiak bideratzeko gaitasuna ere badu antolakuntzak, aukera jasangarriagoak sustatuta.

Inpaktu txikiagoa duten ostatuak hautatzen direla ziurtatzeko, antolatzaileek ingurumen-ziurtagiriak dituztenei (SGMA, Europar Batasuneko Etiketa



Ekologikoa) eman ahal izango die lehentasuna, bertaratutakoen eta/edo parte-hartzaileen garraioarekin edo joan-etorriekin lotutako inpaktua murriztearren; izan ere, ziurtagiri horien bidez egiaztatzen baita gau bakoitzeko inpaktua gainerakoena baino txikiagoa dela edo ekitaldiaren kokalekutik gertuago daudenena baino txikiagoa dela.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Gau bakoitzeko ingurumen-inpaktu txikiagoa duten ostatuak identifikatzea.
- Aukera horietako bat hautatzea eta ekitaldiaren berezko zerbitzuak kontratatzea.
- Inpaktu txikiagoko ostatuak kontratatzeke aukera dutela jakinaraztea bertaratutakoei, modu aktiboan.
- Ekitaldiaren kokalekutik gertuen dauden ostatuak lokalizatzea eta horiek erabiltzera bultzatzeko informazioa ematea bertaratutakoei, ostatuarekin lotutako inpaktua murriztearren.



Ekitaldian bertan

- Hotel-zerbitzu jasangarrienei buruzko jakinarazpenak indartzea, kontsumitzailearengan sentsibilizazio-maila handiagoa lortzearren.



Ondoren

- Inpaktu txikiagoko hoteletan igarotako gau kopurua eta/edo ostatu hartu duten pertsonen kopurua jakinaraztea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Bertaratutakoen eta laguntzaileen ostatuarekin lotutako ingurumen-inpaktua murrizten da.



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira energia-kontsumoa txikiagoa denez.



Hotel-zerbitzu jasagarriaren ur-kontsumoa murrizten da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia baino lehen, eta ekitaldian izena emateko prozedurarekin edo sustapenarekin batera, antolatzaileek ostatu-aukeren berri eman dezakete, betiere ekitaldia egingo den tokitik gertu egonda, ingurumen-jarduera hobea dutenak nabarmenduta. Hartara, zerbitzu jasagarriagoak kontratatzea sustatuko da eta ekitaldiaren posizionamendua indartuko da.

Bertaratutakoak sentsibilizatzea lortzeko modu bat zera da, zerbitzu horiek kontratatzeak ekarri dituen ingurumen-abantailak jakinaraztea ekitaldian bertan, hainbat euskarriren bitartez.

Adierazleak

B/E

Ingurumen-inpaktu txikiagoko ostatuak sustatu al dira?

B/E

Inpaktu txikiagoko ostatuak aukeran badaudela modu aktiboan jakinarazi al zaie bertaratutakoei?

kop.

Inpaktu txikiagoko hoteletan igarotako gau kopurua eta/edo ostatu hartu duten pertsonen kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Antolatzaileek kontratatu diren hotel-zerbitzu jasagarriagoen proportzioa balioetsi beharko du, ohiko ostatuen kopuruari dagokienez. Bestalde, ostatu jasagarriagoei buruzko jakinarazpenak bertaratutakoengan izan dituen inpaktuak ebaluatu beharko dituzte.



Azpiegiturak




Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.1 Azpiegituren premiak dimentsionatzea

Deskribapena

Ekitaldi bat antolatzeko eta egiteko azpiegitura ugari behar izaten dira, ekitaldia behar bezala garatuko bada. Ekitaldia diseinatzeko garaian, garrantzitsua da premiak edo beharrak dimentsionatzea eta ekitaldiak izango dituen azpiegituretarako irizpideak zehaztea. Irizpide orokor gisa, ahalik eta azpiegitura iragankor gutxien instalatzeko ahalegina egingo da, honako alderdi hauek aintzat hartuta:

- **Ekitaldiaren tipologia:** Egin beharreko ekitaldi motaren arabera, ezaugarri batzuk edo besteak dituzten azpiegiturek beharko dira.
- **Ekitaldia egiteko tokia:** Kokalekua funtsezkoa da ekitaldi osoan behar izango diren azpiegiturek erabakitzekeo garaian (kokagunean lehendik badaudenak ahaztu gabe).
- **Bertaratutakoen kopurua:** Espero den jende kopuruak ere nabarmen baldintzatzen du behar izango diren azpiegitura-elementuen mota eta kopurua.



- **Jarduerak eta zerbitzuak:** Ekitaldian jarduera eta zerbitzu ugari garatuko dira. Egin beharreko jardueren edo zerbitzuen arabera, azpiegitura gehiago edo gutxiago behar izango dira.
- **Segurtasuna eta saneamendua:** Aurreko guztiaren arabera, itxituraren bat instalatu behar ote den balioetsiko da, baita zenbat komun jarri behar diren ere, ekitaldiaren beharrak estaltzeko.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Bertaratutakoen kopuruan eta beharretan oinarrituta, ekitaldiaren kokapena eta azpiegiturek aztertzea.
- Egingo diren jarduera eta zerbitzuen berariazko premiak identifikatzea.
- Azpiegitura iragankorra erosi eta/edo alokatu behar ote den dimentsionatzea.



Ekitaldian bertan

- Instalaturako azpiegiturek ekitaldiaren diseinuko eta plangintzako fasean identifikaturako eskari eta premiak betetzen dituztela egiaztatzea eta behar bezala erabiltzen ari direla ziurtatzea.
- Azpiegiturek erabiltzeko modu egokia zein den jakinaraztea eta horren gainean sentsibilizatzea bertaratutakoak.
- Azpiegiturekin sor daitezkeen gorabehera aipagarriak biltzea eta kudeatzea, ekitaldia egiten den bitartean azpiegitura horien erabilerarekin eta mantentze-lanekin lotutakoak badira.



Ondoren

- Instalazio, azpiegitura edo guneen amaierako egoera zein den ikustea eta hasierako antzeko baldintzetan geratzen direla ziurtatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira azpiegitura iragankorraren garraio-premia txikiagoa delako.



Azpiegitura berrien fabrikazioan lehengaien eta energiaren kontsumoa txikiagoa izaten da.



Azpiegiturak alokatu, erosi edo lagatzeagatikoko kostuak murriztea.



Garraioari lotutako kostuak murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiaren premiak aztertzekeo garaian, inplikaturako eragile askorekin (parte-hartzaileekin, hornitzaileekin, zerbitzu-enpresekin...) jarri behar da harremanetan euren jarduerak garatzeko behar izango dituzten elementuak dimentsionatzeko.

Lehenengo komunikazio-fase honetan, ekitaldiaren ingurumen-helburuak zeintzuk diren jakinaraztea komeni da, baita helburu horiek betetzeko zer neurri landuko diren ere.

Adierazleak

B/E Ekitaldiko azpiegitura-premiak aztertu al dira?

B/E Premiak egoki dimentsionatu al dira?

Km Azpiegituren jatorriarekiko distantzia

Monitorizatzeko gomendioak

Neurriaren ezarpen-maila neurtzeko, ekitaldiko azpiegitura-premiak behar bezala aztertu eta dimentsionatu ote diren identifikatu behar da.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.2 Ekitaldia lehendik dauden azpiegiturek kontuan hartuta diseinatzea


Deskribapena

Azpiegiturearen bat alokatu, erosi edo laga aurretik, ekitaldiaren kokalekuan lehendik badiren azpiegiturek identifikatzea gomendatzen da.

Ekitaldiaren tokian dauden azpiegiturek zenbatu ostean, ekitaldiaren premiak betetzeko modukoak direnak identifikatu behar dira.

Neurri honen bitartez alokairuko, erosketako edo instalazioko kostua aurrezteaz gain, ekitaldiaren ingurumen-inpaktua murriztu ere egiten da, azpiegitura garraiatzeko premia txikiagoa delako.

Ekitaldiaren tipologiaren arabera, faktore hau erabakigarritzat har daiteke ingurumen-inpaktuaren azterketa batean eta azterketa ekonomiko batean. Ekitaldia egingo den herrian ez badago azpiegiturearik, antolatzaileek inbertsio handia egin behar izatea



ekar dezake horrek. Behar diren azpiegiturek aldeztu izanez gero, ekitaldia antolatzeko kostuak murriztu egiten dira eta antolaketa-lanak ere errazagoak dira.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Ekitaldiko premiak aztertzea.
- Ekitaldirako baliagarriak diren eta lehendik badiren azpiegituren inbentarioa.
- Hautatutako azpiegiturek alokatzea/lagatzea.



- Azpiegiturek behar bezala erabiltzen direla ziurtatzea.
- Kontrola eta jarraipena egitea gorabeherak detektatzeko.



- Kalterik ez dela gertatu eta azpiegiturek egoera onean geratu direla egiaztatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira. Azpiegitura berrien fabrikazioan inpaktu txikiagoa.



Azpiegiturak alokatu, erosi edo lagatzeagatikoko kostuak murriztea.



Lehengaien kontsumoa txikiagoa da.



Garraioari lotutako kostuak murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Lehendik badiren azpiegiturak erabiltzeko aukera baldintzatuta egoten da ekitaldia egiteko toki egokia aukeratzearekin; hori egonez gero, azpiegitura berriak fabrikatzeko edo garraiatzeko ingurumen-inpaktua murrizten da.

Ekitaldiaren ingurumen-konpromisoa areagotzea, ekitaldiaren inpaktua murrizteko egindako ekintzen berri emanez; hartara, proiektua sinesgarria izango da eta bertaratutakoen aldetik inplikazio-maila handiagoa lortuko da. Gure jardueren ingurumen-inpaktua murriztearren, egin beharreko lehenengo gauza da bertaratutakoak kontzientziaztea eguneroko bizitzan hartzen diren erabaki txikiek duten inpaktuaren gainean.

Adierazleak

B/E

Ekitaldiaren kokalekuan lehendik dagoenaz gain azpiegitura gehiago eskuratu (erosi, alokatu, laga...) behar izan al dira?

%

Lehendik dagoen azpiegitura, erabilitako guztizkoari dagokionez

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko, azpiegiturak eskuratzeko betekizunak ebaluatuko dira ekitaldiaren kokalekuan badiren azpiegiturei dagokienez,.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.3 Berrerabil daitezkeen aldi baterako azpiegituren erabilera lehenestea

Deskribapena

Ekitaldia egiteko beharrezkoak diren aldi baterako azpiegiturek hautatzeko garaian, ingurumen-inpaktu txikiena dutenei emango zaie lehentasuna, betiere honako alderdi hauek aintzat hartuta: iraunkortasuna, fabrikazioan erabilitako material mota, eta produkzio eta garraioaren prozesuekin lotutako inpaktua. Oro har, beste ekitaldi batzuetan edo hurrengo edizioetan berrerabil daitezkeen azpiegiturei emango zaie lehentasuna, egitura iragankorrak ez erabiltzen saiatuz. Hartara, kontsumitutako materialen kopurua ez ezik, sortutako hondakinen kopurua ere murriztuko da, ekitaldiak ingurumenean eragiten duen kaltea ere txikiagoa izanik.

Hainbat azpiegiturek eragiten dituzten ingurumen-inpaktuak alderatu eta ebaluatu daitezke produktuaren bizi-zikloaren azterketan oinarrituta. Azterketa hori eginez gero, produktuarekin lotutako ingurumen-kargak ebaluatu daitezke, eta lehengaiari nahiz



Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Ekitaldiaren premiak aztertzea.
- Lehen dauden azpiegiturek baliatzea.
- Berrerabil daitezkeen azpiegiturek hautatzea.



- Azpiegiturek behar bezala erabiltzen direla ziurtatzea.
- Azpiegiturek zaintzea, berrerabili ahal izateko.



- Antolatzaileenak baldin badira, azpiegiturek egoera onean dauden egiaztatzea, inbentarioa egitea eta biltegitzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Azpiegituren fabrikazioan eta bizi-amaieran inpaktu txikiagoa.



Azpiegituren bizitza baliagarria luzatu egiten da, baita euren bizi-zikloa ere.



Inpaktu txikiagoa duten azpiegiturek erabiltzeak ez du esan nahi kostua areagotu egingo denik.



Berrerabil daitezkeen azpiegiturek alokairu-kontratu baten bidez eskura daitezke eta, hartara, kostuak erosketaren kasuan baino txikiagoak dira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Berrerabil daitezkeen produktuak (azpiegiturek, kasu) ahalik eta gehien erabiltzea funtsezkoa izaten da jarduera ororen ingurumen-inpaktua murrizteko. Konpromiso hori jendeari oro har jakinarazteak jendearen portaera aldatzea eragin dezake, ingurumena zaindu eta babestearen alde eginez. Gainera, alde aurretik sentsibilizazio-kanpaina bat egiten bada berrerabiltzearen eta birziklatutako materialak erabiltzearen ingurumen-abantailen berri emateko, neurri eraginkorra izan daiteke bertaratutakoen eguneroko bizitzako ohiturak aldarazteko.

Adierazleak



Berrerabil daitezkeen azpiegitura



Birziklatutako materiala duen azpiegitura



Birzikla daitezkeen azpiegitura

Monitorizatzeko gomendioak

Produktu baten ingurumen-inpaktua neurtzeko modurik hoberena produktu horren bizi-zikloa aztertzea da. Bizi-zikloaren azterketa egitea konplexua izaten da eta horretarako behar diren ezagutzak eta tresnak agian ez daude beti eskura. Sinplifikatzearen, berrerabiltzeko, birziklatutako materialez egina izateko eta birziklagarria izateko irizpideak betetzen dituzten azpiegituren ehunekoa aztertuko da.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak


5.4 Ingurumen-jokabide hobea duten edo tokikoak diren azpiegitura-hornitzaileak hautatzea

Deskribapena

Ekitaldi bateko premia guztiak betetzeko eta behar bezala garatzeko, azpiegitura handia behar izaten da. Berrerabil daitezkeen azpiegituren inpaktuaren zati handi batek garraioarekin du lotura, bizitza baliagarri luze guztian. Horregatik, ekitaldia egingo den tokitik gertuen dauden hornitzaileei lehentasuna ematea komeni da. Hartara, garraioan sortzen diren CO₂ emisioen ingurumen-inpaktua eta kostuak ere murriztuko dira. Horretaz gain, neurri honek inguruko ekonomia hobetzen ere laguntzen du; hartara, ekitaldiaren onarpena gero eta handiagoa izango da tokiko komunitatean.

Hornitzaileak hautatzeko garaian, honako alderdi hauek balioetsi behar dira:

- **Gertutasuna:** Ekitaldia egingo den tokirainoko distantzia da garraioak eragiten duen inpaktuaren faktore erabakigarrienetako bat; hortaz, gertuen dauden hornitzaileei eman behar zaie lehentasuna. Kontuan izan behar da



administrazio publikoek Kontratazio publikoari buruzko Legea bete behar dutela eta, beraz, ezin dutela irizpide hori bete.

- **Ingurumen-irizpideak:** Aukeran dauden hornitzaileen artetik, honako hauei emango zaie lehentasuna: ingurumen-politika bat dutenei, produktuen ingurumen-ziurtagiriren bat edo bereizgarriren bat dutenei eta/edo ingurumen-kudeaketarako sistema bat dutenei.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Produktuari dagozkion irizpideez gain, hornitzaileen gertutasuna ere txertatzea hornitzaileak kontratatzeko irizpidetzat.
- Gertuko hornitzaileen artetik, honako hauei emango zaie lehentasuna: ingurumen-politika bat dutenei, produktuen ingurumen-ziurtagiriren bat edo bereizgarriren bat dutenei eta/edo ingurumen-kudeaketarako sistema bat dutenei.



Ekitaldian bertan

- Azpiegiturek erabilera-premiak betetzen dituztela eta haien jatorria ziurtatzea.
- Elementuek eskaintzen duten erabilera edo zerbitzua ez badator bat ohiko moduan kontratatutakoarekin, bertaratutakoei alde horien berri ematea elementu horiek bazter ez ditzaten.



Ondoren

- Azpiegiturak desmuntatzea eta jatorrizko lekura garraiatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira garraio-premia txikiagoa delako.



Azpiegiturak alokatu, erosi edo lagatzeagatiko kostuak murriztea, garraio-premia ere txikiagoa izanik.



Baliabide fosil gutxiago kontsumitzen dira garraio-premia txikiagoa delako.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Hornitzaileen prospekzioa egiteko garaian, eskatuko zaizkien zerbitzu eta hornigaien ingurumen-ezaugarriak zeintzuk izango diren jakinarazi behar zaie, ekitaldiaren jasangarritasun-helburuei jarraikiz.

Ekitaldia egiten ari den bitartean, tokiko hornitzaileak hautatu izanak eragindako ingurumen-abantailen berri emango zaie bertaratutakoei.

Garrantzitsua da hornitzaileak ingurumen-arloan kontzientziatzea, ingurunea gehiago errespetatuko duten produktu eta zerbitzuak eskain ditzaten eta mota horretako produktuen eskaintza hobetze aldera.

Adierazleak

Km

**Azpiegituraren
hornitzaileen
eta ekitaldiaren
kokalekuaren arteko
batez besteko distantzia**

%

**Ingurumen-ziurtagiriren
bat duten hornitzaileak**

Monitorizatzeko gomendioak

Hornitzaileak hautatzeko irizpideen betetze-maila monitorizatzeko, lehenik, zerrenda bat egin behar da ekitaldia egingo den tokiraino bakoitzak zenbateko distantzia duen adierazita. Gainera, kontratatutako hornitzaileei dagokienez, ingurumen-ziurtagiriren bat duten hornitzaileak zenbat diren zenbatuko da.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.5 Komunikazioko euskarrietan edo seinaleetan ingurumen-irizpideak ezartzea

Deskribapena

Ohiko moduan, ekitaldietan hainbat baliabide erabiltzen dituzte bertaratutakoei jakinarazteko azpiegiturak non dauden edo zer jarduera egingo diren. Besteak beste, informaziorako azpiegiturak erabiltzen dira, hala nola kartelak eta seinaleak.

Azpiegitura mota horrekin lotutako inpaktua murriztearren, seinale berrerabilgarriak erabiltzeari emango zaio lehentasuna; horretarako, ahal dela, ez dira data zehatzak aipatuko edo idatziko, etorkizuneko edizioetan edo beste ekitaldi mota batzuetan ere erabili ahal izan daitezten.

Ekitaldiko kartelak eta seinaleak egiteko materiala hautatzeko garaian, material birziklagarriak eta/edo birziklatuak lehenetsiko dira. Ekitaldia amaitutakoan, material horrek zabortegean bukatzea saihestu behar da, beste aukera batzuk balioetsita: berrerabiltzea, materialak birziklatzea edo bestelako



Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Aurreko edizioetako seinalerik ba ote dagoen egiaztatzea.
- Erabilgarri dauden eta inpaktu txikiagoa duten inprimatze-materialak hautatzea.
- Kartelak eta seinaleak non jarri behar diren ongi diseinatzea eta planifikatzea, premiak murriztearren.



Ekitaldian bertan

- Elementuak ongi ikusteko moduan daudela ziurtatzea, bertaratutakoek informazioa jaso dezaten.



Ondoren

- Etorkizuneko edizioetarako berrerabil daitekeen materiala berreskuratzea.
- Materialak egoera onean daudela egiaztatzea.
- Berrerabil daitekeen materiala biltegitratzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Lehengaien kontsumoa txikiagoa izaten da berrerabiltzea sustatuz gero eta, hartara, ez dira euskarri berriak egin eta inprimatu behar.



Kostuak murriztea euskarri berri gutxiago behar direlako eta sortutako hondakinen kopurua ere txikiagoa delako.



Sortutako hondakin kopurua murrizten da.



Euskarriak eginez gero nonbait gorde behar dira eta horrek kostu gehigarria eragin dezake antolatzaileentzat.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldiko komunikazio-euskarriak beste ekitaldi batzuetan erabiltzeko asmoa dagoela bertaratutakoei jakinaraztea komeni da, haiek ere zain ditzaten etorkizunean berrerabili ahal izateko.

Bertaratutakoei produktu berrerabilgarriak erabiltzea eta produktuen bizitza baliagarria luzatzea zein garrantzitsuak diren ikusarazteko, komeni da berrerabilitako produktuen ordeztu erabili eta botatzeko produktuak erabiltzearekin lotutako inpaktua transmititzea, mezuen edo irudien bitartez.

Adierazleak



Berrerabilitako eta/edo berrerabil daitezkeen komunikazioko euskarriak



Birziklatutako materialaz egindako euskarriak



Euskarri iragankorrak

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko, erabili behar diren komunikazioko euskarri eta kartelen inbentarioa egin behar da, eta berrerabiltzeko aukera eta birziklatutako gaien edukia balioetsi.




Deskribapena

Normalean, zonak mugatzeko edo inguratzeko materiala erabili behar izaten da ekitaldietan. Eremuaren eta mugatu nahi den zona motaren arabera, hainbat itxitura mota behar izango dira. Ahal izanez gero eta ekitaldiaren segurtasunean eraginik izan gabe, honako irizpide hauek betetzen dituzten itxiturak erabiliko dira.

- **Hesiak:** Berrerabilitako hesiak eta/edo material birziklatuz edo birziklagarriak egindako hesiak erabiltzeari emango zaio lehentasuna. Kontuan hartu beharreko alderdi bat diseinua da; izan ere, pilotzeko aukera izanez gero, garraioan eta maneian eraginkortasuna handiagoa baita. Bestalde, pieza bakarrean egindako hesiek ez dute muntaketa-prozesurik behar. Osagaien arabera, horrelako azpiegituren pisua asko alda daiteke eta horrek zuzenean eragiten du garraioan eta manipulazioan.

- **Inguratzeko zintak:** Inguratzeko zintak material plastikozkoak izaten dira. Material



jasangarriaren beste aukera batzuk ere badira inguratzeko zintatzat erabiltzeko, biodegradagarriak, patata-fekulaz egindakoak.

- **Bestelakoak:** Ixteko metodo gehiago ere badira, hala nola babes-sare birziklagarriak, olanak, landareak edo elementu apaingarriak. Nolanahi ere, inpaktu txikieneko azpiegiturei emango zaie lehentasuna.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Itxitura motaren bat behar duten zonak aztertzea ekitaldian, eta minimizatzen saiatzea.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoko elementuak hautatzeko.
- Azpiegiturek instalatzea.



Ekitaldian bertan

- Itxitura edo balizak ekitaldi osoan behar bezala daudela ziurtatzea.



Ondoren

- Itxiturak kentzea.
- Erabilitako azpiegiturek egoera onean dauden egiaztatzea.
- Birziklatzera eramango diren azpiegiturek egoki kudeatzea.
- Berrerabil daitezkeen azpiegiturek biltegitratzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Ingurumen-inpaktua txikiagoa da itxiturak egiteko eta balizatzekeo elementuak hautatzeko irizpideak direla eta.



Ingurumen-inpaktua txikiagoa da, azpiegitura berrien fabrikazioan lehengai eta energia gutxiago erabiltzen direlako.



Azpiegiturak alokatu, erosi edo lagatzeagatiko kostuak murriztea.

Garraioari lotutako kostuak murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Antolatzaileek ekitaldiaren inpaktua murrizteko ezarri dituzten neurri guztien berri eman behar zaie bertaratutakoei ekitaldiaren fase guztietan.

Ekitaldia jasagarria izango da soilik inplikaturako eragile guztien laguntzarekin; hortaz, antolatzaileek egindako lanaren berri ematea garrantzitsua da, bertaratuek ere parte har dezaten inpaktuaren murrizketan.

Adierazleak

B/E

Berrerabilitako elementuak erabiltzeari eman al zaio lehentasuna?

B/E

Ingurumen-inpaktu txikiagoko elementuak hautatu al dira?

m

Itxita edo balizatuta dagoen distantzia, ekitaldian

Monitorizatzeko gomendioak

Neurri honen ezarpen-maila ebaluatu ahal izateko, ixteko eta balizatzekeo erabili diren elementuen kopurua eta mota biltzen dituen zerrenda bat egin behar da eta, zerrenda horretan, elementu bakoitzaren ezaugarriak eta finkatutako ingurumen-irizpideen betetze-maila zehaztu behar dira.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.7 Komun eramangarrietan ingurumen-irizpideak txertatzea

Deskribapena

Zer komun mota instalatu hautatzeko garaian hainbat ingurumen-irizpide balia daitezke:

- Produktu kimikoen erabilera:

Formaldehidorik gabeko komun eramangarriak hautatuko dira, produktu horiek arazo larriak eragiten baitituzte araztegietan; hortaz, ingurumen-inpaktua txikiagoa izango da.

- Ur-kontsumoa: uraren zirkulazio-sistemaren arabera, komun eramangarriek ur-kontsumo handiagoa edo txikiagoa izaten dute; beraz, kontsumo txikiena dutenak hautatu behar dira.

- Fabrikazio-materialak: Ingurumen-inpaktu txikiko materialez egindako komunak hautatzea garrantzitsua da; horrela, bada, birziklatutako materialez egindakoak edo birziklagarriak direnak lehenetsiko dira.

- Ur grisak: Ahal den guztietan, komunak saneamendu-sarearekin konektatu behar dira. Sarearekin konektatu ezin denean, ur grisak behar bezala kudeatzen direla ziurtatu behar da.



- Energia-kontsumoa: Ekitaldiaren ordutegia eta kokalekuaren ezaugarriak aintzat hartuta, kontratatutako komunek argiztapen-sistema izan beharko dute. Komun mota horretan, argien eraginkortasuna balioetsiko da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Komun eramangarrien premiak espero den jende kopuruaren, azpiegituraren eta kokapen hoberenen arabera planifikatzea.
- Ingurumen-inpaktu txikieneko komunak hautatzea.



- Komunaren funtzionamendua kontrolatzea, inpaktua eragin dezaketen egoerak saihestuta, hala nola: ur-galerak, isuriak eta abar.



- Ur grisak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira.



Uraren kontsumoa murrizten da.



Kostuak murriztea, ur-kontsumo txikiagoari eta garraio-premia txikiagoari esker.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekitaldia jasagarria izango da soilik inplikaturako eragile guztien laguntzarekin; hortaz, antolatzaileek egindako lanaren berri ematea garrantzitsua da, bertaratuek ere parte har dezaten inpaktuaren murrizketan. Komunen ingurumen-inpaktua produktu motarekin eta bertaratuek egindako erabilera motarekin loturik dago. Horregatik, komunen erabilera arduratsua sustatzeko ahalegina egingo da. Komunikazioaren bitartez, bertaratuek ur gutxiago kontsumitzea bultzatuko da, egoki erabiltzea –matxurarik ez izateko–, isuriak detektatuz gero antolatzaileei jakinaraztea eta abar.

Adierazleak

B/E

Komun eramangarriak kontratatzeke garaian, euren inpaktua ahalik eta txikiena izateko iradokitako gomendioen arabera kontratatu al dira?

%

Komunei dagokien ur-kontsumoa

Monitorizatzeko gomendioak

Fitxa honetan iradokitako irizpideen betetze-maila balioetsiko da, kontratatutako komunen zerrendan oinarrituta. Gainera, komunen ur-kontsumoa monitorizatuko da ekitaldiko guztizko ur-kontsumoari dagokionez.



Deskribapena

Batzuetan, elektrizitate-sarera konektatzea ezinezkoa izaten da ekitaldiaren kokapena dela eta; arazo hori konpontzeko, ekipo elektrogenoak erabili ohi dira. Horrelako gailuek funtzionatzeko erregai fosilak behar izaten dira, eta errektuzaren ondorioz emisioak ez ezik, ingurunean zarata ere sortzen dute.

Ekipo elektrogenoak hautatzeko garaian, ekipo eraginkorrenak hautatzea garrantzitsua da, euren potentzia gaimentsionatu gabe eta behar diren sorgailuen kopurua doituta.

Zein ekipo elektrogeno hautatu?

- **Iturri berriztagarriak:** Inpaktu txikieneko aukera energia berriztagarriak erabiltzea da. Ekitaldiaren magnitudearen eta inguruko eguraldiaren arabera, energia-iturri garbiak erabilia ekitaldiaren energia-premiak ase daitezke.

- **Ekipo mistoak:** Aukera onenetako bat sorgailu mistoak erabiltzea da; sorgailu horiek eguzki-panelak erabiltzen dituzte energia elektrikoa sortzeko eta diesel-motor bat ere izaten dute, eskari handieneko uneetan erantzuteko.

- **Diesel-sorgailuak:** Diesel-sorgailuak izaten dira ekitaldiak egiteko aukera ohikoenetako bat. Gasolinazko sorgailuek baino kontsumo txikiagoa dute eta, aldi berean, CO₂ gutxiago jaurtitzen dute atmosferara. Aitzitik, osasunean zuzenean eragiten duten partikula gehiago sortzen dituzte. Arazo hori konpontzeko, partikulen iragazkiak jar daitezke zenbait partikula ez jaurtitzeko.

- **Gasolinazko sorgailuak:** Sorgailu mota horrek erregai fosilen kontsumo handiagoa izateaz gain, atmosferara CO₂ gehien jaurtitzen dute.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Ekitaldiaren energia-premiak kalkulatzeko.
- Ingurumen-irizpideak txertatuta, energia sortzeko aukerarik onena hautatzea.
- Ekitaldirako ezarritako energia aurrezteko protokolo bat badagoela egiaztatzea eta betetzen dela ziurtatzea.



Ekitaldian bertan

- Ekipo elektrogenoak egoera onean ote dauden eta behar bezala funtzionatzen ote duten egiaztatzea.
- Ezarritako energia aurrezteko protokoloa betetzen dela ziurtatzea.



Ondoren

- Ekitaldia amaitzen denetik desmuntatzen diren arte, instalaturako ekipoak itzalita daudela ziurtatzea, betiere aldi horretan erabili behar ez badira.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira.



Baliabide fosilen kontsumoa txikiagoa da.



Hasierako inbertsio handia. Ekipo eta instalazio propioak dituzten ekitaldi errepikakorren kasuan, ekipo horien ordean eraginkorragoak erosiz gero, kostu hori konpentsatu ahal izango da eta, gainera, mesedegarria ere izan daiteke diruaren aldetik, ekitaldiaren edizio guztietan energia aurreztuko baita.



Kostuak murriztea erregai-kontsumoa txikiagoa delako.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ekipo elektrogenoak instalatzeak eragina izaten du ekitaldi batera joaten direnen esperientzian, osasunari, ikusmenari eta entzumenari dagokienez. Horrela, bada, beste iturri batzuk baliatuz edo makina eraginkorragoak erabiliz ekipo horien erabilera murriztera bideratutako jarduerak ikusgai jarritz gero, jendea gusturago eta harkorrago egongo da ekitaldietan. Bestalde, aukera ezin hobea da bertaratutakoak sentsibilizatzeko erregai fosilak agortzen ari direlako eta erregai horien produkzio eta kontsumoak inpaktu handia eragiten duelako ideia gainean.

Adierazleak



Ekipo elektrogenoek sortutakotik kontsumitutako energia



Ekipo elektrogenoak elikatzeko erabilitako erregaiaren bolumena

Monitorizatzeko gomendioak

Erabilera-orduen eta potentziaren arabera, ekitaldian kontsumitutako energiari ekipo elektrogenoek zenbateko ehunekoa sortu duten balioetsiko da, kontsumitutako guztizko energiari dagokionez. Gainera, ekipo elektrogenoen kontsumo-erregimenak monitorizatuko dira, euren eraginkortasuna ebaluatze aldera.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.9 Argi-eta soinu-sistemetan ingurumen-irizpideak txertatzea

Deskribapena

Argien eta soinuaren atalean, batik bat, agertokietan muntatzen diren azpiegiturei buruz ari gara, ekitaldiko beste puntu batzuetako argiak alde batera utzita.

Egin beharreko ekitaldi motaren arabera, agertoki bat baldin badago hori izango da kontsumo-foku nagusietako bat. Ikuskizun bat egiteko potentzia handia behar izaten da eta, askotan, kanpoko elikatze-iturria behar izaten da horretarako.

Agertokietako kontsumo elektrikoa txikiagoa izan dadin, energia-premiak murriztuko dituen argi-eta soinu-plangintza egitea garrantzitsua da.

Argi- eta soinu-ekipoak hautatzeko orduan, eraginkortasun handienekoei emango zaie lehentasuna. Agertokietako argiei dagokienez, zer teknologia erabili nahi dugun hautatzeko garaian produktu-aukera handia dago. Ahal den guztietan, LED teknologia erabiltzen duten



argiak hautatu behar dira, eta deskarga-fokuak baztertu. LED teknologiari esker, % 80 aurreztera ere irits daiteke, argiztapen-teknologia tradizionalekin alderatuta.

Argi- eta soinu-sistema eraginkorragoak hautatzeko irizpide orokor modura, energia-eraginkortasuneko bereizgarri ezagunen bat duten ekipoak eskuratzeko aukera aztertuko da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Ekitaldiaren argi- eta soinu-premiak aztertzea.
- Ahalik eta energia gutxien erabiliko duen argi- eta soinu-diseinua egitea.
- Argi- eta soinu-ekipo eraginkorrenak hautatzea.



- Ekipoek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea.



- Ekitaldia amaitzen denetik desmuntatzen diren arte, instalatutako ekipoak itzalita daudela ziurtatzea, betiere aldi horretan erabili behar ez badira.

Neurriaren inpaktu potentziala



LED teknologiak ez du elementu toxikorik –merkurioa, kasu– baliatzen eta, beraz, material mota horren erabilerarekin lotutako inpaktua saihesten da.



Energia-baliabide gutxiago kontsumitzen dira, ekipoak eraginkorragoak direlako.



Energia-kontsumoaren kostuak murriztea.



LED teknologiari esker, mantentze-lanen kostuak murriztu daitezke.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Argi- eta soinu-ekipoak hautatzeko garaian inpaktu txikieneko aukera bilatze aldera, azpiegitura mota hori hautatzeko txertatutako ingurumen-irizpideak zeintzuk diren jakinarazi behar zaie hornitzaileei.

Bestalde, argi- eta soinu-ekipo eraginkorrak hautatzeagatik izandako ingurumen-hobekuntzei buruzko informazioa ematen bazaie bertaratutakoei, antolatzaileen ingurumen-konpromisoa indartu egiten da eta aukera ematen da bertaratutakoek ere ekitaldiaren inpaktua murrizten laguntzeko.

Adierazleak

B/E

Argia eta soinua diseinatzeko garaian energia-premia ahalik eta txikiena izateko moduan diseinatu al dira?

B/E

Aukeran zeudenetatik ekipo eraginkorrenak hautatu al dira?

kop.

Ekipo eraginkorren kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldiko argien eta soinuaren atalean ingurumen-irizpideak txertatzeko aukera balioesteko garaian, egindako argi- eta soinu-diseinua ez ezik, erabilitako ekipoen hautaketa ere aintzat hartuko da.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.10 Aparatu elektrikoetan ingurumen-irizpideak txertatzea

Deskribapena

Jarduera honi dagokionez, aparatu elektrikoetat jotzen dira martxan egoteko energia elektrikoaren iturri bati konektatuta egon behar duten gailu guztiak.

Kategoria horren barruan, askotariko produktuak daude: hozkailuak, sukaldeko plantxak, pantailak, ordenagailuak, TBak, saltzeko makinak, klimatizazioa... Ekitaldiaren berezko ezaugarrien arabera batzuk ala besteak erabiliko dira.

Ekitaldi baten ingurumen-inpaktua murrizteko, garrantzitsua da gailu horiek egoki hautatzea, betiere eraginkorren lehentasuna emanez. Gailu eraginkorrenak zeintzuk diren erabakitze aldera, hainbat tresna balia daitezke: Energy Star bereizgarria, energia-eraginkortasunaren etiketaren sailkapenean goiko postuetan egotea (>A) edo Europako Etiketa Ekologikoa (<http://ec.europa.eu/ecat/>).



Xehetasun gehiago behar izanez gero, gida honetako energiaren atalean 2.2 jarduera kontsulta daiteke: «Ekipo eta instalazio eraginkorrak hautatzea».

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Beharrezkoak diren aparatu elektrikoak aztertzea.
- Aparatu elektriko eraginkorrenak hautatu eta erostea/alokatzea.
- Antolakuntzako kideei energia aurrezteko ezarritako protokoloaren berri ematea.



- Aparatu elektrikoek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea.
- Ezarritako energia aurrezteko protokoloa betetzen dela ziurtatzea.



- Ekitaldia amaitzen denetik desmuntatzen diren arte, instalaturako ekipoa itzalita daudela ziurtatzea, betiere aldi horretan erabili behar ez badira.
- Aparatu elektrikoak egoera onean daudela egiaztatzea.
- Hurrengo edizioetan erabiliko diren gailuak biltegitratzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Aparatuek energia gutxiago erabiltzen dutenez, natura-baliabideak babes daitezke.



Europako Etiketa Ekologikoa duten aparatu elektrikoek bizi-amaierako egoera hobea eta bizitza baliagarri luzeagoa izaten dute; hortaz, lehengaien kontsumoa murrizten da.



Energia-kostuak aurreztea eraginkortasun handiagoaren ondorioz.



Instalazio propioak dituzten ekitaldietan, ekipo horien ordeztu eraginkorragoak erabiliz gero, hasierako inbertsioa kostua izango da baina denboran zehar aurreztutako energiari esker itzuli egingo da.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Instalatutako gailuen kontsumo-erregimen hobea bermatze aldera, lantalde teknikoa energia aurrezteko planaren ezarpenean inplikatzeko komeni da. Bestalde, bertaratutakoekin harremanetan egoteko puntuak aprobetxatu beharko lirateke energia-kontsumoa murrizteko ezarritako jardueren berri emateko eta, hartara, energia aurreztea zein garrantzitsua den ikusarazteko balioko luke; jakinarazpen horiekin batera, gomendioak ere eman daitezke eguneroko bizitzan energia-kontsumo eraginkorragoa egiteko nola jokatu beharko genukeen jakiteko.

Adierazleak

B/E

Aparatu elektriko eraginkorragoak erabili al dira ekitaldian?

%

Aparatu eraginkorragoak

Monitorizatzeko gomendioak

Ekitaldian erabili diren gailu elektriko eta elektronikoen zerrenda egingo da, eta eraginkortasun-irizpideak betetzen dituztenak zenbat diren kontabilizatuko da.



Azpiegiturei dagozkien hobekuntza-jarduerak

5.11 Altzari eta apaingarrietan ingurumen-irizpideak txertatzea

Deskribapena

Jarduera honetan, askotariko produktuak sartzen dira «altzariak» kontzeptuaren barruan baina, batik bat, mahaiak eta aulkiak dira. Horietaz gain, altzari osagarriak ere sartzen dira, hala nola armairuak edo apalategiak, plafoi eta manparak, besaulkiak eta butakak; edo elementu gehigarriak: zakarrontziak, aterki-ontziak edo kakotegiak.

Ekitaldiak antolatzean, erraz muntatzen diren eta askotariko eginkizunetarako balio dezaketen altzariak, erraz garraiatzeko modukoak (tolesgarriak edo pilagarriak) erabiltzeari lehentasuna ematea komeni da, muntatzeko garaian kolarik edo itsasgarririk erabili behar ez izateko.

Elementu apaingarrien kategorian, mota askotako elementuen aukera handiagoa aurkituko dugu: objektu edo figura tematikoak, moketak, estatuak, iturriak eta abar.

Ingurumenaren ikuspuntutik begiratuta, produktu horien inpaktuak ekoitzi eta botatzeko faseetan metatzen dira gehienbat, eta erabiltzeko fasean

oso txikiak dira. Izan ere, produktu baten bizi-ziklo osoa hartuz gero, ekitaldiko altzari edo elementu apaingarriak iraunkorrak eta egoki diseinatutakoak badira, ingurumen-inpaktu txikiagoa eragingo dute antzeko ezaugarriak dituzten beste produktu batzuekin alderatuta.

Produktu horien ingurumen-inpaktuak honako hauekin lotuta daude, batik bat:

- Zura ateratzen den basoen ustiapenarekin eta kudeaketarekin.
- Materialak erauzten diren meatzeekin eta metalezko piezak egiten dituzten galdategiekin.
- Tapizerietarako zuntzak landatu edo fabrikatzearekin, ehuntzearekin eta tratatzearekin.
- Plastikoak eta aparrak egiteko erabiltzen den petrolioaren deribatuak erauztearekin, prozesatzearekin eta manipulatzerekin.
- Pinturetan, bernizetan eta itsasgarrietan oinarritutako gainazaleko tratamenduekin eta akaberekin.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Ekitaldiko altzarien eta apaingarrien premiak aztertzea.
- Altzariak eta elementu apaingarriak jasangarritasun-irizpideei jarraikiz hautatzea.
- Ingurumen-irizpideak erabiltzea altzariak eta apaingarriak diseinatzean.



- Altzariak eta elementu apaingarriak egoki erabiltzen direla ziurtatzea.
- Berrerabil daitezkeenak ongi zaintzen direla zaintzea.



- Erabilitako elementuak egoera onean daudela egiaztatzea.
- Birziklatzera eramango diren materialak egoki kudeatzea.
- Aurrerago berrerabil daitezkeen produktuak biltegiratzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara emisio gutxiago jaurtitzen dira Bizi Ziklo osoan inpaktu txikiagoko produktuak eskuratuz gero.



Natura-baliabideak zentzu handiagoz erabiltzen dira.



Garraioari lotutako kostuak murriztea.



Produktuak muntatzeko denbora murriztea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Ingurumen-irizpideen arabera hautatutako altzari eta elementu apaingarriak erabiltzea lagungarri izaten da ekitaldi baten ingurumen-inpaktua murrizteko. Bertaratutakoei zer hautaketa-irizpide baliatu diren jakinaraztea ere pizgarri izan daiteke erosketa-portaera arduratsuagoak sustatzeko.

Hautatutako artikulu motaren arabera, ekitaldia egitea aukera ona izan daiteke ekodiseinatutako elementuen edo inpaktu txikiko materialez egindako elementuen erosketa sustatzeko eta bertaratutakoei horrelako produktuak ezagutarazteko.

Adierazleak

B/E

**Altzariak eta/
edo elementu
apaingarriak
ingurumen-irizpideen
arabera hautatu al
dira?**

%

**Ingurumen-irizpideen
arabera hautatutako
produktuak**

Monitorizatzeko gomendioak

Altzarien eta dekorazioaren kapituluetan egindako erosketa guztiak zerrendatuko dira, eta ingurumen-irizpideen arabera erositako produktuen kopurua ebaluatuko da, erositako guztizko produktuei dagokienez.



Hondakinak



Deskribapena

Ekitaldi baten fase guztietan sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatzearen, hondakinak kudeatzeko sistema bat diseinatzea eta ezartzea komeni da eta, sistema horretan, materialak berrerabiltzeari eta birziklatzeari lehentasuna emateaz gain, helburu nagusia zera izango da, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta botatzea zabortegira. Ekitaldiaren motak eta iraupenak nabarmen baldintzatzen du sistemaren diseinua. Beste baldintzatzaile garrantzitsu batzuk dira honako hauek: aurreikuspenaren arabera, hondakin gehien sortuko dituzten puntuak, zenbat jende espero den eta ekitaldia egiteko eguna eta tokia.

Goian aztertutakoaren arabera, honako hauek zehaztuko dira:

- **Biltzeko azpiegitura:** Hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko, ezinbestekoa da ekitaldiaren faseetan sortzen

diren hondakin guztiak botatzeko beharrezkoa den azpiegitura izatea ekitaldian, dela antolatzaileen aldetik, dela bertaratutakoen aldetik.

- Ekitaldiaren magnitudearen eta iraupenaren arabera, baliteke **hondakinak biltzeko sistema** bat diseinatu behar izatea kolapsorik sor ez dadin.

- Zenbait kasutan, behin-behineko **biltegiatze-zentro bat** antolatu behar izaten da hondakinak botatzeko, betiere baimendutako kudeatzaileak jasotzera etorri bitartean.

- **Bilketa, garraioa eta tratamendua:** Sortutako hondakinak behar bezala tratatzeko, hondakin mota bakoitzaren kudeatzaileekin harremanetan egon beharko da, birziklatzeari lehentasuna ematen dion kudeaketa eraginkorra ziurtatzeko.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Hondakinak kudeatzeko sistema bat diseinatzea inplikaturako eragileekin (kudeatzaileak, teknikariak, langileak...) batera.
- Antolakuntzako kideei eta langileei prestakuntza ematea sistema hori ezartzeko.
- Ekitaldian hondakinak sailkatzeko aukera emango duen azpiegitura prestatzea.
- Hondakinak biltzeko prozedura zehaztea.



Ekitaldian bertan

- Hondakinen sailkapena sustatzea.
- Zakarrontziak eta edukiontzien multzoak non dauden jakinaraztea bertaratutakoei.
- Jarritako zakarrontziak eta edukiontzia beteta ote dauden egiaztatzea aldizka eta behar bezala erabiltzen direla ziurtatzea.



Ondoren

- Berrerabil daitezkeen materialak biltzea.
- Baimendutako kudeatzaileek hondakinak biltzen eta behar bezala kudeatzen dituztela ziurtatzea, betiere birziklatzeari lehentasuna emanaz.

Neurriaren inpaktu potentziala



Hondakinak behar bezala kudeatuz gero, hondakin gutxiago sortzen dira, birziklatze-tasa handitzen da, hondakin gutxiago abandonatzen dira...



Hondakinen prebentzioak kostu txikiagoa dakar hondakinen kudeaketan.



Produktuak eta materialak berrerabiliz gero, antolatzaileek dirua aurrez dezakete.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Hondakinek eragindako ingurumen-inpaktua kudeaketa motaren arabera izaten da. Kudeaketa motak baldintzatuko du zenbat eta nolako hondakinak sortuko diren, baita azkenean non bukatuko duten ere. Ekitaldia zehatz-mehatz nolakoa izango den jakin behar da aldagai horiek guztiak aurreikusteko. Prozesu horretan, eragile guztiak inplikatzeko gomendatzen da: administrazioa, herriko hondakinak kudeatzen dituzten enpresak, lantalde teknikoa eta abar. Sistema diseinatu ostean, horren berri eman behar da, diseinatutako sistema azaldu eta hondakinak behar bezala kudeatzeko jarraitu

beharreko ildoak zehaztu, bai barnean, bai kanpoan, ekitaldiaren fase guztietarako.

Hondakinen kudeaketan, bertaratutakoek parte hartzea funtsezko elementua izaten da. Hein handi batean, bertaratutakoek jardueren arabera izango da ekitaldiaren azken ingurumen-aztarna. Ekitaldi batean hondakinek eragiten dituzten inpaktuen gainean kontzientziatzea lagungarri izaten da hondakin gutxiago sortzeko eta ekitaldi osoan hondakinen sailkapenaren eraginkortasuna areagotzeko.

Adierazleak

B/E Hondakinak kudeatzeko sistema bat diseinatu eta ezarri al da?

Kg Sortutako hondakin kopurua, tipologiaren arabera

% Gaika bildutako hondakinak

Monitorizatzeko gomendioak

Ezarritako sistemaren eraginkortasuna balioesteko, edukiontzien betetze-ehunekoa kontabilizatu behar da, eta edukiontzietako hondakinek azkenean non bukatuko duten (zabortegean, birziklatzeko, konposta egiteko...) jakin behar da.



Deskribapena

Ekitaldiaren hainbat fasetan sortutako hondakin asko erraz saihesteko modukoak dira. Ahalik eta hondakin gutxien sortzea lortzeko, hondakinen prebentzioko politika bat ezartzea komeni da, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- **Murriztea:** Hondakinen sorkuntza saihestea. Helburu hori betetzeko, erosketa berdearen irizpideak (banakako ontzi eta bilgarrien erabilera edo erabili eta botatzeko produktuen erabilera saihestea) ezartzea eta erosketak modu eraginkorrean egitea garrantzitsua da, gehiegizko stock-a izatea saihestuz edo paperaren erabilera minimizatuz.

- **Berrerabiltzea:** Produktu bat hondakin ez bihurtzeko gakoetako bat berrerabiltzea da; hartara, sortzen diren hondakinen guztizko kopurua zuzenean gutxitzen da.

- **Birziklatzea:** Ekitaldi batean sortzen diren hondakinen frakzio bat saihestezina da; beraz, frakzio hori behar bezala bereizteko ahalegina egingo da, birziklatu ahal izateko.

Neurri hau erosketen ataleko 4.4 *Jatorrian ahalik eta hondakin gutxien sortzea* neurriaren antzekoa da; beraz, horrek zera esan nahi du, hondakinen prebentzioko politika erosketa-prozesuetatik hasita ezarri behar dela, hau da, hondakinik onena sortzen ez dena da.

Hondakinen sorkuntza prebenitzeko politika antolatzaileek ezarritako erosketa-irizpideekin lotuta dago.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Hondakinak kudeatzeko sistema bat diseinatzea, prebentzioa barnean hartuta.
- Herriko hondakin-kudeatzaile baimenduekin batera diseinatzea plana.
- Berrerabili beharreko elementuak berreskuratzeko beharrezkoa den azpiegitura instalatzea eta hondakinak sailkatzeko aukera ematea.
- Garbiketako lantaldeei prestakuntza ematea.
- Hondakinak bereizteko azpiegitura ezartzea.



Ekitaldian bertan

- Jarritako zakarrontziak eta edukiontziak beteta ote dauden egiaztatzea aldizka.
- Hondakinak behar bezala bereizten direla, instalazioak gainezka ez daudela eta hondakinak sartzen direla ziurtatzea.



Ondoren

- Baimendutako kudeatzaile batek hondakinak biltzen eta tratatzen dituela ziurtatzea, betiere berrerabiltzeari eta birziklatzeari lehentasuna emanez.
- Sortutako hondakin kopurua eta bereizketa-tasa monitorizatzea.
- Garbiketako lantaldea inplikatzeko, haiek ere bereiz ditzaten hondakinak.
- Ekitaldian sortutako hondakinen kopuruak eta motak monitorizatzea eta hondakin horien jatorria aztertzea.
- Garbiketako lantaldea inplikatzeko, haiek ere aktiboki parte har dezaten hondakinen prebentzioan.

Neurriaren inpaktu potentziala



Atmosferara egindako emisioak murrizten dira, bai garraioarenak, bai produktuen fabrikazioarekin lotutakoak.



Lehengai gutxiago kontsumitzen dira prebentzioari esker.

Sortutako hondakinen bolumena murrizten da.



Hondakinen prebentzioko jardueren eraginez, kasu askotan, kostuak aurrezten dira: solteko produktuak edo formatu handikoak erostea, zabortegiko tasen murrizketa...

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Sortutako hondakinek lotura estua dute egindako erosketekin. Maila horretan ezarritako irizpideek baldintzatzen dute ekitaldi batean zenbat hondakin eta zer motatakoak sortzen diren. Horregatik, hondakinen prebentzio-plan bat diseinatzeko ezinbestekoa da erosketen arduradunekin batera jardutea ekitaldiaren diseinuko faseetik hasita. Haien inplikazioa funtsezkoa izango da hondakinak prebenitzeko politika behar bezala aplikatzen dela ziurtatzeko.

Aldez aurretik eman beharko da horren berri, eta hondakinen prebentzio-neurriak azaldu eta hondakinak behar bezala kudeatzeko jarraitu beharreko ildoak zehaztu, bai barnean, bai kanpoan, ekitaldiaren fase guztietarako.

Adierazleak

B/E Hondakinen prebentzio-plan bat diseinatu eta ezarri al da?

Kg Sortutako hondakin kopurua, tipologiaren arabera

Kg Sortutako hondakin kopurua, bertaratutako bakoitzeko

Monitorizatzeko gomendioak

Hondakinen prebentzio-plana diseinatu eta behar bezala ezarri dela ziurtatu beharko da. Ekitaldia amaitu ondoren, frakzio bakoitzetik (papera eta kartoia, beira, ontzi arinak, biohondakinak, nahastutako frakzioa...) zenbat hondakin (kg) sortu den monitorizatuko da.



Deskribapena

Ekitaldietan hainbat motatako hondakinak sortzen dira, batzuk gehiago eta besteak gutxiago, baina hondakin horien kudeaketa eta xedea tipologiaren arabera izango dira. Sortutako hondakin kopurua aldatu egingo da, halaber, ekitaldiaren tipologiaren, dimentsioaren eta iraupenaren arabera.

Hondakinak behar bezala kudeatu eta sailkatzeko garaian puntu garrantzitsuenetako bat zera izaten da, ekitaldian behar adina edukiontzi jartzea eta premien arabera kokatzea. Ekitaldia egingo den tokian ez badago kudeaketa behar bezala egiteko beharrezkoa den azpiegiturarik, aurreikusitako hondakin bolumena eta tipologia aintzat hartuta, zenbat edukiontzi edo ontzi behar izango den aztertu behar da.

Edukiontziak bertaratutakoek sortutako hondakinak botatzeko ez ezik, antolatzaileek sortutakoak botatzeko ere jarri behar dira.

Aurreikuspenaren arabera hondakin gehien sortuko diren puntuetan edukiontzi gehiago jar daitezke, eta bereziki erreparatu behar zaie elikagaiak kontsumituko diren tokiei, jende gehien ibiliko den tokiei eta esparruko sarrera eta irteerei. Gainera, edukiontziak kokatzeko garaian, edukiontziak garraiatzen dituzten kamioiak iristeko moduko tokiak aukeratu beharko lirateke, beti ezin izaten baitute urrunera iritsi.

Erabilgarri dauden edukiontzien kopurua eta ekitaldiaren iraupena aintzat hartuta, gerta daiteke ekitaldian bertan zaborra biltzeko txandak antolatu behar izatea.

Behar izanez gero, hondakinak biltegitratzeko aldi baterako zentro bat prestatuko da, kudeatzaileek garraiatu ahal izan arte.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Sortuko den hondakin bolumena eta mota aurreikustea.
- Ekitaldia egingo den tokia ebaluatzea.
- Edukiontziak jartzeko punturik egokienak zeintzuk diren aztertzea.
- Edukiontziak jartzea.
- Edukiontziak non dauden adierazteko seinaleak jartzea.



Ekitaldian bertan

- Hondakinen sailkapena sustatzea.
- Zakarrontziak eta edukiontzien multzoak non dauden jakinaraztea bertaratutakoei.
- Zakarrontziak eta edukiontziak beteta dauden egiaztatzea aldizka.
- Bete samar dauden edukiontziak hustea, gainezka egin ez dezaten.



Ondoren

- Edukiontziak egoera onean daudela ikustea.
- Baimendutako kudeatzaileek hondakinak biltzea.
- Sortutako hondakinei buruzko datuak eskatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Hondakin gutxiago abandonatzen dira, birziklatze-tasa handitzen da.



Edukiontzia jartzeko kostuak areagotzea.



Edukiontzi gehigarriak jartzeagatik kudeaketa-kostuak areagotu daitezke.



Behar adina edukiontzi dituen multzo bat toki egokian jarritz gero, antolatzaileek garbiketa-kostuetan aurrez dezakete.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Behar den edukiontzi kopuruaren eta egingo den ekitaldi motaren arabera, tokiko administrazioarekin harremanetan jarri behar da edukiontziak lagatzeko aukera aztertzeko.

Jarritako edukiontziak bildu eta garraiatzen direla ziurtatzeko, udalerriko hondakin-kudeatzaileekin harremanetan jarri behar da.

Garrantzitsua da edukiontziak non dauden adierazten duten seinaleak jartzea, toki askotatik ikusteko moduan, eta esparruaren mapetan edo ekitaldiaren app-ean ere markatu behar dira.

Edukiontzien multzoak non dauden seinalatzea ez da aski. Bertaratutako inplikazio-maila handiagoa lortzearen, sentsibilizazio-mezuak igortzea gomendatzen da, hondakinak sortzearekin lotutako inpaktuen berri emanez.

Parte-hartzea sustatzen duten dinamikak proposatzea gaikako bilketa modu ludiko eta interaktiboan lantzeko.

Adierazleak



Errefusa (ez da gaika biltzen)



Abandonatutako hondakin kopurua
Bildutako hondakin kopurua



Garbiketako hondakinen kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Jarritako edukiontzien eraginkortasuna honela ebalua daiteke:

Jarritako edukiontzi mota bakoitzean bildutako hondakin bolumena kalkulatu, jarritako edukiontzien bolumenari dagokionez. Ekitaldian bertan bilketak egin badira, kontabilizatu egin behar dira.

Lurrean abandonatutako hondakinen ehunekoa.



Deskribapena

Jarduera baten ingurumen-inpaktua murrizteko faktore garrantzitsuenetako bat da hondakinen arloan esku hartzea. Hondakin mistoen kopurua murriztuz gero, bereizi gabe botatzea eta/edo pilatzea saihestuta, ingurumenean eragin positiboa izango dugu.

Jarduera honen helburua berreskuratutako hondakinen ehunekoa ahalik eta gehien handitzea izango da, zabortegeira edo erraustegira eraman behar ez izateko; horretarako, hondakinetan dauden baliabideak aprobeitzatzeko aukera ematen duen edozein prozedura baliatu daiteke, betiere prozedura horiek ez badute ondorio negatiborik gizakion osasunean eta ingurumenean.



Zereginak eta inplikaturako eragileak

Aurretik

- Sortuko diren hondakinen bolumena eta mota aurreikustea, antzeko ekitaldietan edo hurrengo edizioetan berrerabil daitezkeenei dagokienez.
- Edukiontzia jartzeko puntuak eta elkartrukatzeko tokiak aztertzea.
- Edukiontzia jartzea berrerabil daitezkeen elementuak berreskuratzeke.
- Edukiontzia non dauden adierazteko seinaleak jartzea.

Ekitaldian bertan

- Hondakinen sailkapena sustatzea.
- Bertaratutakoei materiala berreskuratzeke edo elkartrukatzeko tokiak non dauden jakinaraztea.

Ondoren

- Baimendutako kudeatzaileek hondakinak biltzea, edo bildutako elementuei balioa emango dieten antzeko ekitaldien sustatzaileek.
- Sortutako hondakinei buruzko datuak eskatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Hondakin gutxiago abandonatzen dira, birziklatze-tasa handitzen da.



Edukiontzia jartzeko kostuak areagotzea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Enpresa babesleekin harremanetan jartzea eta, behar izanez gero, materialak berreskuratzeko programak jada martxan dituzten erakundeekin.

Jarritako edukiontzia bildu eta garraiatzen direla ziurtatzeko, udalerriko edo enpresako hondakin-kudeatzaileekin harremanetan jarri behar da.

Garrantzitsua da edukiontzia non dauden adierazten duten seinaleak jartzea, toki askotatik ikusteko moduan, eta esparruaren mapetan edo ekitaldiaren app-ean ere markatu behar dira.

Elkartrukatze tokiak non dauden seinalatzea ez da aski. Bertaratutakoen inplikazio-maila handiagoa lortzearen, sentsibilizazio-mezuak igortzea gomendatzen da, hondakinak sortzearekin lotutako inpaktuen berri emanez.

Adierazleak

Kg

Antolatzaileek berreskuratutako material kopurua

Berreskuratutako materialaren inbentarioa

Monitorizatzeko gomendioak

Zenbat material bildu den eta non bukatuko duen jakitea ezinbestekoa da ekitaldia monitorizatzeko.



Deskribapena

Antolatzaileen helburu nagusietako bat izango da zabortegira ahalik eta hondakin gutxien botatzea, eta sortutako hondakinak berrerabili eta birziklatzeko aukera ahalbidetzea.

Horregatik, hondakinak kalitate onekoak direla bermatu beharko dute ekitaldiaren antolatzaileek, eta jarrita dauden edukiontziak behar bezala erabiltzea sustatu. Hondakinak ez dira sailkatu behar soilik bertaratutakoen jardueretatik; aitzitik, antolakuntzako zerbitzuek sortutako hondakinekin ere egin behar da, baita ekitaldiko jarduera osagarriekin ere.

Edukiontziak kutsa ez daitezen, ixteko giltza duten edukiontziak erabil daitezke antolatzaileek soilik erabiltzeko, edo erabat betetzen direnean zigilatu egin daitezke.

Edukiontzi mota guztiak elkarrekin jarri behar dira, gaikako bilketako multzoetan, eta udalerriko gaikako bilketa egiteko gailuetan erabiltzen diren koloreen bitartez identifikatu behar dira. Multzoak ongi ikusteko moduan egongo dira, kokalekuko hainbat puntutatik aurkitzeko moduan.

Edukiontzien multzoak errazago aurkitze aldera, komeni da non dauden azaltzea esparruaren mapetan edo ekitaldiaren webgunean dagoen dokumentazioan.

Edukiontziak kutsa ez daitezen, bakoitzean zein hondakin mota sartu behar den azalpen-kartelen bitartez argitzea oso garrantzitsua da. Bertaratutakoei hondakinak zuzen sailkatzen lagunduko dieten boluntarioak egonez gero, hondakinak hobeto bereiziko direla ziurtatzen da. Barne-prestakuntzako jardunaldiak egitea antolakuntzako kide guztiek jaso dezaten birziklatzearen arloko oinarrizko ezagutza; hartara, ekitaldiaren antolatzaileei dagozkien hondakinak gaika biltzea errazagoa izango da eta birziklatzera bidaliko diren hondakinen tasa handitzeko lagungarri izango da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



Aurretik

- Beharrezkoak diren edukiontzien kopurua eta mota kalkulatzea.
- Edukiontziak non jarriko diren zehaztea.
- Edukiontziak jartzea.
- Edukiontzi multzoen kokapena eta hondakin mota adierazteko seinaleak jartzea.
- Antolakuntzako kideei ingurumen-arloko prestakuntza ematea.



Ekitaldian bertan

- Hondakinen sailkapena sustatzea.
- Bertaratutakoei jakinaraztea hondakinak zein edukiontzitan sartu behar dituzten.
- Zakarrontziak eta edukiontziak beteta dauden egiaztatzea aldizka.
- Erabat beteta dauden edukiontziak zigilatzea.



Ondoren

- Edukiontzien kutsadura-maila kontrolatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Birziklatutako materialaren ehunekoa areagotzen da.

Zabortegian bukatzen duten hondakinen kopurua gutxitzen da.



Isurketa-tasen kostuak murriztea.



Edukiontzi gehigarriak jartzeagatik kostuak areagotu daitezke.



Seinale eta kartel berrerabilgarriak egiteko hasieran inbertsioa egin behar da, baina inbertsio hori amortizatu egingo da hurrengo edizioetan eta beste ekitaldi batzuetan erabiltzen badira.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Hondakinak egoki sailkatu ahal izateko eta inplikaturako eragile guztien laguntza lortzeko, ezinbestekoa da ezarritako sailkapen-neurriei buruzko informazioa ematea.

Komunikazio hori barnean nahiz kanpoan egin behar da.

Ekitaldian bertan, edukiontziak eta hondakinak biltzeko beste puntu batzuk non dauden argi eta garbi ikusteko moduan adierazi behar da, seinaleen bitartez.

Edukiontzi bakoitzean zer hondakin sartu behar den argi gera dadin, kartelak jarri behar dira edukiontzi mota bakoitzean bota daitezkeen hondakin motak azaltzeko.

Aldez aurretik birziklatzearen eta hondakinak sailkatzearen aldeko kanpaina ona eginez gero, ezarritako neurrien eraginkortasuna handiagoa izango da.

Antolatzaileek hondakinak sailkatzeko plangintza bikaina egiten ahalegin handia egiten badute ere, lan hori guztia alferrikakoa izango da baldin eta bertaratutakoek ez badute parte hartzen. Bertaratutakoek laguntza behar-beharrezkoa da antolatzaileek aldez aurretik egindako ahalegin guztiek emaitza onak eman ditzaten.

Adierazleak

B/E Gaika bildutako
frakzioetan hondakin
desegokirik behatu
al da?

Monitorizatzeko gomendioak

Hondakinei buruzko datuak lortzeko, ekitaldian sortutako frakzioak biltzeaz arduratu diren hondakin-kudeaketako enpresek inbarremanetan jarri behar da.

Mota bakoitzaren bolumena eta pisua aintzat hartuta, ezarritako neurrien eraginkortasuna zenbatekoa izan den eta azkenean zabortegean bukatu ez duten hondakinen ehunekoa zein izan den atera daiteke.



Deskribapena

Behar adina edukiontzi jartzea ez da aski birziklatze-tasa handia bermatzeko.

Ekitaldia amaitu ostean, sortu diren hondakinen frakzio guztiak behar bezala kudeatzen direla ziurtatu behar da.

Sortutako hondakinen birziklatze-indize handia lortzeko, ezinbestekoa da sailkatu diren hondakinen frakzioen kalitatea goi-mailakoa izatea. Horretarako, hondakinak kudeatzeko sistema bat izan behar da nahitaez, hondakinak gaika bildu ahal izateko; halaber, bertaratutakoei birziklatzeari buruzko sentsibilizazio-mezuak helarazi behar zaizkie.

Hondakinak kudeatzen dituzten enprekin komunikatzea ezinbestekoa izaten da gaika bildutako hondakinak behar bezala kudeatzea lortzeko.



Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Hondakinak kudeatzen dituzten enprekin harremanetan egotea, jatorrian sortutako hondakinaren baldintzak finkatzeko, betiere azkenean toki egokian bukatuko dutela ziurtatzeko.
- Antolakuntzako kideei ingurumen-arloko prestakuntza ematea.



- Ekitaldian bildutako hondakinen frakzioak kalitate onekoak direla ziurtatzea.
- Edukiontziak egoera onean daudela egiaztatzea.
- Erabat beteta dauden edukiontziak zigilatzea



- Hondakinen frakzioen kutsadura-maila egiaztatzea.
- Bildutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea, eta hondakinen ahalik eta tasa handiena birziklatzera bidera dadin lortzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Birziklatutako materialaren ehunekoak areagotzen da.
Zabortegean bukatzen duten hondakinen kopurua gutxitzen da.



Isurketa-tasen kostuak murriztea.



Edukiontzi gehigarriak jartzeagatik kostuak areagotu daitezke.


Komunikazioa eta sentsibilizazioa


Barneko nahiz kanpoko komunikazioa funtsezkoa da ekitaldian sortutako hondakinen gaikako bilketa ahalbidetzeko. Informazioa eman behar zaie bai bertaratutakoei, sortzen dituzten hondakinak dagokien tokian bota ditzaten, bai antolatzaileei, hondakinen ahalik eta tasa handiena modu egokian kudea dadin lortzeko.

Hondakinak behar bezala sailkatzeko egindako ahaleginek ez dute efektu positiborik izango hondakinak kudeatzen dituzten enpresen komunikaziorik eta laguntzarik gabe.

Aldez aurretik birziklatzearen eta hondakinak sailkatzearen aldeko kanpaina ona eginez gero, ezarritako neurrien eraginkortasuna handiagoa izango da.

Adierazleak

 **Birziklatzera bideratutako hondakinak (balorizazio materiala)**

 **Balorizazio energetikora bideratutako hondakinak**

Monitorizatzeko gomendioak

Hondakinak balorizatzeko, bildutako frakzioek gutxieneko kalitate-maila izango dutela bermatu behar zaie hondakin-kudeatzaileei.

Egindako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko, balorizatu diren hondakinen kopurua balioetsi behar da, zabortegean bukatu dutenen ehunekoari dagokionez.



Hondakinei dagozkien hobekuntza-jarduerak

6.7 Tratamenduko tokiko sistema bat ezartzea (konpostajea)

Deskribapena

Zabortegeira botatako hondakinen ehuneko handi bat hondakin organikoak dira. Hondakin organikoak sortu diren tokian aprobetxatuz gero, dauden zabortegeian bizitza luzatu egin daiteke eta hondakinak desagerrarazteko kostua murrizten da.

Konposta egiten denean materia organikoaren degradazioa gertatzen da eta, deskonposizio-prozesu kontrolatu baten bitartez, lurraren antzeko material bihurtzen da. Beraz, birziklatzeko modu naturala dela esan dezakegu.

Hondakin organiko horiek konpost bihurtuta kalitate handiko ongarri naturala lortzen da, produktu kimikorik gabe eta energia-gasturik gabe, garraioan aurreztu egiten da eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten dira.



Konpostajeari esker, zabortegei eta erraustegietara garraiatzen diren hondakinen bolumena eta pisua nabarmen murrizten dira, hondakin horien ehuneko handi bat materia organikoa direlako. Aldi berean, landareak erretzen dituzten eta putzu eta akuiferoak kutsatzen dituzten ongarri kimikoen kontsumoa murrizten da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Materia organikoa biltzeko aukera aztertzea eta beharrezko neurriak ezartzea.
- Sortutako konposta non aplikatu aztertzea.
- Antolakuntzako kideei ingurumen-arloko prestakuntza ematea.



- Frakzio organikoa kalitate onekoa izango dela ziurtatzea.
- Edukiontzia egoera onean daudela egiaztatzea.



- Frakzio organikoa behar bezala kudeatzen dela ziurtatzea.
- Konposta berdeguneetan aplikatzea.

Neurriaren inpaktu potentziala



Zabortegian bukatzen duten hondakinen kopurua gutxitzen da.



Isurketa-tasen kostuak murriztea.



Ezarpenak kostuak areagotzea dakar, azpiegitura behar izaten delako.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Hondakinak tratatzeko tokiko sistemak –hau da, konpostagailuak– instalatzea aukera ona da ekitaldira bertaratzen direnei ekitaldi horretan sortutako hondakinen inpaktuaren berri emateko, ikusi egiten direlako. Erabiltzailearekiko kontaktu-puntu horri esker, gainera, ekitaldian ezarri den ingurumen-politikaren berri eman eta ingurumen-erabaki onenak bideratuko dituzten gomendioak eskain daitezke.

Adierazleak

B/E

Hondakinak
tratatzeke tokiko
sistema bat ezarri
al da?

Kg

Sortutako konpost
kantitatea

Kg

Tokian tratatutako
hondakinen
kantitatea

Monitorizatzeko gomendioak

Egindako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko, balorizatu diren hondakinen kopurua balioetsi behar da, zabortegian bukatu dutenen ehunekoari dagokionez.



Deskribapena

Ekitaldien nolakotasunaren ondorioz eta, batik bat, aire zabalekoetan, hondakin kopuru oso handia sortzen da eta ez da beti modu egokian kudeatzen. Antolatzaileek hondakinen prebentzioaren alde eta birziklatzea sustatzearen alde lan handia egin arren, beti geratzen dira hondakinen frakzioak lurlean abandonaturik. Hondakinak biltzeko tasa handiagoa lortze aldera, «lantalde berdea» sortzea komeni da, boluntarioz edo profesionalez osatua, honako lan hauek egiteko:

- **Abandonatutako hondakinak** biltzeko.
- **Edukiontzien betetze-maila zaintzeko** eta hustuketa kudeatzeko.
- **Bertaratutakoei hondakinak edukiontzi egokian botatzen** laguntzeko.



- Birziklatzearen gaineko sustapen- eta **sentsibilizazio**-ekintzetan laguntzeko.

Batzuetan, boluntario bat egotea askoz eraginkorragoa izaten da birziklatzeko multzo gehiago jartzea baino. Boluntario hori hori egotea antolatzaileen ingurumen-konpromisoaren adierazgarri ikusgarria da.

Zereginak eta inplikaturako eragileak



- Langileak hautatzea eta lantalde berdea antolatzea.
- Lantaldeko kideei prestakuntza ematea, beharrezkoa izango balitz, eta ingurumen-konpromisoak, hondakinei buruzko estrategia eta abar jakinaraztea.



- Lurrean abandonatutako hondakinak biltzea.
- Hondakinak uzteko puntu guztiak arakatzea, betetze-maila egiaztatzea eta, behar izanez gero, hustea.
- Bertaratutakoei jakinaraztea hondakinak non utzi behar dituzten.
- Birziklatzea modu aktiboan sustatzea.



- Abandonatuta geratu diren hondakinak biltzea eta frakzioen arabera bereiztea, ahal dela.

Neurriaren inpaktu potentziala



Birziklatze-tasa handitzea eta abandonatutako hondakinen kopurua murriztea.



Langileak ex profeso behar izanez gero, baliteke horrek kostuak areagotzea.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa

Boluntarioz ostutako lantaldea baldin bada, haien lana nabarmentzea komeni da kartelen bidez edo ekitaldian bertan megafoniatik mezuak igorrita. Hartara, boluntarioen lanari balioa emateaz gain, haien mezua indartu ere egiten da, ingurumen-jardunbide egokiak sustatzen direlarik. Bertaratutakoei sortutako hondakinak biltzea eta behar bezala kudeatzea zein garrantzitsua den ikusarazteko modurik onena izan daitezke boluntarioak. Hondakinak biltzeko puntuetan boluntario bana jarri eta hondakin bakoitza zein edukiontzitan sartu behar den jakinarazten badu, hondakinak sailkatzeko sistemaren eraginkortasuna hobetzeko neurri oso eraginkorra lortuko da.

Antolatzaileek hartutako neurrien adibide ikusgarritzat har ditzakegu garbiketa-lantaldeko kideen patruilak.

Adierazleak

B/E «Lantalde berdea» osatu al da?

B/E Lantaldeak sentsibilizazio-lanak egin al ditu?

Kg Lantaldeak berreskuratutako hondakin kopurua

Monitorizatzeko gomendioak

Lantaldea osatu baldin bada, lantaldearen eraginkortasuna ebaluatuko da bildu duten hondakinen kopuruaren arabera eta bertaratutakoein egindako sentsibilizazioko eta esku-hartzeko ekintzen inpaktuaren arabera.



I. eranskina: Jarduketen menua (checklist)

MUGIKORTASUNA

- 1.1 Garraioaren plangintza egokia egitea
- 1.2 Garraio publikoaren erabilera sustatzea
- 1.3 Garraio pribatu kolektiboa sustatzea
- 1.4 Ibilgailuetan ahalik eta bidaiari gehien etor daitezzen sustatzea
- 1.5 Ibilgailu garbi eta/edo eraginkorren erabilera sustatzea
- 1.6 Motorrik gabeko garraio bideen erabilera sustatzea
- 1.7 Aldi baterako aparkalekuen kokapena zaintzea
- 1.8 Garraio-nodoetatik taxiak partekatzeak aukera ahalbidetzea
- 1.9 Karbono-aztarna konpentsatzea
- 1.10 Ibilbideak partekatzeak plataforma bat bultzatzea
- 1.11 Hiriarako ibilbideak egiteko garraio kolektiboa eskaintzea

ENERGIA

- 2.1 Energia-beharrak behar bezala diseinatzea
- 2.2 Ekipo eta instalazio eraginkorrek hautatzea
- 2.3 Sarerako konexioari lehentasuna ematea
- 2.4 Ekipo elektrogenoen erabilera minimizatzea
- 2.5 Energia berriztagarrien sorrera sustatzea
- 2.6 Energia berriztagarria sartzea hornidura-kontratuan
- 2.7 Argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzea
- 2.8 Klimatizazioa eta ur bero sanitarioa optimizatzea

URA

- 3.1 Ur-hornidura eta uraren azken kudeaketa aztertzea eta planifikatzea
- 3.2 Ura aurrezteko sistemak instalatzea
- 3.3 Uraren kontsumo arduratsua sustatzea
- 3.4 Euri-urak bildu eta erabiltzea
- 3.5 Ur grisak berrerabiltzea
- 3.6 Hondakin-urak kudeatzea; in situ tratamendua edo kostu txikiko sistemak

EROSKETAK

- 4.1 Erosketa eta kontratazio berdearen politika ezartzea
- 4.2 Erosketak ekitaldiaren premien arabera dimentsionatzea
- 4.3 Produktu berrerabilgarriak erosteari lehentasuna ematea
- 4.4 Jatorrian ahalik eta hondakin gutxien sortzea
- 4.5 Ahalik eta material gutxien inprimatzea
- 4.6 Tokiko hornitzaileak hautatzea
- 4.7 Produktuak hautatzean ingurumen-irizpideak txertatzea
- 4.8 Zerbitzuak hautatzean ingurumen-irizpideak txertatzea
- 4.9 Jaki eta edarien erosketa berdea
- 4.10 Jatetxe- eta catering-zerbitzuen erosketa berdea
- 4.11 Garbiketako produktu eta zerbitzuen erosketa berdea
- 4.12 Inprimatzeko produktu eta zerbitzuen erosketa berdea
- 4.13 Merchandising-aren erosketa berdea
- 4.14 Erakusketarien konpromisoa - erakusketarientzako ingurumen-jokabideko irizpideak finkatzea
- 4.15 Inpaktu txikiagoko ostatuaren erabilera sustatzea

AZPIEGITURAK

- 5.1 Azpiegituren premiak dimentsionatzea
- 5.2 Ekitaldia lehendik dauden azpiegiturak kontuan hartuta diseinatzea
- 5.3 Berrerabil daitezkeen aldi baterako azpiegituren erabilera lehenestea
- 5.4 Ingurumen-jokabide hobea duten edo tokikoak diren azpiegitura-hornitzaileak hautatzea
- 5.5 Komunikazioko euskarrietan edo seinaleetan ingurumen-irizpideak ezartzea
- 5.6 Itxitura eta balizetan ingurumen-irizpideak txertatzea
- 5.7 Komun eramangarrietan ingurumen-irizpideak txertatzea
- 5.8 Ekipo elektrogenoetan ingurumen-irizpideak txertatzea
- 5.9 Argi-eta soinu-sistematan ingurumen-irizpideak txertatzea
- 5.10 Aparatu elektrikoetan ingurumen-irizpideak txertatzea
- 5.11 Altzari eta apaingarrietan ingurumen-irizpideak txertatzea

HONDAKINAK

- 6.1 Hondakinak kudeatzeko sistema diseinatzea
- 6.2 Hondakinak prebenitzeko politika ezartzea
- 6.3 Hondakinen gaikako bilketa sustatzea
- 6.4 Materialak berreskuratzeko dinamikak ezartzea
- 6.5 Hondakinak kalitate onekoak direla ziurtatzea
- 6.6 Bildutako hondakinen tratamendu egokia ziurtatzea
- 6.7 Tratamenduko tokiko sistema bat ezartzea (konpostajea)
- 6.8 Lantalde berdea osatzea



II. eranskina: **Jarduketen** **jarraipen-adierazleak**



Mugikortasuna

1.1 Garraioaren plangintza egokia egitea	Garraibide mota bakoitza erabili duten bertaratuen %-a	Mugikortasunaren ondorioz egindako CO ₂ emisioen T, bertaratu bakoitzeko	Garraibide bakoitzeko egindako distantzia Km
1.2 Garraio publikoaren erabilera sustatzea	Ekitaldira garraio publikoa erabilia iritsi diren bertaratuen %-a		
1.3 Garraio pribatu kolektiboa sustatzea	Garraibide kolektibo pribatuan joan diren pertsonen %-a	Garraibide kolektibo pribatuan bertaratu direnen %-a	Autobusek egindako distantzia (km)
1.4 Ibilgailuetan ahalik eta bidaiari gehien etor daitezen sustatzea	Autoa partekatuta etorri direnak / Autoz etorri direnak	Ibilbidea partekatzeko plataforman parte hartu duten erabiltzaileen %-a	Autoa partekatuta etorri direnen %-a
1.5 Ibilgailu garbi eta/edo eraginkorren erabilera sustatzea	Ibilgailu garbi eta/edo eraginkorretan joan diren bertaratutakoen %-a		
1.6 Motorrik gabeko garraibideen erabilera sustatzea	Motorrik gabeko garraibidea erabilia iritsi diren bertaratutakoen %-a	Bertaratutakoen abiapuntuarekiko batez besteko distantzia (km)	
1.7 Aldi baterako aparkalekuen kokapena zaintzea	Prestatutako guneen batez besteko okupazioa (%)	Aparkalekuetarako prestatutako azalera (m ²)	
1.8 Garraio-nodoetatik taxiak partekatzeko aukera ahalbidetzea	Taxia partekatu duten bertaratutakoak / Bertaratutakoen artean ibilbidea taxian egin dutenen guztizkoa	Plataforma baliatu duten erabiltzaileen kopurua	
1.9 Karbono-aztarna konpentsatzea	Konpentsazio-jardueretan parte hartu duten bertaratutakoen %-a	CO ₂ baliokide konpentsatua (t)	
1.10 Ibilbideak partekatzeko plataforma bat bultzatzea	Autoa partekatuta etorri direnak / Autoz etorri direnak	Ibilbidea partekatzeko plataforman parte hartu duten erabiltzaileen %-a	Autoa partekatuta etorri direnen %-a
1.11 Hiriarteko ibilbideak egiteko garraio kolektiboa eskaintzea	Garraibide kolektibo pribatuan joan diren pertsonen %-a		



Energia

2.1 Energia-beharrak behar bezala diseinatzea	Kontsumitutako energia, bertaraturako bakoitzeko (kWh)	Kontsumitutako energia berdearen %-a	Kontsumitutako energia, motaren arabera (kWh)
2.2 Ekipo eta instalazio eraginkorrak hautatzea	Ekitaldian erabilitako goi-mailako eraginkortasuneko ekipoen %-a		
2.3 Sarerako konexioari lehenetsua ematea	Saretik datorren energia-kontsumoa (kWh)	Kontsumitutako energia guztiak saretik datorrena (%)	
2.4 Ekipo elektrogenoen erabilera minimizatzea	Ekipo elektrogenoek kontsumitutako erregaiaren bolumena (L)	Kontsumitutako energia guztiak ekipo elektrogenoek sortu dutena (%)	
2.5 Energia berriztagarrien sorrera sustatzea	Sortutako energia berdea (kWh)	Kontsumitutako energia berriztagarrien %-a	
2.6 Energia berriztagarria sartzea hornidura-kontratuan	Kontsumitutako energia berriztagarriaren %-a	Kontrataturako energia berdea kWh	
2.7 Argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzea	Argi naturala aprobetxatzen al da? (B/E)		
2.8 Klimatizazioa eta ur bero sanitarioa optimizatzea	Klimatizazioa optimizatu al da? (B/E)	Ur bero sanitarioaren erabilera optimizatu al da? (B/E)	



Ura

3.1 Ur-hornidura eta uraren azken kudeaketa aztertzea eta planifikatzea	Ur-premiak aztertu al dira aldez aurretik? (B/E)	Uraren kudeaketa planifikatu al da kontsumoa minimizatzearren? (B/E)	Ur-kontsumoa murrizteko asmoetan hobekuntzarik egin al da? (B/E)	Ekitaldiko ur-kontsumoaren guztizko bolumena (L)
3.2 Ura aurrezteko sistemak instalatzea	Aurreztutako ur-bolumena (L)	Ekitaldian erabilitako goi-mailako eraginkortasuneko ekipoen %-a		
3.3 Uraren kontsumo arduratsua sustatzea	Ur-kontsumoa murrizteko sentsibilizazio-kanpainarik antolatu al da? (B/E)			
3.4 Euri-urak bildu eta erabiltzea	Aprobetxatutako euri-uraren bolumena (L)	Euri-uretatik datorren ur-kontsumoaren %-a		

3.5 Ur grisak berrerabiltzea	Berrerabiltako ur grisaren bolumena (L)	Berrerabiltako ur grisetatik datorren kontsumoaren %-a	Ur grisaren guztizko bolumena (L)
-------------------------------------	---	--	-----------------------------------

3.6 Hondakin-urak kudeatzea; in situ tratamendua edo kostu txikiko sistemak	Tratatutako hondakin-uren bolumena (L)	Urak inpaktu txikiko sistemekin edo in situ tratatzen al dira? (B/E)	Hondakin-uren guztizko bolumena (L)
--	--	--	-------------------------------------

Erosketak

4.1 Erosketa eta kontratazio berdearen politika ezartzea	Erosketa eta kontratazio berdearen politika ezarri al da? (B/E)	Langile guztiei eman al zaie ezarritako politikaren berri? (B/E)	Ingurumen-irizpideak dituzten produktu eta zerbitzuen %-a
---	---	--	---

4.2 Erosketak ekitaldiaren premien arabera dimentsionatzea	Erosketak ekitaldiaren benetako premiekin bat etorri al dira? (B/E)	Erosketen kopurua edo soberakinak, produktu motaren arabera (Kg)
---	---	--

4.3 Produktu berrerabilgarriak erosteari lehentasuna ematea	Antolakuntzari itzultitako produktu berrerabilgarrien %-a	Saihestutako hondakinen kopurua (Kg)
--	---	--------------------------------------

4.4 Jatorrian ahalik eta hondakin gutxien sortzea	Ba al dago jatorrian ahalik eta hondakin gutxien sortzeko politikarik? (B/E)	Langileei eman al zaie informazioa? (B/E)	Behar bezala aplikatu al da? (B/E)	Saihestutako hondakinen kopurua edo estimazioa (Kg)
--	--	---	------------------------------------	---

4.5 Ahalik eta material gutxien inprimatzea	Inprimatutako materialaren kantitatea bertaratutako bakoitzeko (Kg)	Baliabideen deskarga eta/edo webguneko bisitaldien kopurua
--	---	--

4.6 Tokiko hornitzaileak hautatzea	Hornitzaileen eta ekitaldiaren kokalekuaren arteko batez besteko distantzia (Km)	Tokian bertan produzitako produktuen kopurua, erosketen guztizkoari dagokionez (%)
---	--	--

4.7 Produktuak hautatzean ingurumen-irizpideak txertatzea	Ingurumen-irizpideak finkatu al dira produktu gehienentzat? (B/E)	Finkatutako erosketa-irizpideak betetzen dituzten produktuen %-a
--	---	--

4.8 Zerbitzuak hautatzean ingurumen-irizpideak txertatzea	Ingurumen-irizpideak finkatu al dira zerbitzuak kontratatzeke? (B/E)	Ezarritako irizpideak betetzen dituzten zerbitzuak / Kontratutako zerbitzuen guztizkoa
--	--	--

4.9 Jaki eta edarien erosketa berdea	Ingurumen-irizpideak finkatu al dira jakiak eta edariak erosteko? (B/E)	Ingurumen-bereizgarria duten elikagaien %-a	Botatako elikagaien kopurua (Kg)
---	---	---	----------------------------------

4.10 Jatetxe- eta catering-zerbitzuen erosketa berdea	Ingurumen-irizpideak finkatu al dira jatetxe- eta catering-zerbitzuak kontratatzeke? (B/E)	Inpaktu txikiko sukaldeko tresneria erabili al da? (B/E)	Zerbitzuak ba al du ingurumen-kudeaketarako sistemarik? (B/E)	Honako baldintza hauek betetzen dituzten produktuen %-a: tokiko produktua, sasoiko produktua eta inpaktu txikiko produktua
--	--	--	---	--

4.11 Garbiketako produktu eta zerbitzuen erosketaren berdea	Ingurumen-irizpideak finkatu al dira garbiketa-zerbitzuak kontratatzeke? (B/E)	Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten garbiketa-produktuak erabili al dira? (B/E)	Garbiketa-produktu jasangarriagoen kopurua (%)	
4.12 Inprimatzeko produktu eta zerbitzuen erosketaren berdea	Birziklatutako papera, ingurumen-ziurtagiria duena edo inpaktu txikiagoa erabili al da? (B/E)	Ingurumen-inpaktu txikiagoa erabili al da? (B/E)	Inprimatze-sistema eraginkorra erabili al da? (B/E)	Inpaktu txikiagoko inprimatze-materialaren kopurua (%)
4.13 Merchandising-aren erosketaren berdea	Merchandising-eko produktuak betetzen al dute ezarritako ingurumen-irizpideren bat edo batzuk? (B/E)	Soberako produktuen kopurua (Kg)		
4.14 Erakusketariaren konpromisoa - erakusketariarentzako ingurumen-jokabideko irizpideak finkatzea	Antolatzaileen gomendioak betetzeko konpromisoa formalki hartzen duten erakusketariaren %-a	Berrerabilitako material kopurua (Kg)		
4.15 Inpaktu txikiagoko ostatuaren erabilera sustatzea	Ingurumen-inpaktu txikiagoko ostatuak sustatu al dira? (B/E)	Inpaktu txikiagoko ostatuak aukeran badaudela modu aktiboan jakinarazi al zaie bertaraturakoei? (B/E)	Inpaktu txikiagoko hoteletan igarotako gau kopurua eta/edo ostatu hartu duten pertsonen kopurua	

Azpiegiturak

5.1 Azpiegituren premiak dimentsionatzea	Ekitaldiko azpiegitura-premiak aztertu al dira? (B/E)	Premiak egoki dimentsionatu al dira? (B/E)	Azpiegituren jatorriarekiko distantzia (Km)
5.2 Ekitaldia lehendik dauden azpiegiturak kontuan hartuta diseinatzea	Ekitaldiaren kokalekuan lehendik dagoenaz gain azpiegitura gehiago eskuratu (erosi, alokatu, laga...) behar izan al dira? (B/E)	Lehendik dagoen azpiegituraren %-a, erabilitako guztizkoari dagokionez	
5.3 Berrerabil daitezkeen aldi baterako azpiegituren erabilera lehenestea	Berrerabil daitezkeen azpiegituraren %-a	Birziklatutako materiala duen azpiegituraren %-a	Birzikla daitezkeen azpiegituraren %-a
5.4 Ingurumen-jokabide hobea duten edo tokikoak diren azpiegitura-hornitzaileak hautatzea	Azpiegitura-hornitzaileen eta ekitaldiaren kokalekuaren arteko batez besteko distantzia (Km)	Ingurumen-ziurtagiriaren bat duten hornitzaileen %-a	
5.5 Komunikazioko euskarrietan edo seinaleetan ingurumen-irizpideak ezartzea	Berrerabilitako eta/edo berrerabil daitezkeen komunikazioko euskarrien %-a	Birziklatutako materialez egindako euskarrien %-a	Euskarri iragankorren %-a.
5.6 Itxitura eta balizetan ingurumen-irizpideak txertatzea	Berrerabilitako elementuak erabiltzeari eman al zaio lehentasuna? (B/E)	Ingurumen-inpaktu txikiagoko elementuak hautatu al dira? (B/E)	Ekitaldian itxita edo balizatuta dagoen distantzia (m)

5.7 Komun eramangarrietan ingurumen-irizpideak txertatzea	Komun eramangarriak kontratatzeko garaian, euren inpaktua ahalik eta txikiena izateko iradokitako gomendioen arabera kontratatu al dira? (B/E)	Komunei dagokien ur-kontsumoaren %-a	
5.8 Ekipo elektrogenoetan ingurumen-irizpideak txertatzea	Ekipo elektrogenoek sortutakotik kontsumitutako energiaren %-a	Ekipo elektrogenoak elikatzeko erabilitako erregaiaren bolumena (L)	
5.9 Argi-eta soinu-sistemetan ingurumen-irizpideak txertatzea	Argia eta soinua diseinatzeko garaian energia-premia ahalik eta txikiena izateko moduan diseinatu al dira? (B/E)	Aukeran zeudenetatik ekipo eraginkorrenak hautatu al dira? (B/E)	Ekipo eraginkorren kopurua (kop)
5.10 Aparatu elektrikoetan ingurumen-irizpideak txertatzea	Aparatu elektriko eraginkorragoak erabili al dira ekitaldian? (B/E)	Aparatu eraginkorragoen %-a	
5.11 Altzari eta apaingarrietan ingurumen-irizpideak txertatzea	Altzariak eta/edo elementu apaingarriak ingurumen-irizpideen arabera hautatu al dira? (B/E)	Ingurumen-irizpideen arabera hautatutako produktuen %-a	



Hondakinak

6.1 Hondakinak kudeatzeko sistema diseinatzea	Hondakinak kudeatzeko sistema bat diseinatu eta ezarri al da? (B/E)	Sortutako hondakin kopurua, tipologiaren arabera (Kg)	Gaika bildutako hondakinen %-a
6.2 Hondakinak prebenitzeko politika ezartzea	Hondakinen prebentzio-plan bat diseinatu eta ezarri al da? (B/E)	Sortutako hondakin kopurua, tipologiaren arabera (Kg)	Sortutako hondakin kopurua, bertaratutako bakoitzeko (Kg)
6.3 Hondakinen gaikako bilketa sustatzea	Errefusaren %-a (ez da gaika biltzen)	Abandonatutako hondakinen kopurua / Bildutako hondakinen kopurua	Garbiketako hondakinen kopurua (Kg)
6.4 Materialak berreskuratzeko dinamikak ezartzea	Antolatzaileek berreskuratutako material kopurua (Kg)	Berreskuratutako materialaren inbentarioa	
6.5 Hondakinak kalitate onekoak direla ziurtatzea	Gaika bildutako frakzioetan hondakin desegokirik behatu al da? (B/E)		
6.6 Bildutako hondakinen tratamendu egokia ziurtatzea	Birziklutzer a bideratutako hondakinen %-a (balorizazio materiala)	Balorizazio energetikora bideratutako hondakinen %-a	
6.7 Tratamenduko tokiko sistema bat ezartzea (konpostajea)	Sortutako konpost kopurua (Kg)	Tokian tratatutako hondakinen kopurua (Kg)	Hondakinak tratatzeko tokiko sistema bat ezarri al da? (B/E)
6.8 Lantalde berdea osatzea	«Lantalde berdea» osatu al da? (B/E)	Lantaldeak sentsibilizazio-lanak egin al ditu? (B/E)	Lantaldeak berreskuratutako hondakin kopurua (Kg)



III. eranskina: **Datuak biltzeko** **formularioa**

Datuen erregistroa



Informazio orokorra

Orri honi esker ekitaldiarekin lotutako datuak erregistra ditzakezu. Gelaxka urdinak editagarriak dira.

«Besterik» kontzeptuan sartzen den informazioa ez da kontuan izango ingurumen-inpaktua kalkulatzeko.

Ekitaldia:	
Data eta lekua:	
Antolatzailea:	
Datu-bilketaren arduraduna(k):	

Kalkulu-oinarria	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
Bertaratuak	Ekitaldietara joandako pertsonen kopurua: publikoa, hizlariak, laguntzaileak, gonbidatuak, etab.	0		
Iraupena	Ekitaldia jenderentzat irekita egon den denbora (hautatu unitatea)	0	egun	

Energia



Adierazi ekitaldian zehar kontsumitutako energia.

Energia mota	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
1 Sareko elektrizitatea	Jatorri anitzeko penintsulako elektrizitate mistoa	0	kWh	
2 Elektrizitate berdea	Energia berriztagarrien elektrizitate mistoa	0	kWh	
3 Autogeneratutako elektrizitatea	Autoprodukzioa eta kontsumoa	0	kWh	
4 Gas naturala		0	m ³	
5 Ekipo elektrogenoetarako gasolioa		0	litro	
Besterik (deskribatu)				
Besterik (deskribatu)				

Ura



Adierazi ekitaldian zehar kontsumitutako ura.

Ur mota:	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
Sareko ura		0	m ³	
Euri-urak	Autoprodukzioa eta kontsumoa	0	m ³	
Besterik (deskribatu)				
Besterik (deskribatu)				

Mugikortasuna



Mugikortasunari buruzko informazioa sartzeko, **Mugikortasunari buruzko galdetegia** (2. orria) erabiltzea gomendatzen da. Hala eginez gero, ez sartu daturik atal honetan (datuak automatikoki sartuko dira hemen 2. orrian sartutako informazioarekin).

Garraioidea	Azalpena	Kantitatea	Unitatea ¹	Oharrak
^{11a} Kontinentearteko hegazkina		—	pKm	Zenbatetsia
^{11b} Kontinente barneko hegazkina		—	pKm	Zenbatetsia
⁴² Trena		—	pKm	Zenbatetsia
⁴³ Diesel bidezko autobus arrunta	Hiriko busa	—	pKm	Zenbatetsia
^{3b} Autobus elektriko arrunta	Hiriko busa	—	pKm	Zenbatetsia
⁴⁴ Zerbitzuko autobusa	Ekitaldirako kontratatutako autobusa	—	pKm	Zenbatetsia
⁴⁵ Tranbia		—	pKm	Zenbatetsia
⁴⁶ Metroa		—	pKm	Zenbatetsia
⁴⁷ Autoa (bakarrik)		—	pKm	Zenbatetsia
⁴⁸ Autoa (partekatuta)	3,5 pertsonako batez besteko okupazioa erabili da kalkuluak egiteko lagun.	—	pKm	Zenbatetsia
⁴⁹ Motozikleta		—	pKm	Zenbatetsia
¹⁰ Bizikleta		—	pKm	Zenbatetsia
¹¹ Oinez		—	pKm	Zenbatetsia
Besterik (deskribatu)		—	pKm	
Besterik (deskribatu)		0	pKm	

¹Distantziak pertsonako kilometrotan adierazi dira (pKm); 1pKm kilometro 1 egiten duen pertsona baten baliokidea da (edo, adibidez, 0,5 km egiten dituzten 2 pertsonena, eta abar)



Adierazi ekitaldiarekin lotutako materialen kontsumoa.

Inprimatzeko zerbitzuak eta artikulua	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
Paper berria	Kontuan izan euskarri guztietan erabilitako material guztia	0	Kg	
Birziklatutako papera	Kontuan izan euskarri guztietan erabilitako material guztia	0	Kg	
Paperean inprimatzea	Kontuan izan inprimatutako material kantitatea (ez da papera kontuan hartzen, aurreko ataletan zenbatu baita)	0	Kg	
Plastikozko banderola (HDPE)		0	Kg	
Plastikozko banderola (PVC)		0	Kg	
Besterik (deskribatu)				
Besterik (deskribatu)				

Merchandisinga	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak	Erabil. ¹
Paper berria	Kontuan izan euskarri guztietan erabilitako material guztia	0	Kg		
Birziklatutako papera	Kontuan izan euskarri guztietan erabilitako material guztia	0	Kg		
Boligrafoa	Kartoi birziklatuz (% 60) eta bioplastikoz (% 40) egindako boligrafoa	0	unitate		
Neoprenozko/gomazko zorroa	40 gramoko zorroa	0	unitate		
Berreskuratutako materialekin egindako artisauro-merkatuak	Adibidez: iPaderako zorroak	0	unitate		
Birziklatutako PET poltsa	Erabilitako plastikozko 12 botilatutako ateratako PETarekin % 100ean egindako bidaia-poltsa	0	unitate		
Beirazko botila txikia	Berriz betetzeko beirazko botila, silikonazko tapoiarekin	0	unitate		
Aterkiak	Aterki tolesgarri arrunta	0	unitate		
Identifikatzaileak (<i>lanyards</i> : poliesterezko zinta + kakoa)		0	unitate		1
Identifikatzaileak (<i>lanyards</i> : kotoizko zinta + kakoa)		0	unitate		1
Identifikatzaileak (<i>lanyards</i> : Paper/kartoizko txartela)		0	unitate		1
Besterik (deskribatu)					
Besterik (deskribatu)					

Catering eta ostalaritzako zerbitzuak	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak	Erabilera ¹
Gosariak / kafe-etenaldiak	kontratutakoak	0	kontratutako zerbitzuak		
Bazkari-afariak	kontratutakoak	0	kontratutako zerbitzuak		
Garagardoa		0	litroak		
Freskagarriak		0	litroak		
Ura		0	litroak		
Kafeak		0	Unitateak		
Salxitxa-ogitartekoak		0	unitate		
Zizka-mizkak (patata frijituak)	Patata poltsa txikia (30 g)	0	poltsak		
Plastikozko (PP) edalontziak, platerak eta mahai-tresnak, berrerailekoak		0	Kg		1
Plastikozko (PS) edalontziak, platerak eta mahai-tresnak, behi erabiltzekoak		0	Kg		
Edalontzi, plater eta mahai-tresna biodegradagarriak		0	Kg		
Kartoizko edalontziak		0	Kg		
Ontziak (PET botilak)		0	Kg		
Aluminiozko ontziak		0	kg		
Beirazko ontziak		0	Kg		1
Besterik (deskribatu)					
Besterik (deskribatu)					

¹Besterik ezean, behin bakarrik erabiltzen direla jotzen da. Produktuaren bizitza erabilgarrian erabilera gehiago izango direla aurreikusten bada, adierazi.

Ostatua ¹	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
Ingurumen-ziurtagiririk gabeko establezimendua		0	gau/pertsona	
Ingurumen-ziurtagiria duen establezimendua	Hotel horretako kontsumoak % 25 txikiagoak direla jotzen dugu.	0	gau/pertsona	
Besterik (deskribatu)				
Besterik (deskribatu)				

¹Hiriko establezimenduetan geratzen ari den pertsona kopuruari buruzko informazioak ez badago, estimazioak egin daitezke mugikortasunari buruzko galdetegiaren bidez, jatorrizko hiriri buruzko informazioa jasotzen baita horietan.

Besterik	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
Kotoizko arropa		0	kg	1
Kotoi ekologikoz egindako arropa		0	kg	1
Erosketen garraioa (kamioi handia) ¹	Adierazi metatutako garraio guztiak	0	tKm	
Erosketen garraioa (kamioi txikia) ¹	Adierazi metatutako garraio guztiak	0	tKm	
Erosketen garraioa (itsasontzia) ¹	Adierazi metatutako garraio guztiak	0	tKm	
Besterik (deskribatu)				
Besterik (deskribatu)				

Azpiegiturak



Erakusketarako egiturak eta antzekoak	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak	Erabilera ¹
Kartoi berria		0	m ³		1
Birziklatutako kartoia		0	m ³		1
Moketa	Polipropilenoarekin egindakoa.	0	m ²		1
Aglomeratu-aula	Barruan erabiltzeko	0	m ³		1
Zurezko taulak	Barruan erabiltzeko	0	m ³		1
Dentsitate ertaineko zuntzez (MDF) egindako taulak	(MDF)	0	m ³		1
OSB taula (zuzendutako txirbilak)		0	m ³		1
Aluminiozko egiturak		0	Kg		1
Altzairuzko egiturak		0	Kg		1
Beira		0	Kg		1
Erlauntz-itxurako taula		0	m ³		1
Baso jasangarrietako Afrikako zurezko taula		0	m ³		1
Baso arrunteko zurezko taula		0	m ³		1
Egur-artilezko pareta akustikoa		0	Kg		1
Kautxu berria		0	Kg		1
Besterik (deskribatu)					
Besterik (deskribatu)					

¹Besterik ezean, behin bakarrik erabiltzen direla jotzen da. Produktuaren bizitza erabilgarrian erabileraren gehiagorik ez dagoela aurreikusten bada, adierazi.

Seinaleztapena, itxiturak eta balizak	Azalpena	Kantitatea	Unitatea	Oharrak	Erabilera ¹
Metalezko hesia (burdina galbanizatua)		0	hesiak		1
Plastikozko hesia (PP)		0	hesiak		1
Taberna-barrak	Barrak, kontzertuetarako eta abarrerako	0	barrak		1
Balizatzeko zinta		0	kg		
Eremuak bereizteko	plastikozko olanak	0	kg		1
Besterik (deskribatu)					
Besterik (deskribatu)					

Hondakinak



Hondakina	Tratamendua ¹	Kantitatea	Unitatea	Oharrak
Hondakin mistoak	Tratamendu mekaniko biologikoa	0	Kg	
	Zabortegia	0	Kg	
	Errausketa	0	Kg	
Hondakin organikoak	Konpostajea	0	Kg	
	Digestio anaerobikoa	0	Kg	
	Zabortegia	0	Kg	
Ontzien hondakinak,	Saikapena eta birziklatzea	0	Kg	
	Zabortegia	0	Kg	
Paperezko eta kartoizko hondakinak	Birziklatzea	0	Kg	
	Zabortegia	0	Kg	
Beira hondakinak	Birziklatzea	0	Kg	
	Zabortegia	0	Kg	
Zuraren hondakinak	Birziklatzea	0	Kg	
	Zabortegia	0	Kg	
Besterik (deskribatu)	Birziklatzea	0	Kg	
Besterik (deskribatu)	Tratamendu mekaniko biologikoa	0	Kg	
Besterik (deskribatu)	Zabortegia	0	Kg	
Besterik (deskribatu)	Errausketa	0	Kg	
Hondakinen garraioa	Adierazi metatutako garraio guztiak	0	tKm	

¹Materiala balorizatzeko aukera ematen duen edozein hondakinaren gaikako bilketa etorkizuneko material birziklatuaren produkzio-etapari egoten zaio. Gaikako bilketak ez dio inpakturik eragiten hondakinen kudeaketari.



ERRONKA GARBIA

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN EKITALDIA